



EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA*

*DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO*

AURKIBIDEA

EZAUGARRIAK ETA DIAGNOSTIKOA	5
1. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA ETA BERORI EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA.....	6
2. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIA: OSAERA ETA ZIFRA HANDIAK	9
2.1. UNIBERTSOA: ASKOTARIKO AGENTEAK, HELBURU BATERATUA	9
2.2. GIZARTE-EKONOMIAREN MAGNITUDE NAGUSIAK	11
2.3. GIZARTE-EKONOMIA, EAEKO EKONOMIA OROKORREAN.....	12
2.4. GIZARTE-EKONOMIAREN FORMA KLASIKOEN EZAUGARRI XEHATUAK	17
2.4.1. Gizarte-ekonomiaren forma klasikoen egitura sektoriala	17
2.4.2. Lurralde-banaketa	17
2.4.3. Enpleguaren dimentsioa	18
2.4.4. Emakumeen parte-hartzea.....	19
2.4.5. Ekintzailtza EAEko kooperatibetan eta lan-sozietateetan	19
2.4.6. Enpresen arteko lankidetzak	21
2.4.7. Talentuaren eta adinaren kudeaketa enpresan	21
2.4.8. Berrikuntza.....	22
2.5. EAEKO KOOPERATIBEK ETA LAN-SOZIETATEEK ESTATUAN DUTEN GARRANTZIA	23
2.6. EAEKO GIZARTE-EKONOMIA, EUROPAKOAREKIN ALDERATUTA	25
3. SAILARTEKO 2021-2024KO PLAN ESTRATEGIKOAREN EGIKARITZEA	27
3.1. GESPE 2021-2024REN EGITURA ETA EDUKIA.....	27
3.2. PROGRAMATUTAKO JARDUKETEN GAUZATZE-MAILA.....	29
3.3. AURREKONTUAREN EGIKARITZE-MAILA	34
3.4. GIZARTE EKONOMIAREN SAILARTEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA ONETSI ZENETIK EGIN DIREN ARAU BERRI ETA ERREGELAMENDU-GARAPEN NAGUSIAK.....	35
4. GIZARTE-EKONOMIA SUSTATZEKO PROGRAMAK	39
4.1. GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZAK SUSTATZEN DITUEN LAGUNTZA-LERROAK....	39
4.1.1. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak enpresarteko lankidetzarako emandako laguntzen bilakaera eta egikaritzea	42
4.2. GIZARTE-EKONOMIAKO LAGUNTZA-PROGRAMA EZ-ESPEZIFIKO NAGUSIAK, GIZARTE- EKONOMIAKO ENPRESAK ONURADUN DITUZTENAK	42
4.3. LAGUNTZEN ETA FINANTZAKETA-LERROEN PROGRAMA JENERALISTA NAGUSIAK	45
5. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN DIAGNOSTIKOA.....	47
5.1. AMIA DIAGNOSTIKOA.....	47
5.2. HIPOTESI DIAGNOSTIKOA	50
PROPOSAMENAREN MUINA	53
6. GESPE 2026-2029REN MISIOA, IKUSPEGIA ETA PRINTZIPIOAK.....	54
6.1. XEDEA.....	54
6.2. MISIOA	55
6.3. IKUSPEGIA	55
6.4. PRINTZIPIOAK	56
6.5. PLANAREN FILOSOFIA	58
6.6. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	62
6.7. PLANAREN ZEHARKAKO IRIZPIDEAK	63
7. PLANAREN EGITURA: HELBURUAK, ARDATZAK, ILDOAK ETA EKINTZAK.....	64
7.1. PLANAREN NARRATIBA: ARDATZAK, ILDOAK ETA EKINTZAK.....	65

7.2. PLANAREN LABURPEN EGITURATUA	78
PLANAREN AURREKONTUA	87
8. GESPE 2026-2029REN AURREKONTUA	88
PLANAREN GOBERNANTZA.....	89
9. GESPE 2026-2029REN GOBERNANTZA.....	90
PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	91
10. GESPE 2026-2029REN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	92
ERANSKINA	93
I. ERABILITAKO INFORMAZIOA.....	94
I.1 eranskina. Bigarren mailako informazioa.....	94
I.2 eranskina. Estatistika-iturriak	95
II. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAKO ERAGILE NAGUSIAK	97

Taulen aurkibidea

1. taula	Diagnostikoaren atal bakoitzean aplikatutako metodologia.....	6
2. taula	Egindako elkarriketa nagusiak.....	7
3. taula	Eusko Jaurilaritzako sailekin eta foru-aldundiekin egindako bilerak.....	8
4. taula	Gizarte-ekonomiaren garrantzia, EAEko establezimenduei, enpleguari eta BEGd-ari dagokienez (2022).	12
5. taula	EAEko gizarte-ekonomiaren zifra handien bilakaera, 2018-2022	13
6. taula	Gizarte-ekonomiako establezimendu kopuruaren, enpleguaren, fakturazioaren eta BEGd-aren balio absolutua eta bilakaera, familien arabera (2018-2022).....	15
7. taula	GEFKetako enpleguaren bilakaera, dimentsioaren arabera, 2018-2022	18
8. taula	Eratutako kooperatibak eta erregistratutako lan-sozietateak, autonomia-erkidegoen arabera. 2024	20
9. taula	Kooperatiben eta lan-sozietateen entitateak eta enplegua, autonomia-erkidegoen arabera. 4T 2024	24
10. taula	EB-27ko gizarte-ekonomiako enpleguaren eta enpresen banaketa, forma juridikoaren arabera.	25
11. taula	GESPE 2021-2024ren egikaritze-maila.....	33
12. taula	GESPE 2021-2024ra lotutako adierazle kuantitatibo nagusiak: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak finantzatutako jarduketak.	34
13. taula	Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntza-lerroak.....	41
14. taula	Beste agente batzuen gizarte-ekonomiarekin lotuta dauden laguntza-lerroen laburpena.	44
15. taula	Laguntzen eta finantzaketa-lerroen programa jeneralista nagusiak.....	46

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa	Gizarte-ekonomiak 2022an EAEko ekonomian zeukan pisua.....	12
2. grafikoa	EAEko gizarte-ekonomiaren adierazle nagusien bilakaera, 2018-2022	13
3. grafikoa	Establezimenduen, enpleguaren, fakturazioaren eta BEGd-aren portzentajezko banaketa, tipologiaren arabera: gizarte-ekonomiaren forma klasikoak eta bestelako formak, 2018-2022	14
4. grafikoa	EAEko Gizarte-ekonomiaren kuantifikazioa, 2018-2022.....	16
5. grafikoa	GEFKetako enpleguak 2018-2022ko aldian izandako aldakuntza-tasa, sektoreen arabera (%).....	17
6. grafikoa	Gizarte-ekonomiako enpleguen lurralde-banaketa (%)	18
7. grafikoa	Emakumeek ekonomian eta gizarte-ekonomian duten parte-hartzea (%).....	19
8. grafikoa	Ekintzailtza kooperatiboan dauden zailtasunen pertzepzioa	21
9. grafikoa	Enpresarteko lankidetzak	21
10. grafikoa	Jarduera-sektoreen araberako analisia. Talentuaren kudeaketa arazotzat jotzen duten enpresen ehunekoa (%). 2022	22
11. grafikoa	Produktuan edo prozesuan berrikuntza-jarduerak egitea	22
12. grafikoa	Gizarte-ekonomiako enplegua, familiaren arabera	25
13. grafikoa	Gizarte-ekonomiako enpleguak EB-27ko eta EAEko ekonomian daukan pisu erlatiboa, 2022.	26
14. grafikoa	Helburuen egikaritze-maila.....	29
15. grafikoa	Gauzatutako eta programatutako jarduketaren kopurua, GESPE 2021-2024an jasotzen diren helburuen arabera.	30
16. grafikoa	GESPE 2021-2024ren aurrekontuaren egikaritze-maila, ardatzen arabera.	35
17. grafikoa	Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren dirulaguntza jaso duten ekintzen bilakaera (2021-2024ko ekintzak), laguntza motaren arabera (2021-2024).....	42

EZAUGARRIAK ETA DIAGNOSTIKOA

1. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA ETA BERORI EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoaren (GESPE) diagnostiko-dokumentua atal hauetan egituratuta dago:

- EAEko gizarte-ekonomia: osaera eta zifra handiak.
- Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoaren egikaritzea.
- Gizarte-ekonomia sustatzeko programak.
- Diagnostikoaren elementu kritikoak: AMIA matrizea.

1. taula Diagnostikoaren atal bakoitzean aplikatutako metodologia

Atala	Erreminta metodologiko nagusia
EAEko gizarte-ekonomia: osaera eta zifra handiak.	Estatistiken eta dokumentuen analisisa
Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoaren egikaritzea: emaitza nagusiak.	Dokumentuen analisisa
Gizarte-ekonomia sustatzeko programak.	Dokumentuen analisisa
Diagnostikoaren elementu kritikoak: AMIA matrizea.	Dokumentuen analisisa, elkarriketak eta bilerak

Metodologia bati jarraitu diogu diagnostiko hau egiteko; batetik, aztertu ditugu estatistikak eta dokumentuak, eta, bestetik, kontuan hartu ditugu agente giltzarriak (gizarte-ekonomiaren sistemakoek nahiz gizarte-ekonomia sustatu, ikertu eta laguntzeko esparruetakoek) elkarriketetan eta bileretan esandakoak. Erreminta metodologiko horiek erabilia, EAEko gizarte-ekonomiaren irudi eguneratu bat taxutu dugu.

Zehazki, pieza metodologiko hauek erabili ditugu:

- Bibliografiaren eta dokumentuen analisisa: aztertzea gizarte-ekonomia sustatzeko politikei buruzko dokumentu estrategikoak, memoriak eta informazioa, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren txostenak eta azterlan akademikoak eta sektorialak. 70 dokumentu baino gehiago aztertu ditugu, sakon. Kontsultatutako bibliografia-elementu nagusiak 1.1 eranskinean xehatuta daude.
- Estatistiken analisisa: aztertzea estatistika-iturri ofizial publiko eta espezializatuak, zeinek datuen fidagarritasuna, homogeneotasuna eta alderagarritasuna bermatzen baitituzte. Iturri horiek modua eman digute aztertzeke EAEko gizarte-ekonomiaren dimentsio ekonomiko eta soziala, lurralde-banaketa, bilakaera historikoa eta gorabidean dauden joerak. Erabilitako estatistika-elementu nagusiak 1.2 eranskinean xehatuta daude.
- Analisi kualitatiboa, egiteko diagnostikoaren AMIA matrizea. Analisi hau, batetik, oinarritzen da dokumentuak eta estatistikak aztertzeetik ateratako emaitzen alderaketan eta interpretazioan, eta, bestetik, gizarte-ekonomiarekin zerikusia daukaten agente publiko eta pribatuengandik eskuratutako informazioan. Zehazki, hauek egin ditugu:
 - Elkarriketak gizarte-ekonomian giltzarriak diren eragileei. Elkarriketa erdi-egituratuak egin dizkiogu gizarte-ekonomiaren EAEko ekosistemako agenteen askotariko lagin bati, adituen, erakundeetako langileen eta ekintzaileen ahotsak biltzeko. Hala, elkarriketak egin dizkiegu gizarte-ekonomiako entitateen ordezkariak (kooperatibak, lan-sozietateak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak eta

gizarte-ekonomia solidarioko zentroak) nahiz sustapenaren, ikerketaren edo bidelaguntzaren arloko agenteei. Profilak hautatzeko, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzarekin koordinatu gara. 1. taulan, egindako elkarriketa nagusien xehetasuna jasotzen da.

- Talde-bilerak foru-aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzako sailekin, gizarte-ekonomian eragile giltzarriak horiek. Bilera horien xehetasunak 2. taulan jasotzen dira.

2. taula Egindako elkarriketa nagusiak

Eremua	Organismoa	Kargua
Kooperatibak	KONFEKOOP Hazikoop Mondragon Taldea	Presidentea
		Zuzendaria
Organo publikoak	CSCE-EKGK	Presidentea
		Idazkari nagusi teknikoa
Lan-sozietateak	ASLE (Bizkaia)	Gerentea
		Controller-a
Enplegu-zentro bereziak*	ELHABE	Presidentea
		Koordinatzailea
Laneratze-enpresak	GIZATEA	Presidentea
		Koordinatzailea
Gizarte-ekonomia solidarioko zentroak	REAS	Zuzendaritza Batzordeko burua
		Ekintzailatza eta Enpresa Garapeneko arduraduna
	OLATUKOOP	Koordinatzailea
Fundazioak	FUNKO	Presidentea
	LANBIDE	Zerbitzuko arduraduna
	MONDRAGON TALDEA	Erakunde Harremanetako zuzendaria
	ELKARLAN (ekintzailatza)	Zuzendaria
	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	HUHEZI – Humanitateak eta Hezkuntza Zientziak
Beste agente giltzarri batzuk	GEZKI (EHU)	Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Masterreko zuzendaria
	GEZKI (EHU) DEUSTU – Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua	Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Masterraren Batzorde Akademikoa
		Zuzendaria
	DEUSTU – Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua	Ikertzailea

*: Txosten honetan, enplegu-zentro berezien izendapena erabili dugu, 5/2011 Legeak jasotzen duen moduan. Senatuan aldaketa-fasean den lege berriak, baina, berariaz aipatuko ditu gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak.

EAEko Gizarte Ekonomiako
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

3. taula Eusko Jaurlaritzako sailekin eta foru-aldundiekin egindako bilerak

SAILA	ORDEZKARIA	KARGUA	EGUNA
Ogasun eta Finantza Saila (GV-EJ)	Almudena Otaola	Ondare eta Kontratazioko zuzendaria	2025-06-19
Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila (GV-EJ)	Mario Yoldi	Etxebizitzako Plangintza eta Prozesu Eragileetako zuzendaria	2025-06-19
	Miguel Ángel Gargallo	Lurralde Plangintzako zuzendaria	2025-06-24
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila (GV-EJ)	Iciar Peña Laustalet	Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko zuzendaria	2025-06-24
Gipuzkoa Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Saila	Unai Andueza Amaia Arregi	Foru-diputatua Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia	2025-06-24
Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa	Maria Teresa Martinez Granado	Enplegu eta Ekintzailatzeko zuzendaria	2025-06-26
	Arantxa Niño Núñez	Lanbideko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaria	
Hezkuntza Saila (GV-EJ)	Aitor Nemesio Uriondo	Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendaria	2025-06-26
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (GV-EJ)	Jose Luis Azcue	Industria Garatzeko eta Administrazteko zuzendaria	2025-07-01
	Ane Miren de Ariño	Ekintzailatza eta Nazioartekotzeko zuzendaria	
Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila	Susana González	Enpleguko zuzendari nagusia	2025-07-01
	Gloria Mugica	DEMAko zuzendari gerentea (Enplegu eta Ekintzailatza Foru Agentzia)	
Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila	Joseba Mariezkurrena	Ekintzailatza, Talentu eta Enpresa Lehiakortasuneko zuzendari nagusia	2025-06-26
Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapeneko eta Jasangarritasuneko Saila	Saray Zarate Fernandez de Landa	Ekonomiaren Garapen eta Jasangarritasuneko diputatua	2025-07-03
Gipuzkoa Foru Aldundiko Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila	Koldo Pecifia	Proiektu Estrategikoetako zuzendari nagusia	2025-06-24
	Amaia Arregi	Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia	

2. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIA: OSAERA ETA ZIFRA HANDIAK

2.1. Unibertsoa: askotariko agenteak, helburu bateratua

Askotariko enpresek eta antolakundeek osatzen dute gizarte-ekonomia. Batetik, kooperatibak eta lan-sozietateak daude, gizarte-ekonomiaren forma klasikotzat joak¹, eta, bestetik, gizarte-ekonomiaren bestelako formak daude, hau da, fundazioak, enplegu-zentro bereziak, onura publikoko elkarteak, laneratze-enpresak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, arrantzaleen kofradiak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak. Antolakunde horiek guztiek balio sorta oso bat partekatzen dute, eta, beraz, nolabaiteko helburu bateratua dute beren jardueran: pertsonak eta helburu sozialak gailentzea helburu ekonomiko hutsei, gobernantza edo kudeaketa demokratiko eta partaidetzakoa ezartzea, elkartasun- eta banaketa-printzipioen arabera jardutea, lurraldean errotzea eta, garapen jasangarriko helburuak betetze aldera, mozkinen zati bat berrinbertitzea, besteak beste. Printzipio horiek guztiak esplizituki zehaztuta daude Gizarte Ekonomiaren Legean (5/2011, martxoaren 29koa).

Sektore guztietan badago ere, azpimarratu beharra dago, beste errealitate batzuetatik bereizteko elementu gisara, EAEko gizarte-ekonomiak izaera industrial nabaria daukala, hala kooperatibetan, nola gizarte-ekonomia osatzen duten gainerako familietan. EAE, gainera, nazioarteko erreferentia da elkarlaneko kooperatibismoan.

Hala ere, EAEko gizarte-ekonomiaren barruan, nabarmentzekoa da zer-nolako garrantzia duten jarduera sozialak garatzen dituzten entitateek eta antolakundeek. Jarduera sozial horiek zuzeneko lotura dute gizarte-kohesioarekin eta -inklusioarekin, eta gizarteari balio erantsi handia gaineratzen diote; besteren artean, jarduera hauek aipa ditzakegu: gizarte-zerbitzuak ematea, kolektibo zaurgarriak artatzea, behar gehien dituztenei inklusioan laguntzea...

Horrek guzti horrek etorkizunera begirako jarduera-segmentu giltzarri bihurtzen du gizarte-ekonomia, datozen urteetan gai izango baita erantzun berritzaile eta integratzaileak emateko EAEko gizarteak eta ekonomiak parez pare izango dituzten erronkei.

Gizarte-ekonomiari buruzko politika publikoen garapenean inplikaturik dauden agenteak, zeinak kontuan hartu behar baitira lankidetzaren sareak indartu eta estrategiak finkatu eta partekatze orduan, bost kategoria handitan sailkatzen dira:

- **Erakunde publikoak:** hemen barruan sartzen dira Eusko Jaurlaritza, Estatuko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta toki-administrazioak, eta gizarte-ekonomia sustatzeko politika publikoak ezartzen dituzte, besteak beste enplegu-programak zabalduz eta ekonomia- eta lurralde-garapena sustatuz.
- **Gizarte-ekonomiako enpresak eta entitateak:** kooperatibak, lan-sozietateak, laneratze-enpresak, fundazioak, enplegu-zentro bereziak, onura publikoko elkarteak, nekazaritzako eraldatze-sozietateak, arrantzaleen kofradiak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak dira.
- **Koordinazio-sareak eta -plataformak:** antolakunde hauek bidea jartzen diete gizarte-ekonomiako eragileen arteko lankidetzari eta ezagutza-trukeari.
- **Unibertsitateak eta ezagutza-zentroak:** erakunde akademiko hauek gizarte-ekonomiaren arloko ikerketari eta prestakuntzari laguntzen diete. Talde honetan daude, adibidez, unibertsitateak (Deustu, EHU, Mondragon Unibertsitatea) eta gizarte-ekonomia aztertzerak eta sustatzerak bideratutako institutuak eta programa akademikoak.
- **Berrikuntza eta ekintzailetza kooperatiboa:** sare eta entitate hauek sustatzen dute gizarte-ekonomiaren sektorean proiektu berriak sortzea eta teknologia garatzea.




¹ Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Estatistikan erabiltzen den izendapena.

EAEko gizarte-ekonomiaren ekosistemak, zeina antolatuta baitago askotariko agenteen inguruan, instituzionalizazio- eta koordinazio-maila altuak dauzka. Horren erakusgarri dira gizarte-ekonomiako familien ordezkari instituzional anizkunak, baita sareak ere. Hona hemen esanguratsuenak:

- KONFEKOOP – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa EAEko kooperatiben ordezkari-tza instituzionalerako sortu zen.
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK) EAEko administrazio publikoen aholkularitza-entitate bat da, baita kooperatibismoaren sustapena eta hedapena bermatzeko topagunea ere. Osoko bilkuran, entitate hauen ordezkari-tzak daude: KONFEKOOP – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Eusko Jaur-laritza, foru-aldundiak eta EAEko unibertsitateak.
- ASLE elkarteak lan-sozietateak ordezkatz-en ditu.
- EHLABE elkarteak irabazi-asmorik gabeko entitateak biltzen ditu, dibertsitate funtzionala duten pertson-ei lan- eta gizarte-arloko inklusioan laguntzekoak.
- GIZATEA gizar-teratzen eta laneratzen laguntzeko sektoreko elkar-te bat da, eta barruan biltzen ditu bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzera bideratutako laneratze-enpresak.
- FUNKO EAEko fundazioak biltzen dituen konfederazioa da; hala, fundazioen arteko lankidetz-a sustatzen du, haien interesak ordezkatz-en ditu, eta erakundeekin solaskide aritzen da, ikuspegi plural batetik.
- REAS EUSKADI ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea da, eta zaintzen, jasangarritasunaren eta inklusioaren eremuan ezarrita dago.
- Elkarlan zentroa kooperatiba txiki eta ertainen sustapenean espezializatuta dago; bereziki, hiri eta zerbitzuen eremuan (HaziAZIKOOP bihurtzen ari da).
- EGES – Euskal Gizarte Ekonomia Sareak barruan biltzen ditu EAEko gizarte-ekonomia ordezkatz-en duten entitateak, sektoreko politika publikoen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- ASETT (Arizmendi-arrieta Social Economy Think Tank) gizarte-ekonomiaren abangoardiako *hub*a da, berrikuntzaren, ezagutzaren eta proiektu-sustapenaren arloko lehenengo zentroa, eta helburu du hizpide dugun ekonomia-eredua sustatzea.

2.2. Gizarte-ekonomiaren magnitude nagusiak

EAEko gizarte-ekonomiari buruzko datu batzuk



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila

2.3. Gizarte-ekonomia, EAEko ekonomia orokorrean

EAEko ekonomian eta gizartean, gizarte-ekonomia osagai estrategiko bat da, eta enplegua sortzeko nahiz lurraldea kohesionatzeko daukan gaitasunagatik nabarmentzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiaren bi urtez behingo Estatistikako datuen arabera, 2022an gizarte-ekonomiako 3.941 enpresa (guztira, 5.420 establezimendu) eta 93.600 enplegatu zenbatu ziren; EAEko enplegatuen % 9,7 ziren, eta % 4,5eko ekarpena egin zioten BEGd-ari.


4. taula Gizarte-ekonomiaren garrantzia, EAEko establezimenduei, enpleguari eta BEGd-ari dagokienez (2022).

	Gizarte-ekonomia agregatua (GEFK eta GEBF). (1)	EAE (2)	Gizarte-ekonomiak EAEko ekonomian duen pisua (%)
Establezimenduak*	5.420	168.483	% 3,2
Ordainutako enplegu urtekotua*	93.608	964.200	% 9,7
BEGd-a* (milaka eurotan)	3.512.336	78.341.856	% 4,5

* Bikoizketarik gabe.

Iturria: (1) Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jauriaritza, Lan eta Enplegu Saila, eta (2) Datuak Eustatenak dira: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa eta Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta (BJI).

1. grafikoa Gizarte-ekonomiak 2022an EAEko ekonomian zeukan pisua



EAEko gizarte-ekonomiak 2018-2022ko aldian izandako bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu azkenengo urteari dagozkiola enpleguaren, fakturazioaren eta balio erantsiaren inguruko adierazlerik onenak.


5. taula EAEko gizarte-ekonomiaren zifra handien bilakaera, 2018-2022

	Gizarte-ekonomia agregatua (GEFK eta GEBF).			
	2018	2020	2022	Aldakuntza-tasa 2018-2022
Ordaindutako enplegu urtekotua	87.693	87.915	93.608	6,7
Fakturazioa (milioika eurotan)	10.709	10.074	12.007	12,1
Soldata-masa (milioika eurotan)	3.070	3.072	3.224	5,0
BEGd-a (milioika eurotan)	3.433	3.328	3.512	2,3

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

Dena dela, gizarte-ekonomiaren forma klasikoei (GEFK) eta gizarte-ekonomiako bestelako formei (GEBF) bereizita erreparatuz gero, oso alde handiak ikusten dira bi segmentuek izandako bilakaeran. Hain zuzen ere, hazkunde-tasak askoz ere zabalagoak izan dira gizarte-ekonomiako bestelako formetan, aztertutako adierazle guztietan. 2022an munduko ekonomiak zeukan egoera konplexua (Ukrainaren inbasioa) argi islatzen da gizarte-ekonomiaren ekoizpen-nukleoan. Alabaina, azpimarratu beharra dago, gizarte-ekonomiaren forma klasikoetan BEGd-ak behera egin badu ere (-% 1,9 2018-2022ko aldian), enplegua zertxobait hazi dela.


2. grafikoa EAEko gizarte-ekonomiaren adierazle nagusien bilakaera, 2018-2022



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

Gizarte-ekonomiaren bi segmentuetan egiaztatutako bilakaera desberdin horrek berekin ekarri du gizarte-ekonomiaren forma klasikoek pisua galtzea, bestelako formen mesedetan, hala establezimendu kopuruan, nola enpleguan eta BEGd-an; 2018-2022ko aldian, fakturazioan baino ez du hobetu garrantzi erlatiboa.

3. grafikoa Establezimenduen, enpleguaren, fakturazioaren eta BEGd-aren portzentajezko banaketa, tipologiaen arabera: gizarte-ekonomiaren forma klasikoak eta bestelako formak, 2018-2022



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

Gizarte-ekonomiako askotariko familiek 2018-2022ko aldian izandako portaerari arretaz begiratuta, emaitza hauek atera ditugu:

Establezimenduak

- Kooperatibek, 2022an 2.931 establezimendu zituztenez, EAEko gizarte-ekonomiaren establezimendu guztien % 54 osatzen zuten; gorago esan moduan, EAEko establezimenduen % 3,2 ziren. 2018-2022ko aldian, kooperatiben establezimenduen kopurua % 13 hazi da. Lan-sozietateen establezimenduen kopurua, ordea, % 11 jaitsi da 2018tik (2022an, 665 establezimendu).
- Gizarte-ekonomiaren bestelako formen blokean, establezimenduen kopuruak % 15 egin du gora. Alabaina, bi familiak murrizketa izan dute: eraldaketarako nekazaritza-sozietateek (–% 12,9) eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek (–% 12,7) behera egin dute.

Enplegua

- Gizarte-ekonomiaren forma klasikoetan enpleguak izandako aurrerabidea kooperatiben sarean oinarritzen da (2018-2022ko aldian, enplegua +% 3,5 hazi da, eta lan-sozietateetan, berriz, % 9 murriztu). 2022an, 61.781 enplegatu zeuden (Eusko Jaurlaritzaren Estatistikan 2023rako jasotako aurrerapenak 63.178 enplegu aipatzen ditu; hau da, +% 2,3ko gehikuntza). Kooperatibek gizarte-ekonomiaren forma klasikoetako enpleguaren % 89 xurgatzen dute, eta EAEko gizarte-ekonomiako guztiko enpleguaren % 58.
- Soldatapekoen kolektiboak pisua irabazi du gizarte-ekonomiaren forma klasikoetan enpleguan, bazkideen kopuruak izandako murrizketaren aurrean. Hain zuzen ere, 2018-2022ko aldiko aldakuntza-tasak +% 5,2koa eta –% 0,2koa izan dira, hurrenez hurren.
- Gizarte-ekonomiako bestelako formetan, familia guztiek izan dute gorakada enpleguan, nekazaritzako eraldatze-sozietateek eta arrantzaleen kofradiek izan ezik; azken horiek, elkarrekin hartuta, EAEko gizarte-ekonomiaren guztizko enpleguaren % 0,3 besterik ez dira.

Fakturazioa

- Kooperatibek igoera izan dute fakturazioan (+% 15,7); lan-sozietateek, ordea, jaitsiera (–% 10,2).
- Gizarte-ekonomiaren bestelako formetan, fakturazioa +% 7,6 hazi da 2018tik 2022ra bitartean. Fundazioek, enplegu-zentro bereziek eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateek, baina, ez dute bilakaera hori izan.

Balio erantsia


- Kooperatiben eta lan-sozietateen BEGd-ak jaitsiera izan du adierazle honetan; batez ere, bigarrenetan (–% 0,3 eta –% 16,2, hurrenez hurren). Kooperatibek gizarte-ekonomiaren BEGd-aren % 76 xurgatzen dute, eta enpleguaren % 58; horrek adierazten du produktibitate handiko jarduera-eremuetara bideratzen direla.
- Gizarte-ekonomiako bestelako formetan, BEGd-aren igoera oso handia izan da: +% 33,4koa.

6. taula Gizarte-ekonomiako establezimendu kopuruaren, enpleguaren, fakturazioaren eta BEGd-aren balio absolutua eta bilakaera, familien arabera (2018-2022)

	Establezimenduak		Enplegua		Fakturazioa		BEGd-a	
	2022ko balio absolutua	2018-2022ko aldakuntza-tasa	2022ko balio absolutua	2018-2022ko aldakuntza-tasa	2022ko balio absolutua (milioika eurotan)	2018-2022ko aldakuntza-tasa	2022ko balio absolutua (milioika eurotan)	2018-2022ko aldakuntza-tasa
Gizarte-ekonomiaren forma klasikoak (GEFK)	3.596	% 7,8▲	61.781	% 1,9▲	9.629	% 13,5▲	2.958	–% 1,9▼
Kooperatibak	2.931	% 13,5▲	55.242	% 3,5▲	8.975	% 15,7▲	2.696	–% 0,3▼
Lan-sozietateak	665	–% 11,0▼	6.539	–% 9,4▼	654	–% 10,2▼	262	–% 16,2▼
Gizarte-ekonomiaren bestelako formak (GEBF)	1.866	% 15,0▲	33.249	17,7▲	2.416	% 7,6▲	576	% 33,4▲
Fundazioak	815	% 7,0▲	15.011	% 15,1▲	542	–% 4,4▼	265	% 20,7▲
Enplegu-zentro bereziak	109	% 2,8▲	10.345	% 3,6▲	366	–% 2,1▼	153	% 7,1▲
Onura publikoko elkarteak	618	% 47,8▲	6.595	% 60,7▲	221	% 89,3▲	127	% 179,5▲
Laneratze-enpresak	84	% 20,0▲	957	33,1▲	38	% 73,2▲	20	% 94,6▲
Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak	74	–% 12,9▼	187	–% 19,7▼	59	–% 20,9▼	10	–% 1,5▼
Arrantzaleen kofradiak	22	% 29,4▲	75	–% 17,6▼	68	% 4,8▲	2	–% 52,3▼
BGAEdak	144	–% 12,7▼	79	% 6,8▲	1.123	% 9,4▲		–
GUZTIRA	5.462	% 10,0▲	95.030	% 6,9▲	12.045	% 12,3▲	3.534	% 2,5▲
GUZTIRA (bikoizketarik gabe)*	5.420	% 7,8▲	93.608	% 6,7▲	12.007	% 12,1▲	3.512	% 2,3▲

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

4. grafikoa EAEko Gizarte-ekonomiaren kuantifikazioa, 2018-2022



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4. Gizarte-ekonomiaren forma klasikoen ezaugarri xehatuak


2.4.1 Gizarte-ekonomiaren forma klasikoen egitura sektoriala

2022an, enpleguaren % 54,6 zerbitzuetan (33.705) kontzentratu zen, eta industriak % 40,7 xurgatu zuen (25.144).


2018-2022ko aldiko bilakaerari begiratzuz gero, ikusten da industria dela jaitsiera izan duen sektore bakarra (-% 6,1).

Kooperatibek sektore guztietan menderatzen dute enplegua; bereziki, lehenengo sektorean (% 98,4) eta zerbitzuetan (% 94,0). Lan-sozietateak eraikuntzan (% 21,0) eta industrian (% 15,9) nabarmentzen dira;

haien artean, lan-sozietate mugatuak gailentzen dira, eraikuntzan salbu, azken horretan lan-sozietate anonimoak baitira nagusi.



5. grafikoa GEFKetako enpleguak 2018-2022ko aldian izandako aldakuntza-tasa, sektoreen arabera (%)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4.2 Lurralde-banaketa

Gipuzkoak gizarte-ekonomiako enpleguaren % 52,4 hartzen du; ondotik, Bizkaia dator (% 38,3), eta, azkenik, Araba (% 9,3). Gipuzkoa nabarmentzen da industria kooperatiboan; Bizkaiak eta Arabak, aldiz, pisu handiagoa daukate zerbitzuen sektorean. Bilakaerari begiratuta, hirurek izan dute igoera gizarte-ekonomiaren forma klasikoetara lotutako enpleguan; hala ere, Bizkaiak izan du gorakadarik handiena (+% 4,5), eta Gipuzkoa oso egonkor mantendu da (+% 0,2).

6. grafikoa Gizarte-ekonomiako enpleguen lurralde-banaketa (%)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2022koa eta 2023ko aurrerapena), Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4.3 Enpleguaren dimentsioa

Enpresen tamaina kontuan hartuta, ikusi dugu 200 enplegu baino gehiagoko sareak guztizko enpleguaren % 55 inguru hartu zuela 2022an; beraz, 2018an zeukan pisuari eutsi dio segmentu horrek. Halere, analisi xeheagoa eginez ikusi dugu 200 eta 500 enplegu arteko segmentuak igoera izan duela eta, era berean, 500 enplegutik gorako segmentuak murrizketa arin bat izan duela. 15 enplegura arteko sareak portzentajezko pisu pixka bat irabazi du, eta igoera handiagoa izan da segmenturik txikienean (5 enplegura artekoan). 16 eta 200 enplegu arteko enpresek garrantzia galdu dute termino absolutu nahiz erlatiboetan.

7. taula GEFKetako enpleguaren bilakaera, dimentsioaren arabera, 2018-2022


	GEFK			
	2018	2022	% ber. 2022	2018-2022ko aldakuntza-tasa
Enpleguaren dimentsioa				
5 enplegu arte	4.391	4.708	% 7,6	% 7,2▲
6-15 enplegu	4.239	4.389	% 7,1	% 3,5▲
16-50 enplegu	6.032	5.741	% 9,3	-% 4,8▼
51-100 enplegu	6.761	6.775	% 11,0	% 0,2▲
101-200 enplegu	6.902	6.336	% 10,3	-% 8,2▼
201-500 enplegu	7.531	9.252	% 15,0	% 22,9▲
500 enplegu baino gehiago	24.751	24.581	% 39,8	-% 0,7▼
GUZTIRA	60.609	61.781	+% 100,0	% 1,9▲

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4.4 Emakumeen parte-hartzea

2022an, emakumeak ziren kooperatibetako eta lan-sozietateetako langileen % 45,4, EAEko ekonomia orokorrean (% 47,6) baino ehuneko zertxobait txikiagoa hori (2,2 puntu). Emakumeak nagusi dira zerbitzuen sektorean (% 64,4), baina ordezkari txikia dute industrian (% 23,7), eraikuntzan (% 9,7) eta lehenengo sektorean (% 30,1).

7. grafikoa Emakumeek ekonomian eta gizarte-ekonomian duten parte-hartzea (%)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2022koa eta 2023ko aurrerapena), Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

Gizarte-ekonomian, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala % 18,5koa da: balio horren arabera, gizarte-ekonomia EAEko lan-merkatuko batez besteko ratiotik behera dago (Emakunderen arabera, 2020an % 22,6koa izan zen ratioa). Sektoretik sektorera, arrakala asko aldatzen da (industrian % 11koa da, baina zerbitzuetan % 20ra iristen da).

Erabakiguneetan, oraindik orain, oso emakume gutxi daude, eta gune horietan duten ordezkari txikiagoa da plantilletan dutena baino; agerikoa da genero-arrakala dagoela. Hain zuzen ere, emakumeek kontseilu nagusian duten pisua % 34,7koa da; gerentzia-postuetan dutena % 34,1koa, eta presidentetza dutena % 32,5koa. Alabaina, maila horiek hobeak dira 2020koak eta aurreko urteetakoak baino: joera goranzkoa da. Gainera, adierazi beharra dugu emakumeek gerentzia- edo presidentetza-postuetan duten ordezkari txikiagoa dela EAEko gizarte-ekonomian, EAEko jardueradunen multzoan baino, zeinean zuzendarien eta gerenteen % 31 baitira emakumeak.

Kooperatibek genero-ekitate handiagoa dute (emakumeak dira % 47,5), lan-sozietate anonimoek baino (% 22,7); beraz, ondoriozta daiteke balio kooperatiboek inklusio handiagoa eskaintzen dutela.

2.4.5 Ekintzailtza EAEko kooperatibetan eta lan-sozietateetan

Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak emandako datuen arabera, zeinek modua ematen baitute autonomia-erkidegoak alderatzeko, 2024an EAE laugarren tokian zegoen gizarte-ekonomiaren arloko ekintzailtza (7,2 entitate 100.000 biztanleko), Estatuko batezbestekotik oso gora (3,8). Gipuzkoak jarraitzen du izaten lurralderik dinamikoena, eta, atzetik, Bizkaia eta Araba datoz, joera bereiziek.

EAEko Gizarte Ekonomiako
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

Estatistika-iturri horrek emandako zenbaki zehatzek erakusten dutenez, EAEn 106 entitate berri eratu ziren. Kooperatibak izan ziren eratutako entitateen % 90 (144, eta horietatik 124 elkarlanekoak), eta lan-sozietateak gainerako % 10a (16). 2018an, berriz, 175 kooperatiba eta 15 lan-sozietate sortu ziren.

8. taula Eratutako kooperatibak eta erregistratutako lan-sozietateak, autonomia-erkidegoen arabera. 2024

Autonomia-erkidegoa / hiria	Kooperatibak	Lan-sozietateak	Guztira	Tasa 100.000 biztanleko
Andaluzia	346	10	356	4,1
Aragoi	27	4	31	2,3
Asturiasko Printzerria	5	12	17	1,7
Balear Uharteak	9	0	9	0,7
Kanariak	12	11	23	1,0
Kantabria	9	13	22	3,7
Gaztela-Mantxa	64	4	68	3,2
Gaztela eta Leon	63	6	69	2,9
Katalunia	172	2	174	2,2
Valentziako Erkidegoa	169	5	174	3,3
Extremadura	18	9	27	2,6
Galizia	192	77	269	9,9
Madrilgo Erkidegoa	80	91	171	2,4
Murtziako Eskualdea	111	16	127	8,1
Nafarroako Foru Komunitatea	110	2	112	16,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	144	16	160	7,2
Errioxa	1	0	1	0,3
Ceuta eta Melilla	0	0	0	0,0
Espainia, guztira	1.565	278	1.843	3,8


Iturria: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren Gizarte Segurantzaren inskribatutako gizarte-ekonomiako entitateen estatistika.

Elkarlanek egindako "Kooperatiben Enpresa Ekimenen Behatokiaren hogeigarren txostenean" jasotzen diren datuekin, EAEko ekintzailetza kooperatiboaren profilean sakondu dezakegu. Helduak dira nagusi (% 61ek 35 eta 54 urte artean dauzkate); kualifikazio altua dute (% 81ek lanbide-ikasketak, unibertsitate-ikasketak edo graduondoko ikasketak dauzkate), eta aurretik ekintzaile aritutakoak dira (% 56). % 32k beren ideia aurrera eramateko ekin zuten, eta % 27k negozio-aukera bat identifikatu zutelako.

Kooperatiben % 56 baino gehiago sei hilabete baino gutxiagoan eratzen dira, baina % 19,4k urtebete baino gehiago behar izaten dute. Ekintzaileen % 92,5ek laguntza publikoak eskatzen badituzte ere, % 47,2k bakarrik jasotzen dituzte. Laguntzak eskuratzea eta kudeatzea dira zailtasun nagusiak, eta horrek adierazten du prozesuak soildu eta erakundeen koordinazioa hobetu behar direla.

8. grafikoa Ekintzailetza kooperatiboan dauden zailtasunen pertzepzioa

- Tardanza de las ayudas
- Exigencia de avales
- Poco poder de negociación frente a entidades financieras
- Carencia de conocimientos legales
- Dificultad para encontrar formación específica adecuada
- Muchos tramites
- Mucha documentación requerida
- Precio de alquiler elevado
- Precio de compra elevado
- Dificultad para encontrar el local adecuado




Iturria: Elkarlan.

2.4.6 Enpresen arteko lankidetzak

2022an, gizarte-ekonomiaren forma klasikoetan sartutako enpresen erdiek inguru enpresarteko lankidetzak harremanak zeuzkaten, eta ehuneko hori % 63ra iristen zen 50 enplegatu baino gehiagoko enpresetan. 2018an, enpresarteko lankidetzak enpresen % 23,7ri soilik eragiten zien; halere, 50 langile baino gehiagoko enpresetan, % 70ekoa zen ehunekoa.

Bestetik, unean uneko lankidetzak gailentzen dira, urriak baitira harreman egonkorragoa edo estrategikoagoa dakartenak.

9. grafikoa Enpresarteko lankidetzak



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2022koa eta 2023ko aurrerapena), Eusko Jaurilaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4.7 Talentuaren eta adinaren kudeaketa enpresan

Gero eta zailagoa da talentua atzeman eta atxikitzea. Hala, 2018an, enpresen % 23k esaten zuten arazotsua zela talentua atzematea, baina, 2022an, proportzio hori % 27ra igo zen; gainera, enpresa gehien-gehienek garrantzi handia edo nahikoa ematen zioten auziari. Bestalde, enpresen % 19rentzat arazoa da talentua atxikitzea (2020an, % 12,8k adierazi zuten hori, baina

ez daukagu 2018rako daturik), eta hamar enpresatik bederatzik oso edo nahiko garrantzitsutzat jotzen dute kontua. Adinaren kudeaketa ere kezka-iturria da enpresen % 20 ingururentzat.

Industria-sektorea da, lehenengo sektorearekin batera, talentuaren kudeaketarekin (% 40) eta adinaren kudeaketarekin (% 32) kezkatuen dagoena. Tamainari begiratuta, 16 eta 50 enplegatu arteko enpresek dauzkate ehunekorik altuenak.

10. grafikoa Jarduera-sektoreen araberako analisia. Talentuaren kudeaketa arazotzat jotzen duten enpresen ehunekoa (%). 2022




Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2022koa eta 2023ko aurrerapena), Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

2.4.8 Berrikuntza

2022an, gizarte-ekonomiako enpresen berrikuntza-ratioa % 26,3koa, EAEko batezbestekotik gora (% 24,2), eta, industria-sektorean, % 31,5era iristen zen.

2018-2022ko aldian izandako bilakaera positiboa da, jarduera berritzailea oro har areagotu baita, baina gizarte-ekonomian bereziki (% 22,1etik % 26,3ra).

11. grafikoa Produktuan edo prozesuan berrikuntza-jarduerak egitea



* Produktuan edo prozesuan berritu duten establezimenduak sartuta daude.

** Produktuan edo prozesuan berritzen ari diren edo berritzea lortu ez duten establezimenduak sartuta daude.

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2022koa eta 2023ko aurrerapena), Eusko Jaurlaritza, Lan eta Enplegu Saila.

EAEko kooperatibismoak erantzun berritzaileak ematen dizkie gaurko erronka handiei, eta Kooperatiben Nazioarteko Urtea (2025) nazioartean aitortu izanak indartu egin du erantzuna.

Berritzeko gaitasun hori islatzen dute, adibidez, etxebizitzak erabiltzen lagatzeko kooperatibek, energia berdearen inguruko kooperatibek edo zaintzen arlokoek.

Gizarte-berrikuntza dimentsio estrategikoa da EAEko kooperatibismoan, helburu baitu erronka sozial konplexuei elkarlaneko soluzioen bidez erantzutea. EAEko kooperatibek antolaketa eta gobernantza molde berriak sustatzen dituzte hainbat desafiori aurre egiteko, hala nola gizarte-bazterketari, gazteen langabeziari edo mendekotasunaren arretari, jarduera parte-hartzaileen eta esperientziazko instituzionalaren bidez. Egitasmo horiek inpaktu ekonomikoa eragiten dute, eta gizarte-kohesioa indartzen: egitasmoak, beraz, eraldaketa-balio handiko garapen-eredu inklusibo eta erresilientea bihurtzen dute gizarte-ekonomia.

Berrikuntzaren eremuan, halaber, ASETT gizarte-ekonomiaren abangoardiako *huba* nabarmendu beharra dago, berrikuntza-sistema estrategiko baten epizentroa izateko sortu baita berrikuntzaren eta lankidetzaren arloan erreferentziakoa den gune hori. Egitasmoa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean kokatzen da, gizarte-ekonomiaren eta zaintzen alorretan, ekonomia justu, jasangarri eta parekide berri batean espezializatutako ekosistema bat bultzatzeko.

Gizarte-ekonomiari buruzko ezagutza-transferentziaren eta -trukearen bidez ikerketa biltzea, eragileen artean sinergiak sortzea eta jarduketak-sareak sustatzea du xede, EAEko eta Estatuko ekosisteman ez ezik Europakoan eta nazioartekoan ere eragiteko. Funtsezko hiru helburu ditu:

- gizarte-ekonomiako enpresa-sarearen ekintzailetza kolektiboaren eta lehiakortasunaren mailak igotzea, berrikuntza-eskemak garatuz eta ezarriz
- enpresek, erakundeek eta akademiak sarean sortutako ezagutza eskalagarri egingo duen eduki-plataforma bat ardaztea
- gizarte-ekonomiaren ikusgaitasuna eta ahalmen eragilea areagotzea, gizarte-ekonomiaren eta arloko politika publikoen gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-inpaktua ebaluatuko duen ideia-laboretegi bat eratuz

Badira azpimarratzeko moduko beste egitasmo batzuk ere, hala nola Ekintzaileen Kooperatiba, Kooperatiben Legea garatzen duen Dekretuan zehaztua, edo Mondragon City Challenge, ekintzailetza kooperatiboaren nazioarteko lehiaketa. Bada, biek ala biek indartzen dituzte belaunaldi-erlebeoa eta gazteen parte-hartzea berrikuntza kooperatiboan.


Laburbilduz, berrikuntza EAEko kooperatibismoaren erreminta estrategiko bat da gaur egun: gizarte-transformazioaren eta jasangarritasun ekonomikoaren erreferente bihurtzen du kooperatibismoa, bat etorrita Garapen Jasangarriko Helburuekin eta 2030eko Agendarekin.

2.5. EAEko kooperatibek eta lan-sozietateek Estatuan duten garrantzia

2024an, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren datuak aintzat hartuta, EAEk sendotu egin zuen Estatuko gizarte-ekonomian zeukan lider posizioa, alorrean buruetako bat baita. Hain zuzen ere, Estatuko guztizkoaren % 9,1 da, nahiz eta Estatuko biztanleriaren % 4,5 bakarrik bildu; horrek agerian jartzen du gizarte-ekonomiak presentzia handia daukala EAEn.

2018tik 2024ra bitartean, EAEko entitateen kopurua % 3 hazi da, baina Estatukoak % 13,6ko jaitsiera izan du oro har. Kontraste horrek argi eta garbi erakusten duenez, EAEko eredia erresilienteagoa eta egonkorragoa da, Estatuko oro har baino.

EAEko Gizarte Ekonomiako
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa



Autonomia-erkidegoei begiratuta, EAE da buru 100.000 biztanleko langile-ratioari dagokionez (9. taula), Nafarroatik distantzia handira (bikoitza ia), nahiz eta azken hori izan rankingean bigarren. Alabaina, biztanleriari dagokionez dagoen entitate-proportzioan, EAE hirugarren tokian dago, Nafarroaren eta Murtziaren atzetik.

9. taula Kooperatiben eta lan-sozietateen entitateak eta enplegua, autonomia-erkidegoen arabera. 4T 2024

Autonomia-erkidegoa / hiria	Kooperatibak (entitateak)	Lan-sozietateak (entitateak)	Entitateak, guztira	Langileak, guztira	Entitateak 100.000 biztanleko	Langileak 100.000 biztanleko
Andaluzia	4.005	1.318	5.323	81.713	61,7	947
Aragoi	564	214	778	8.600	57,6	636
Asturiasko Printzerria	175	221	396	5.449	39,2	540
Balear Uharteak	169	62	231	3.235	18,8	263
Kanariak	209	174	383	5.903	17,1	264
Kantabria	95	95	190	2.063	32,2	349
Gaztela-Mantxa	1.036	536	1.572	14.417	74,7	685
Gaztela eta Leon	1.097	394	1.491	11.795	62,3	493
Katalunia	2.533	475	3.008	44.812	37,5	559
Valentziako Erkidegoa	2.137	473	2.610	57.223	49,1	1076
Extremadura	556	184	740	7.301	70,2	692
Galizia	1.124	344	1.468	10.871	54,3	402
Madrilgo Erkidegoa	627	779	1406	23.956	20,1	342
Murtziako Eskualdea	1.487	401	1.888	25.695	120,4	1.638
Nafarroako Foru Komunitatea	751	172	923	11.498	136,1	1.695
Euskal Autonomia Erkidegoa	1.840	422	2.262	70.178	101,5	3.150
Errioxa	83	20	103	968	31,8	299
Ceuta eta Melilla	18	2	20	181	11,8	107
Espainia, guztira	18.506	6.286	24.792	385.858	51,0	794

Iturria: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren Gizarte Segurantzaren inskribatutako gizarte-ekonomiako entitateen estatistika.

EAEk, gizarte-ekonomiako entitate asko edukitzeaz gainera, asko hartzen du parte Estatuko eta Europako gobernantza-guneetan. Hala, EAE gizarte-ekonomiako familien ordezkaritza-eremu guztietan dago (batez ere, kooperatibismoan), eta EAEko antolakunde sektorialak buru dira Estatuko hainbat antolakundetan. Esate baterako, aipa ditzakegu CEPES, HISPACOOOP (kontsumoa) eta COCETA (elkarlana). Halaber, parte hartzen du Gizarte Ekonomia Sustatzeko

Kontseiluan, CICOPAn (Industriako eta Zerbitzuetako Kooperatiben Nazioarteko Antolakundea) eta ACIn (Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa). ASLE, bestalde, LABORPARen buru da (partaidetzako lan-sozietateak).

Enpleguan, EAEn lidergoa are nabarmenagoa da: EAEk xurgatzen du Estatuko guztizko enpleguaren % 18, eta, biztanleriari dagokionez, EAEk dauka kooperatibetan eta lan-sozietateetan aritzen diren langileen adierazlerik handiena. 2018tik 2024ra bitartean, EAEko kooperatibetako eta lan-sozietateetako enplegua % 8,5 hazi da, Estatuko hazkundetik (% 1,9) oso gora, eta horrek berretsi egiten du EAEko ereduak gaitasun eta dinamismo handiak dauzkala enplegu egonkorra sortzeko.

EAEko ereduaren bereizgarrietako bat da entitateen batez besteko tamaina: 2024an, entitate bakoitzak 31 pertsonari eman zien lana, Espainiako 15,6ren aldean. 2016-2024ko aldian, adierazle horren hazkunde erlatiboa handiagoa izan da Espainian, EAEn baino, baina EAEk buru izaten jarraitzen du eskala handiagoko egituretan, gizarte-ekonomiaren barruan.

Alderatuta, EAE da buru entitateen batez besteko tamainan, eta, atzetik, Valentziako Erkidegoa eta Madril datoz.

Bestetik, adierazi beharra dugu EAEko enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak aitzindariak direla Estatu mailan, esku hartzeko duten eredu integralari esker; hain zuzen ere, EAEko enplegu-zentro bereziak (Gureak, Lantegi Batuak eta abar) Estatuko handien artean daude, CEPESen "Gizarte-ekonomiako enpresarik garrantzitsuenak 2024-2025" txostenean ikusten den moduan. Laneratze-enpresei dagokienez, EAE izan zen laneratze-enpresen ereduaren hazia Estatu mailan, eta, gaur egun, Estatu osoko laneratze-enpresen % 30 EAEn daude; gainera, handienetako bat EAEkoa da.

2.6. EAEko gizarte-ekonomia, Europakoarekin alderatuta

Europar, "Benchmarking the Socio-Economic Performance of the EU Social Economy" (Europako Batasuna, 2024) argitalpenean jasotzen diren datuen arabera, gizarte-ekonomiak guztizko enpleguaren % 6,3 hartu zuen 2022an; EAEn, ordea, ia-ia % 10 bildu zuen, Batasunaren batezbestekotik oso gora, argi eta garbi.

Europar, gizarte-ekonomiako enplegua, batez ere, elkarreetan biltzen da (% 54); EAEn, berriz, kooperatibek xurgatzen dute kuotarik handiena (% 59), EB-27ko enpleguaren % 29 baino ez direla.

10. taula EB-27ko gizarte-ekonomiako enpleguaren eta enpresen banaketa, forma juridikoaren arabera.

EB-27	Kooperatibak	Elkarreak	Fundazioak	Beste batzuk	Guztira
Enplegatuak (%)	29,0	54,1	8,2	8,7	100,0
Enpresak (%)	5,6	88,7	3,3	2,5	100,0


Iturria: Geuk egina, "Benchmarking the Socio-Economic Performance of the EU Social Economy" (Europako Batzordea, 2024) argitalpenean jasotako informazioa oinarri hartuta.

12. grafikoa Gizarte-ekonomiako enplegua, familiaren arabera.

EB-27


EAE

EAEko Gizarte Ekonomiako Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa



Iturria: Geuk egina, "Benchmarking the Socio-Economic Performance of the EU Social Economy" (Europako Batzordea, 2024) argitalpenean jasotako informazioa oinarri hartuta.

13. grafikoa Gizarte-ekonomiako enpleguak EB-27ko eta EAEko ekonomian daukan pisu erlatiboa, 2022.



Iturria: Geuk egina, "Benchmarking the Socio-Economic Performance of the EU Social Economy" (Europako Batzordea, 2024) argitalpenean jasotako informazioa oinarri hartuta.

Europar, gizarte-ekonomiako enplegua osasunean, hezkuntzan, kulturen eta gizarte-arretan biltzen da. EAEn, lehen esan bezala, industria-sektoreak protagonismo handia dauka (gizarte-ekonomiako enpleguaren % 41 eta EAEko ekonomiako enpleguaren % 20).

3. SAILARTEKO 2021-2024KO PLAN ESTRATEGIKOAREN EGIKARITZEA

3.1. GESPE 2021-2024ren egitura eta edukia

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoa (GESPE) erreminta giltzarria izan da EAEn gizarte-ekonomiako politika publikoak egituratu eta koordinatzeko. Sei helburu estrategikotan, hamabi jarduketa-ardatzetan, 30 ildotan eta 80 ekintzatan antolatu zen, zertarako-eta lurraldean errotutako entitateak sortu eta finkatzeko, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik jasangarriak eta gizarte-ekonomiaren balioekin bateratuak.

Ardatza	Jarduketa-ildoak
1. Gizarte-ekonomiako ekintzailatza bultzatzea, dauden enpresak indartzea eta informatzaileen eta preskriptoreen sarea eta aholkularitza-zerbitzuak hobetzea	1.1. Gizarte-ekonomiako enpresa gehiago eta hobeak sortzea, daudenak sendotzea eta enplegua handitzen laguntzea.
	1.2. Gizarte-ekonomiaren ereduaren preskriptoreen sarea optimizatzea eta osatzea, tresnak emanez (informazioa eta ezagutza), ekintzailatza kolektiborako ibilbideetara sartzeko ateak izan daitezten.
	1.3. Gizarte-ekonomiako enpresak sustatzera berariaz bideratzen diren entitateen lana optimizatzea.
	1.4. Gizarte-ekonomiako enpresa berriei aholkularitza eta laguntza emateko sarea zabaltzea, gizarte-ekonomiako berariazko ekintzailatza-haztegiak bultzatuz.
	1.5. Gizarte-ekonomiako entitateak indartzea, kalitateko enplegu inklusiboa sortuz.
	1.6. Enpresen eraldaketa-prozesuetan (krisiak, birmoldaketak, etab.) eta belaunaldi-erreleboan arreta jartzea, gizarte-ekonomian enpresa berriak integratzeko bide gisa.
	1.7. Aukera-guneak baliatzea gizarte-ekonomiako proiektu eta enpresa berriak bultzatzeko: etxebizitza, zainketa pertsonalak, ekonomia zirkularra, landa-nekazaritza-Km0 sektorea, energia-komunitateak, plataforma digitalak, finantza etikoak, etab.
2. Gizarte-ekonomiako produktuen eta zerbitzuen eskaria bultzatzea, erosketa publiko arduratsuen bidez	1.1. Kontratazio publiko arduratsua sustatzea.
	1.1. Enplegu-zentro berezietarako eta laneratze-enpresetarako ondasun eta zerbitzuen kontratazioa sustatzea.
	1.1. Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko araudia betetzearen jarraipena bultzatzea.
3. Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea eta integratzea hezkuntza-etapa guztietan, tartean diren eragileen artean eta sektorean bertan	3.1. Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza zabaltzea hezkuntza arautuaren etapa guztietan.
	3.2. Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza egokia ziurtatzea arautu gabeko prestakuntzaren bidez zerikusia duten eragile preskriptoreei.
	3.3. Unibertsitateen bidez gizarte-ekonomiaren inguruko ikerketa aplikatua, ezagutza eta prestakuntza bultzatzea.
	3.4. Sektorearen beraren gizarte-ekonomiako prestakuntza bultzatzea.

EAEko Gizarte Ekonomiako
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

Ardatza	Jarduketa-ildoak
4. Enpresa-ekimen, enpresa eta erakunde txiki berrietarako behar den finantza-euskarria ematea, sendotze-prozesua bideragarri eta jasangarri eginez	4.1. Gizarte-ekonomiako proiektu berriak eta jarduera berria finantzatzea erraztuko duten aukerak aztertzea. 4.2. Gizarte-ekonomiaren alorreko entitateen arteko lankidetzaren areagotzea.
5. Ereduari kohesio eta erakargarritasun handiagoa ematea, haren gizarte-babesa hobetuz	5.1. Gizarte-aurreikuspen osagarriaren estaldura hedatzea, enplegu-sistemen bidez, kooperatiba eta lan-sozietateetako langileei.
6. Gizarte-ekonomiako ereduaren ikusgarritasuna eta gizarte-harmena hobetzea, eredu hori hedatzea eta sendotzea errazteko bitarteko gisa, eta haren jardueraren hedapena ziurtatzea	6.1. Gizarte-ekonomian garatutako balioak, konpromisoak eta jarduera zabaltzea. 6.2. Euskadiren erreferentzialtasuna sustatzea munduan, gizarte-ekonomiaren ereduaren izanik
7. Gizarte-ekonomiari buruzko neurketa- eta ezagutza-sistema garatzea	7.1. Gizarte-ekonomiari buruzko informazioa hobetzea, antzemandako hutsuneen estaldura ziurtatuz.
8. Gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea	8.1. Gizarte-ekonomiak Eusko Jaurlaritzan duen kokapena indartzea, haren balio-ekarpenaren eta ahalmenaren arabera. 8.2. Gizarte-ekonomiaren garapenean inplikaturako Jaurlaritzaren arloetan zeharkakotasun handiagoa sustatzea, bai eta gizarte-ekonomia bultzatzeko erakunde arteko koordinazio handiagoa ere. 8.3. Gizarte-ekonomiari bideratutako laguntza ekonomikoen sistema hobetzea eta indartzea. 8.4. Lankidetzaren publiko-pribatua garatzea, sektorearekin batera gizarte-ekonomiaren garapenean lan eginez.
9. Gizarte-ekonomiaren esparru juridikoa aztertzea eta garatzea, haren hedapena mugatzen duten oztopoak ezabatuz	9.1. Euskadiko Kooperatiben Legearen garapena eta lan-sozietateen legearen aldaketa bultzatzea. 9.2. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren lankidetzaren EAEko gizarte-ekonomiari eragiten dion legeriari buruzko estatu-mailako azterketa eta garapen juridikoetan.
10. Gizarte-ekonomiako enpresetan eta entitateetan genero-berdintasuna sustatzea	10.1. Gizarte-ekonomiaren sektoreak genero-berdintasunari dagokionez duen egoera aztertzea eta berdintasun-ekintzak bultzatzea.
11. Gizarte-ekonomiako familien arteko aliantzak eta osagarritasunak bultzatzea, ardatzen bidez, topaleku gisa	11.1. Gizarte-ekonomiako familien arteko lankidetzaren akordioak sustatzea. 11.2. EAEko gizarte-ekonomiaren presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatzea nazioarteko sare eta proiektuetan.
12. Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea	12.1. Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzeko mugari zehatzak ezartzea.


Iturria: EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoa. Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza.

3.2. Programatutako jarduketaren gauzatze-maila

GESPE 2021-2024n jasotzen diren jarduketaren gauzatze-mailaren analisiak erakusten duenez, programatutakoaren % 92,4 bete da.


Planaren sei helburuei begiratuta, gauzatze-maila alor guztietan altua izan dela ikusi dugu. 5. helburuak (politika publikoen gobernantza hobetzea eta lankidetzaren publiko-privatua sustatzea) eskuratu du baliorik txikiena, baina, hala ere, % 90etik hurbil dago.

14. grafikoa Helburuen egikaritze-maila



Iturria: Geuk egina, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa oinarri hartuta. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza.

15. grafikoa Gauzatutako eta programatutako jarduketaren kopurua, GESPE 2021-2024an jasotzen diren helburuen arabera.



Iturria: Geuk egina, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa oinarri hartuta. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza.

Hona hemen GESPE 2021-2024ren indarraldian helburu bakoitzaren esparruan garatutako jarduketa nagusietako batzuk:

1. helburua: Gizarte-ekonomian ekintzailtza-eredua zabaltzea eta indartzea

Hemen biltzen dira Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntzak aktibatuz eta kudeatuz ekintzailtza kolektiboa sustatzeko ekintzak; laguntza horien helburua da enpresak eratzten eta, laguntza tekniko bidez, sendotzen laguntzea, bai eta bazkide-oinarria zabaltzea ere.

Helburu honen pean, bestalde, kalitateko enplegu inklusiboa sortzeko asmoari erantzute aldera, Lanbideek laguntzak ematen ditu kalitateko enplegu inklusiboa sortzeko, baita desgaitasuna dutenen enplegarritasunarekin zerikusia daukaten programak eta zerbitzuak eskaintzen ere.

Nabarmendu beharra dugu 2022an aparteko jarduketa batzuk egin zirela, hasiera batean GESPEn jasotzen ez zirenak: Ukrainako gerrak kaltetutako enpresetarako laguntzak martxan jarri eta kudeatu ziren. Hain zuzen ere, urte hartan aparteko laguntza-ildoak aktibatu ziren, gure lurraldeko enpresa askok zeuzkaten zailtasun handiak arintzeko. 2022an, Ukrainako gerraren ondorioz galera ekonomikoak izan zituzten lan-sozietateetarako eta kooperatibetarako laguntzez gainera, martxan jarri ziren gizarte-ekintzailtza alorreko laguntzak eta energia-kontsumoko kooperatibak sustatzeko laguntzak. Gizarte-ekintzailtzari laguntzeko xedez, zuzkidura

ekonomikoak eman zitzaizkien bere garaian Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eratu ziren eta Ukrainako gerraren eragina pairatu zuten enpresei. Administrazioaren laguntza jasotzeko ezarritako baldintzek men egin zioten Eusko Legebiltzarrak berariaz esandakoari, bi modutara: edo egindako inbertsio berriak indartuz, edo Ukrainako gerrak eta haren ondorioek zuzenean eragindako kostu-gehikuntzaren ondoriozko galerak konpentsatuz. Bestetik, energia-kontsumoko komunitateak sustatze asmoz, lankidetzaren abiatu zen gizarte-ekonomiako enpresen entitate-elkartekin. Laguntzek helburu zuten, batetik, energia-komunitatearen eredu hedatzea, gizarte-ekonomiaren forma emanda, eta, bestetik, jada nortasun juridiko propioa zeukaten komunitateen muskulu finantzarioa indartzea.

2022an, 53 jarduketak jaso zituzten dirulaguntzak (44 ekintza lehengaien kostuak estaltzera bideratuta zeuden; 3 ekintza faktura kobraezinekin lotuta zeuden; 5 ekintza material-eskaerekin edo material berrerabilgarriekin lotuta zeuden, eta 2 ekintza langileen kostuen ingurukoak ziren). Aurrekontuaren % 100 egikaritu zen, hots, 5 milioi euro.

2. helburua: Gizarte-ekonomiaren inguruko prestakuntza sustatzea

Helburu honi erantzuten dioten dirulaguntzen deialdiak modua eman zuen gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko eta derrigorrezko hezkuntza-mailetan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta unibertsitateetan unitate didaktikoak garatzeko. Unitate didaktikoetan, ikasleei gizarte-ekonomiari buruz gehiago jakiten eta ikasten laguntzeko irakaskuntza-ekintzak eta -jarduerak biltzen dira, modu antolatuan.

Lanbide Heziketan, adibidez, aurrera egin da gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzan, eta, unibertsitateetan, bestalde, unitate didaktiko berriak ezartzeko esperientzia pilotuak egin dira; alabaina, egiaztatu egin dugu irakaskuntza arautuko prestakuntza-programetan sakondu behar dela.

3. helburua: Gizarte-ekonomiako enpresen/erakundeen finantzaketarako sarbidea ziurtatzea eta zabaltzea, eta ereduari kohesioa eta erakargarritasuna ematea, lankidetzaren bidez

Aipatzekoak dira elkartze-egiturak sendotzeko laguntzak eta enpresak elkarrekin lankidetzan aritzeko laguntzak, baita elkartasun-funtsen erabilerari buruzko azterlanak ere.

Gizarte-aurreikuspen osagarriaren eremuan, hainbat formula abiarazi dira, aurrera egiteko gizarte-ekonomian aritu ondoren gizarte-aurreikuspen osagarriak ez duten pertsonen erretiro-prestazioa osatzen laguntzeko orduan. 2023ko azkenengo hiruhilekoan, KONFEKOOPek akordio bat sinatu zuen Laboral Kutxa S. Kooperatiboarekin, kooperatiba bazkideek eta haien langileek aukera izan zezaten baldintza onetan sartzeko enpleguko Izarpension BGAEra.

4. helburua: Eredua erakargarriagoa egitea eta gehiago ikusaraztea

Gizarte-ekonomiaren ikusgaitasuna areagotzeko, aldizkako argitalpenak eta hedapen-jarduerak egin dira, hala nola jardunaldiak, mintegiak eta beste ekitaldi berezi batzuk. Halere, aldi horretan ez da erabat neurtu biztanleek (bereziki, gazteek) gizarte-ekonomiari buruz duten ezagutza.

Mugarri gisa, FESLAN aipatzekoa da, gizarte-ekonomiari bakarrik heltzen dion lehenengo enplegu-azoka (eta gizarte-ekonomiari buruzko biltzarra) baita eta helburu baitu gizarte-ekonomiaren balioen berri ematea eta gizarte-ekonomiako askotariko familien inpaktu positiboa ezagutzera ematea. Azoka 2023an egin zen, Donostia gizarte-ekonomiaren hiriburu izendatu zutenean (2023). Gero, 2024an, Merkalan – Enplegu eta Prestakuntzaren V. Azoka egin zen, Ficoban, non gizarte-ekonomiak bere toki espezifiko eta zigilu berezia izan baitzituen.

Halaber, EKOS – Gizarte Ekonomiaren Sormen Jaialdia aipa dezakegu, edo Mondragon City Challenge, ekintzailatza kooperatiboaren nazioarteko lehiaketa, zeinak helburu baitu gizarte-ekonomian ohikoak ez diren sektoreak/pertsonak erakartzea.

5. helburua: Politika publikoen gobernantza hobetzea eta lankidetzak publiko-pribatua sustatzea

Modu berezian nabarmendu dezakegu Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak parte hartu duela Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek bultzatutako planetan (Ekintzailatza Plana, Unibertsitateen Plana...), foro garrantzitsu batzuetan (adibidez, Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroan), Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian eta Euskal Gizarte Ekonomia Sarearen sustapenean.

Halaber, adierazi beharra dugu bilerak egin zituela Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailekin; alabaina, azkenean ez ziren formalizatu hasiera batean planteatutako batzorde tematikoak.

Puntu honetan, era berean, une gogoangarri gisa azpimarratu dezakegu akordioa sinatu zutela Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta KONFEKOOP – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak. Akordio horrek indarrean jarraitzen du.

6. helburua: Langileek enpresetan parte har dezaten sustatzea

Azpimarratzekoak dira hala langileek enpresetan parte hartzeko laguntzen kudeaketa, nola belaunaldi-erleboari bideratutako proiektuei laguntzeko ekintzak.

Planaren ardatz estrategikoak kontuan hartuta, ardatz bakoitzean jasotako ekintzen gauzatze-maila altua izan da, 10. ardatza kenduta, zeinak helburu baitu gizarte-ekonomiako enpresetan eta entitateetan genero-berdintasuna sustatzea, aurreikusitako bi ekintzetatik bakarra egin baita.

11. taula GESPE 2021-2024ren egikaritze-maila

	GESPE 2021-2024 Programat utako jarduketak	GESPE 2021- 2024 Egindak o jarduket ak	Egik aritz e- mail a %
1. ardatza. Gizarte-ekonomiako ekintzailatza bultzatzea, dauden enpresak indartzea, informatzaileen eta preskriptoreen sarea eta aholkularitza-zerbitzuak hobetzea	21	19	90,5
2. ardatza. Gizarte-ekonomiako produktuen eta zerbitzuen eskaria bultzatzea, erosketak publiko arduratsuen bidez	5	5	100,0
3. ardatza. Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea eta integratzea hezkuntza-etapa guztietan, tartean diren eragileen artean eta sektorean bertan	9	8	88,9
4. ardatza. Enpresa-ekimen, enpresa eta erakunde txiki berrietarako behar den finantza-euskarria ematea, sendotzea bideragarri eta jasagarri eginez*	6	6	100,0
5. ardatza. Ereduari kohesio eta erakargarritasun handiagoa ematea, haren gizarte-babesa hobetuz	3	3	100,0
6. ardatza. Gizarte-ekonomiako ereduaren ikusgarritasuna eta gizarte-harmena hobetzea, eredu hori hedatzea eta sendotzea errazteko bitarteko gisa, eta haren jardueraren hedapena ziurtatzea	4	4	100,0
7. ardatza. Gizarte-ekonomiari buruzko neurketa- eta ezagutza-sistema garatzea	3	3	100,0
8. ardatza. Gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea	8	8	100,0
9. ardatza. Gizarte-ekonomiaren esparru juridikoa aztertzea eta garatzea, haren hedapena mugatzen duten oztopoak ezabatuz	11	9	81,8
10. ardatza. Gizarte-ekonomiako enpresetan eta erakundeetan genero-berdintasuna sustatzea	2	1	50,0
11. ardatza. Gizarte-ekonomiako familien arteko aliantzak eta osagarritasunak bultzatzea, EGES bidez, topaleku gisa	3	3	100,0
12. ardatza. Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea	4	4	100,0

Iturria: Geuk egina, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa oinarri hartuta. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza. Ebaluazio-txostena (hainbat urte).

12. taula GESPE 2021-2024ra lotutako adierazle kuantitatibo nagusiak: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak finantzatutako jarduketak.

		2022	2023	2024	Guzti ra
1. ardatz a	Ekintzailatza kolektiboa sustatzeko ekintzak	4	5	6	15
	Lurralde Sustapen Planifikatuko Programan onetsitako planak	8	4	4	16
	Laguntza jaso duten preskriptoreak	7	7	3	17
	Enpresetan egindako bideragarritasun-ikerketak	4	9	3	16
	Gizarte-ekonomiako enpresetara sartutako langile bazkide berriak	289	253	140	682
	Abian jarritako gizarte-ekonomiako enpresa berriak	134	139	126	399
	Sustapen-ekintzak	4	5	6	15
	Sartutako bazkideak	1	0	34	35
	Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntzekin sendotutako enpresak	2	3	2	7
3. ardatz a	Gizarte-ekonomiari buruzko prestakuntza	14	25	12	51
	Ikastetxeetan egindako esperientzia pilotuak	0	1	0	1
5. ardatz a	Gizarte Aurreikuspeneko Plan Osagarriaren diseinua	1	0	0	1
6. ardatz a	Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldiari behingo argitalpenak	12	5	5	22
	Enpresei laguntzeko tresna teknikoak ezartzeko finantzatutako jarduketak	73	82	93	248
12. ardatz a	Enpresaren gizarte-erantzukizuna sustatzeko jarduketak	30	30	37	97

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak emandako informazioetik.


3.3. Aurrekontuaren egikaritze-maila

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoaren esparruan egikaritutako aurrekontuaren zenbateko osoa 344 milioi eurokoa izan da. Beraz, aurrekontuaren % 104,7 egikaritu da.

Ardatzetik ardatzera, egikaritze-maila aldatu egin da, nabarmentzekoak izanik 1. ardatzerako programatutako aurrekontuaren % 100etik gorako balioak (1. ardatza ekintzailatza sustatzeari eta dauden enpresak indartzeari buruzkoa da).

Bestetik, aipatzekoa da Ukrainako gerraren eta Errusiari ezarritako zehapenen ondorioz galera ekonomikoak izan zituzten enpresei emandako laguntza berezietarako partida ekonomikoa, hasiera batean ez baitzegoen aurreikusita. Partida hori 2022an aktibatu zen, 5 milioi euroko zenbatekoan.

16. grafikoa GESPE 2021-2024ren aurrekontuaren egikaritze-maila, ardatzen arabera.



Iturria: Geuk egina, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa oinarri hartuta. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza. 2024ko ebaluazioa.

3.4. Gizarte Ekonomiaren Sailarteko I. Plan Estrategikoa onetsi zenetik egin diren arau berri eta erregelamendu-garapen nagusiak

a) Estatua

Gizarte-ekonomia sustatze aldera laster onetsiko den lege integralak inflexio-puntua ekarriko dio sektoreari, eta eragin berezia izango du laneratze-enpreetan eta enplegu-zentro berezietan.

Lege-proiektuak aldatu nahi ditu Kooperatiben Legea (27/1999, uztailaren 16koa), Laneratze Enpresen Araubidea arautzen duen Legea (44/2007, abenduaren 13koa) eta Gizarte Ekonomiaren Legea (5/2011, martxoaren 19koa), gizarte-ekonomiaren arau-esparrua aldatzeko, gizartean, ekonomian eta teknologian izandako aldaketak direla-eta.

Lege horrek indartu egiten du laneratze-enpresen eta enplegu-zentro berezien eginkizuna, desgaitasuna duten pertsonen lan-inklusioan laguntzeko agente giltzarri gisa, eta, aldi berean,

eskakizun berriak txertatzen ditu egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuen gardentasunean, kontu-ematean eta profesionalizazioan.

Halaber, pizgarri fiskalak eta laguntza publikoak eskuratzeko modua hobetzen du, enplegu arrunterantz bermeekin abiatzeko trantsizioa sustatzen du, eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzu gisa aitortzen ditu gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak. Horrek guzti horrek aukera estrategiko aparta eskaintzen du, GESPE 2026-2029k bat egin dezan gizarte-inpaktura bideratutako lege-esparru zorrotz eta inklusiboago batekin.

b) EAE

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko I. Plan Estrategikoa 2021-2024 onetsi zenetik, lan arautzaile oparoa egin da.

Legegintzaren ikuspegitik, Euskadiko Kooperatiben Legea (11/2019) hiru aldiz aldatu dute:

1. 5/2021 Legea, urriaren 7koa, Euskadiko Kooperatiben Legea (11/2019, abenduaren 20koa) aldatzekoa.

Lege honek ekarri dituen aldaketa nagusiek harremana dute Estatuko araudiarekiko harmonizazioarekin eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko gizarte-egoera berriarekin.

Harmonizazioaren ikuspegitik:

- Uztailaren 14ko 20/2015 Legeari dagokionez (aseguru- eta berraseguru-erakundeen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzkoa da), aipatutako legeak kendu egin zuenez aukera aseguru-mutualitateek, kooperatiba-sozietateek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek prima aldakorrean edo beste asoziazio forma baten pean jarduteko, testu arautzailea aldatu da, adierazteko prima finkoan soilik jardun ahal izango dutela.
- Enpresa-sustapeneko kooperatibei kendu egin zaie aukera bazkideen eta haien onuradunen osasunaren inguruko arriskuak estaltzeko, eta, bestetik, aseguruen inguruko araudia aldatuz gero etor litezkeen indargabetzeak saiheste asmoz, igorpen orokorra egin zaio arau horri.

COVID-19aren epidemiak ekarritako gizarte-egoera berriaren ikuspegitik:

- Kooperatiben kide anitzeko organoen bileretan bitarteko telematikoen bidez parte hartzeko aukera erraztu da (kide anitzeko organoak dira batzar orokorra eta artezkaritza-kontseilua eta, estatutuek aurreikusten dituztenean, zaintza-batzordea, sozietate-kontseilua eta errekurso-batzordea).
- Urtebetez zabaldu da legeak hasiera batean estatutuak 11/2019 Legera egokitzeko emandako epea, bermatzeko bazkideen batzarrak edo batzar nagusiak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izatea.

2. 7/2024 Legea, abenduaren 19koa, 11/2019 Legea aldatzekoa.

2024ko urriaren 28ko tanta hotzaren larritasunak eta hark ekarritako hondamendiak agerian jarri zuten halabeharrezkoa zela erreminta bat edukitzea, modua emango zuena, demokratikoki adostu ondoren, hondamendi mota horien ondorioak arintzen lagunduko duen edozein jarduerara bideratzeko hezkuntzara, sustapen kooperatibora eta onura publikoko beste xede batzuetara derrigorrez zuzendu beharreko ekarpena. Horretarako, arau-aldaketak 6. apartatua gaineratzen dio 72. artikuluari, kooperatibek lan-inklusioko

duten eginkizuna indartzeko (desgaitasuna, gizarte-bazterketa eta abar).

3. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena, hainbat xedapenetan kooperatibak eta gizarte-ekonomia aipatzen dituena.

Enpleguaren Legeak berritasun nagusi hauek sartu ditu:

- Kooperatiben organoetan bazkideen kopurua orekatua izateko neurriak txertatzen ditu, baita genero-berdintasunerako neurriak ezartzen ere.
- Berdintasun-plan bat ezartzeko eta xede horretarako propio sortutako erregistroan inskribatzeko betebeharra ezartzen die 50 langile baino gehiagoko kooperatibei.
- Enplegu-politikekin eta gizarte-ekonomia sustatzeko politikekin lotzeko mekanismoak sartzen ditu.

Arauen ikuspegitik, arauzko testu hauek ere onetsi dira:

Orokorrak:

1. 84/2023 Dekretua, ekainaren 13koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua onesten duena.

Izenak adierazten duenez, 11/2019 Legek sortutako Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren funtzionamendua antolatzen du. Erregistroaren araubidea, funtzionamendua eta izapideak, erregistro-publizitatea eta efikazia antolatzen ditu.

Erregistroko espedienteak telematikoki izapidetzeko behar diren neurriak hartu dira, prozedura elektronikoa sinple eta arinagoak eta, hortaz, efikazak ezartzeko.

2. 227/2025 Dekretua, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onesten duena.

Euskadiko Kooperatiben Legearen (11/2019) hutsuneak osatzen ditu, berori modu praktikoa ezartzeko arau xeheak emanez.

Berritasun nagusien artean, hauek daude:

- Xehe erregulatzen du sozietateen araubidea: bazkideen sarrera eta baja, eszedentziarako baldintzak eta kooperatiba-jarduerako parte-hartzea.
- Arau argiak ezartzen ditu ekonomia kudeatzeko: ekarpenen itzultzea, borondatezko erreserbak, galeren egozpena eta administrazio-karguak betetzen dituzten pertsonen ordainsaria.
- Figura juridiko berriak txertatzen ditu, sektore berrietan kooperatibak eratu ahal izan daitezen, enpresen kooperatiba-eredu berriak sortzen lagunduz.
- Kooperatiben segurtasun juridikoa handitu nahi du, anbiguitasun erregulatuzaileak kenduz eta eskubideak eta betebeharrak argituz.
- Gobernantza kooperatiboari lagundu nahi dio, ordezkaritza orekatua (adibidez, gobernu-organotan) eta, seguruenik, bazkideen/langileen parte-hartze handiagoa sustatuz.

Lan- eta gizarte-arloko inklusioari buruz:

- 3. 162/2023 Dekretua, urriaren 31koa, zeinaren bidez laneratze-enpresen kalifikazioa arautzen baita eta enpresa horietan sartzeko prozedura eta haien erregistroa ezartzen baitira.**

Giltzarria da lan- eta gizarte-arloko inklusioari lotutako gizarte-ekonomiarako.

Kooperatiben ikuskaritzarekin eta zehapen-araubidearekin lotuta:

- 4. 12/2024 Dekretua, otsailaren 13koa, kooperatiben arloko ikuskaritzari eta zehapen-prozedurari buruzkoa.**

11/2019 Legea (5/2021 Legearen bidez aldatua) garatzen du, erregulatzeko nola ikuskatzen diren kooperatibak, nork zehatzen duen eta zer prozedurari jarraitu behar zaion.

4. GIZARTE-EKONOMIA SUSTATZEKO PROGRAMAK

Sustapen-programen analisian, hiru laguntza mota bereizi ditugu, bakoitzak bere azpiatala duela:

- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak ematen dituen laguntza espezifikoak
- Gizarte-ekonomiako enpresek jasotzen dituzten laguntza ez-espezifikoak
- Laguntza jeneralistak

4.1. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak sustatzen dituen laguntza-lerroak

GESPE 2021-2024ren indarraldian, laguntzei buruzko aginduak izan dira erreminta operatibo nagusia helburuak ekintza zehatz bihurtzeko.

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren urteko laguntza arruntek helburu hauek dauzkate:

- **Gizarte-ekonomian ekintzailtza sustatzea**

Laguntza-bloke honek xede du kooperatiba eta lan-sozietate berriak abian jartzea eta jada badaudenei hazkunde- eta egokitzapen-prozesuetan laguntzea. Barruan sartzen dira enpresa berriak sortzeko egitasmoak nahiz enpresa-eraldaketan ondoriozko proiektuak edo jabetza-erleboetarako proiektuak, errazagoa izan dadin gizarte-ekonomiako formulak hainbat sektore eta lurraldetan enpresa-aukera bideragarri gisa finkatzea.

Esparru horretan, hainbat laguntza mota daude:

- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak.
- Gizarte-ekonomiako enpresak eratu eta sustatzeko laguntzak.

- **Gizarte-ekonomiako enpresen bazkide-oinarria zabaltzea**

Gizarte-ekonomiako enpresetara bazkideak sartzeko laguntzak; zehazki, kolektibo hauentzat:

langabetuak, desgaitasuna dutenak, bazkide ez diren eta besteren kontura lan egin duten langileak eta nekazaritzako elikagaien kooperatibetan bazkide egiten diren pertsonak.

- **Gizarte-ekonomiako enpresei kudeaketa-erremintak ematea**

Beste jarduketa-eremu batek enpresa-kudeaketa hobetzea du xede. Laguntza hauek modua ematen diete kooperatibei, lan-sozietateei eta gizarte-ekonomiako beste entitate batzuei haien ezaugarri zehatzetara egokitutako kudeaketa-erreminta aurreratuak ezartzeko: antolaketaren diagnostikoak, plangintza estrategikoa, kalitateko sistemak, ekonomia- eta merkataritza-kudeaketako erremintak edo epe ertain eta luzera lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen lagunduko duten bestelako tresnak.

- **Gizarte-ekonomia solidarioko elkartze- eta ordezkartza-egiturak sendotzea**

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak laguntza-lerro bat dauka sektoreko elkartze- eta ordezkartza-egiturei laguntzeko. Laguntza hauen bidez, sendotzen laguntzen zaie gizarte-ekonomiako, lan autonomoko, enplegu-zentro berezietako eta ekonomia solidarioko antolakundeei, funtzionamendura, koordinaziora eta ordezkartzara lotutako gastuen zati bat finantzatzuz. Horrela, elkartutako entitateei zerbitzu emateko, jarrera bateratuak antolatzeke eta politika publikoetan eragiteko gaitasuna indartzen da.

- **Prestakuntza-jarduera espezifikoak sustatzea eta gizarte-ekonomia hedatzea**

Dirulaguntzen bloke espezifiko batek helburu du gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza espezializatua sustatzea eta ekonomia-eredu horren balioak eta praktikak hedatzea. Laguntzek prestakuntza-ekintzak, jardunaldiak, mintegiak, argitalpenak, azterlanak eta ikerketa aplikatuak antolatzen laguntzen dute, zertarako-eta gizarte-ekonomiari buruzko ezagutza baliagarria sortzeko, gizarte-ekonomiak garapen sozioekonomikoari egiten dion ekarpena ikusarazteko eta pertsona eta agente ekonomiko gehiagok gizarte-ekonomia enpresa-aukera erakargarritzat jo dezaten laguntzeko.

- **Gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzak sustatzea**

Lerro honen bidez, gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzak sustatzen da, bai haien artekoa, bai, hala badagokio, eremu honetakoak ez diren enpresekiko. Dirulaguntzak ematen zaizkie aliantza egonkorak ezarri, baliabideak partekatu, berrikuntza-estrategia bateratuak garatu, lehiakortasun-posizioa hobetu edo enpresa-lankidetzako prozesu aurreratuagoak jorratu nahi dituzten proiektuei, barne hartuta egitura partekatu berriak sortzeko edo, egokitzen denean, fusio-prozesuak burutzeko aukera.

- **Langileek enpresetan parte hartzea**

Laguntza hauen helburua da langileek enpresetan benetan parte har dezaten laguntzea, bai gizarte-ekonomiako formulen pean jarduten duten enpresetan, bai merkataritza-enpresetan. Hala, laguntza ematen da, besteak beste, enpresen kudeaketan eta organoetan langileen inplikazio-maila handituko duten metodoak eta erremintak diseinatu eta ezartzeko, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideen erreleboa erregulatuko duen sozietate-itun edo -kontratu bat egiteko edo gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresetan langileek parte hartzeko plan bat egin eta ezartzeko.

- **Enpresen gizarte-erantzukizuna**

Azkenik, enpresaren gizarte-erantzukizuna sustatzeko laguntzak aipatuko ditugu. Laguntza hauek bidea jartzen dute jasangarritasun-memoriak eta balantze sozialak finantzatzeko edo, bestela, enpresa-, erakunde- eta gizarte-inguruneetan enpresen gizarte-erantzukizunaren kultura hedatzen laguntzeko jarduerak finantzatzeko. Horrekin, enpresa-praktika arduratsu eta gardenagoak sustatu nahi dira, bat etorrita gizarte-ekonomiaren balioekin eta indarreko jasangarritasun-esparruekin.

13. taula Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntza-lerroak

Helburua	Mota	Norentzat	Aurrekontu a	Agindu erregulatzail ea
Ekitea	Enpresak sortzea / ekintzailatza kolektiboa sustatzea	Sozietate kooperatiboak eta lan-sozietateak	700.000 €	2025eko irailaren 24ko Agindua
	Eratzea eta sustatzea	Kooperatiba-sozietateak, lan- sozietateak, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan daukaten unibertsitateak eta elkartek	2.530.000 €	
Sartzea		Pertsona fisikoak (kooperatiba-sozietateak eta lan-sozietateak, nekazaritzako kooperatibak eta nekazaritza- abeltzaintza- eta basogintza- ustategien nahiz ustategi mistoen titularrak)	795.000 €	
Laguntza teknikoa		Kooperatiba-sozietateak, lan- sozietateak eta elkarteak	440.000 €	2025eko irailaren 10eko Agindua
Elkartze-egiturak sendotzea		Kooperatiben federazioak eta konfederazioak, lan- sozietateen taldeak, enplegu- zentro berezien federazioak, autonomoen antolakundeak eta ekonomia solidarioko federazioak eta taldeak	755.800 €	2025eko urriaren 14ko Agindua
Gizarte- ekonomiari buruzko prestakuntza, hedapena eta ikerketak	-	Unibertsitateak, gizarte- ekonomiako enpresen entitate-elkarteak eta entitateak eta kooperatibekin edo lan-sozietateekin lotuta dauden prestakuntza-zentroak	910.000 €	2025eko irailaren 17ko Agindua
Gizarte- ekonomiako lankidetzak	-	Unibertsitateak, gizarte- ekonomiako enpresen entitate-elkarteak eta entitateak eta kooperatibekin edo lan-sozietateekin lotuta dauden prestakuntza-zentroak	267.000 €	
Langileek EAEko enpresetan parte hartzea	-	Gizarte-ekonomiakoak izanda zein ez parte hartzeko ereduak ezartzen dituzten enpresak eta prozesu horiei laguntzen dieten entitate- elkarteak	290.000 €	2025eko ekainaren 23ko Agindua
EAEko enpresen gizarte- erantzukizuna	-	Egoitza soziala EAEn daukaten ETEak, unibertsitateak, enpresa-elkarteak eta enpresen gizarte- erantzukizunean edo kudeaketa aurreratuan espezializatutako entitateak		


Iturria: Geuk egina.

4.1.1 Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak enpresarteko lankidetzarako emandako laguntzen bilakaera eta egikaritzea

2021-2024ko aldian, Eusko Jaurlaritzaren laguntza-sistemak gizarte-ekonomiako 2.229 ekintzari lagundu die guztira, 22,3 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoarekin.

Sistema, funtsean, bideratu da ekintzailatza kooperatiboa sustatzera, bazkide berriak sartzerara, enpresa-kudeaketa hobetzera eta elkarte-sarea indartzera. Ekintzen % 75 baino gehiago hiru eremu horietan biltzen dira, eta dagozkien dirulaguntza-lerroen bidez finantzatu dira.

17. grafikoa Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren dirulaguntza jaso duten ekintzen bilakaera (2021-2024ko ekintzak), laguntza motaren arabera (2021-2024)



Iturria: Geuk egina, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa oinarri hartuta. Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza.

Aurrekontuaren egikaritze-mailari begiratuta, laguntza-sistemak ondo jardun du oro har: aurrekontuaren % 87,3 egikaritu da. Enpresarteko lankidetzarako eta elkartze-egituretarako ildoek aurrekontu-egikaritzearen % 93 gainditu dute, eta, ekiteko eta prestatzeko lerroek % 89tik gorako tasak lortu dituztenez, apustu estrategiko efikaz gisa finkatu dira.

4.2. Gizarte-ekonomiako laguntza-programa ez-espezifiko nagusiak, gizarte-ekonomiako enpresak onuradun dituztenak

Atal honetan, labur-labur azaltzen dira Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek eta Eusko Jaurlaritzara atxikitako entitateek gizarte-ekonomiarako kudeatzen dituzten laguntza-programa nagusiak, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak zuzenean kudeatzen ez dituenak. Kontuan hartu behar da Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Batzordea sortu zela EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko I. Plan Estrategikoaren esparruan, politika horiek beste arlo giltzarri batzuekin bateratzeko (adibidez, enplegua, berrikuntza, industria eta hezkuntza) eta, horrela, zeharkakotasun instituzionala indartzeko.

Sail hauek egin dute identifikatutako dirulaguntza-programen deialdia:

- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikia
- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila
- Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

- Industrian eta enpresa-garapenean eskuduna den saila, SPRI taldearen bidez
- Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza, Mugikortasun Jasangarriaren Sailarena

Hona hemen **Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak (Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago)** gizarte-ekonomiarako emandako laguntzak:

- **Enplegu-zentro bereziei lanpostuei eusten laguntzeko emandako laguntzak**

Laguntza hauen helburua da desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu babestua sortzen eta mantentzen laguntzea, zati batean finantzatuz soldata-kostuak, jarduera profesionalari laguntzeko unitateak eta, hala badagokio, lanpostuen egokitzapenak. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enplegu-zentro bereziei ematen zaizkie, zeinetatik asko konfiguratuta baitaude gizarte-ekonomiako entitate gisa edo irabazi-asmorik gabeko enpresa-jardueradun entitate gisa.

- **Laneratze-enpresetarako eta laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko entitateetarako laguntzak**

Laguntza hauen helburua da gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzen laguntzea, laneratze-enpresetan laneratzeko kontratuak eginez eta laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko ibilbide pertsonalizatuak eginez. Laneratze-enpresei nahiz bidelaguntza-ekintzak sustatzen eta garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateei zuzenduta daude, soldata-kostuak eta laneratzen ari diren pertsonen tutoretza-kostuak ordaintzen laguntzeko.

- **Enplegu babestuaren eta gizarteratzeko enpleguaren arloan trebatzeko eta bidelagun aritzeko laguntza osagarriak**

Dirulaguntza hauek helburu dute enplegu-zentro berezietako eta laneratze-enpresetako langileen kualifikazioa eta gaitasunak hobetzea, baita laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko gailuak indartzea ere. Gizarte-ekonomiaren barruan baliabide horiek kudeatzen dituzten entitateei zuzenduta daude, xedea izanik enplegu arruntera iristeko aukerak areagotzea eta lan-inklusioko proiektuak jasangarriagoak izatea.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak gizarte-ekonomiari laguntzeko jarduketak kudeatzen ditu, zeinak, batez ere, hirugarren sektore sozialerako dirulaguntzen bidez gauzatzen baitira. Dirulaguntza horien hartzaileak dira gizarte-ekonomiako irabazi-asmorik gabeko entitateak eta gizarte-arloko esku-hartzean, boluntarioran eta ezagutzaren kudeaketan aritzen diren beste antolakunde batzuk.

- **Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gizarte-arloan esku hartzeko jarduketetarako laguntzak**

EAEko kolektiboak eta komunitateak arreta, babesa eta bidelaguntza ematen dizkieten **hirugarren sektore sozialeko** entitateek gizarte-arloko esku-hartzean garatzen dituzten zuzeneko jarduketak finantzatzea da dirulaguntza hauen helburua, bat etorrita deialdian finkatutako baldintzekin eta lehentasunekin.

- **Gizarte-arloko esku-hartzean boluntarioran eta bazkideen parte-hartzea indartzeko laguntzak**

Lerro honek helburu du esku hartzeko proiektuetan boluntarioen ekintza eta gizarterearen inplikazioa sustatzea, **hirugarren sektore sozialeko** entitateetara lotutako jarduerari (antolaketa, dinamizazioa eta parte-hartzea sustatzekoei) lagunduz.

- **Gizarte-arloko esku-hartzeari buruzko jakintza kudeatzeko jarduketetarako laguntzak**

Hirugarren sektore sozialeko entitateen esku-hartzeen kalitatea eta entitate horiek esku hartzeko duten gaitasuna hobetuko dituzten ekintzetarako dirulaguntzak dira, hala nola prestakuntza, ikerketa, argitalpenak, dokumentazioa eta jardunaldiak/ikastaroak/mintegiak antolatzen laguntzekoak.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak laguntza hauek ematen ditu gizarte-ekonomiarako:

- **EAEko nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibismoa sustatzeko laguntzak (KOOPERATU programa)**

Laguntza hauen helburua da nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibismoa sustatzea, ulertuta erreminta giltzarria dela landa-ingurunea ardazteko, sektorearen lehiakortasuna hobetzeko eta lurraldean enplegu egonkorra sortzeko. Programak askotariko proiektuak finantzatzen ditu; besteak beste, nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresak integratu eta dimentsionatzekoak, kooperatiben egiturak modernizatzeak eta entitateen kudeaketa, berrikuntza eta lankidetzak hobetzekoak. Laguntzak, gehienbat, ematen zaizkie nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibei, nekazaritzako eraldatze-sozietateei eta nekazaritzako elikagaien katera lotutako beste enpresa-entitate batzuei, bide emateko landa-eremuan gizarte-ekonomiaren sarea indartuko duten lankidetzak-prozesuei eta aliantzei.

14. taula Beste agente batzuen gizarte-ekonomiarekin lotuta dauden laguntza-lerroen laburpena.

Deialdia egin duen organismoa	Laguntza	Norentzat
Lanbide	Enplegu-zentro berezietarako laguntzak (lanpostuei eustea)	Desgaitasuna duten pertsonak enplegatzen dituzten enplegu-zentro bereziak
	Laneratzeko enpresetarako laguntzak (sortzea eta eustea)	Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak kontratatzen dituzten laneratze-enpresak eta entitate sustatzaileak
	Enplegu babestuaren eta gizarteratzeko enpleguaren arloan trebatzeko eta bidelagun aritzeko laguntza osagarriak	Gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko prestakuntza- eta bidelaguntza-ekintzak egiten dituzten enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila	Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gizarte-arloan esku hartzeko jarduketetarako laguntzak	Hirugarren sektorea
	Gizarte-arloko esku-hartzean boluntarioria eta bazkideen parte-hartzea indartzeko laguntzak	
	Gizarte-arloko esku-hartzeari buruzko jakintza kudeatzeko jarduketetarako laguntzak	
Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila Hezkuntza Saila	KOOPERATU programa – EAEko nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibismoa sustatzea	Nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak eta nekazaritzako elikagaien katera lotutako beste enpresa-entitate batzuk
	Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titularrak diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak	Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titularrak diren irakaskuntza-kooperatibak

Iturria: Geuk egina.

Laguntzen eta finantzaketa-lerroen programa jeneralista nagusiak

Industrian eta enpresa-garapenean eskuduna den sailak gizarte-ekonomiari laguntzeko jarduketak egiten ditu SPRI taldearen bidez; batik bat, enpresei laguntzeko finantzaketa-tresnak eta programa orokorrak prestatzen ditu, kooperatibak eta gizarte-ekonomiako beste entitate batzuk izanik ETE onuradunak:

- **BASQUE KONFEKOOP FCR-PyME funtsa**

Arrisku-kapitaleko funts hau elkarrekin sustatzen dute Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (KONFEKOOP), eta SPRI taldearen esparruan kudeatzen da. EAEko kooperatibei (batez ere, industrialei) finantzaketa- eta inbertsio-aukera berriak eskaintzea du helburu, garatzeko, hazteko, eraldatzeko eta belaunaldi-erleleboa bultzatzeko proiektuei lagunduz. Funtsa EAerako estrategikoak diren sektoreetako kooperatiba industrialei zuzentzen zaie lehentasunez, eta kooperatiba-sareari zuzendutako tresna espezifiko bat da, industria-politikari dagokiona.

- **LANPAR funtsa**

LANPAR funtsa arrisku-kapitaleko funts publiko-pribatu bat da. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak (ASLE) sortu zuten, 2014an, langileei haien enpresen kapitalean parte hartzen laguntzeko xedez. Helburu giltzarria du langileen akzio-partaidetza eta enpresekiko konpromisoa sustatzea, tokiko ekonomia, enpresen jasangarritasuna eta enplegu egonkorren sorkuntza indartzeko.

- **Inbertsioari, berrikuntzari eta enpresa-lehiakortasunari laguntzeko programa horizontalak**

Funts espezifiko horretaz gainera, **SPRI taldeak** programa-katalogo zabal bat kudeatzen du industriaren eta zerbitzu aurreratuen arloko ETEei laguntzeko (inbertsio produktiboa, berrikuntza, digitalizazioa, nazioartekotzea, ingurumen-jasangarritasuna eta abar), zeinak Industriari Laguntzeko 2025eko Planean jasotzen baitira. Programa horietan, kooperatibek eta lan-sozietateek baldintza beretan har dezakete parte, nahiz eta beste forma juridiko bat izan, eta, beraz, politika industrialeko lerro orokor horien bidez laguntzen zaio gizarte-ekonomia industrialeko inbertsioen zati handi bati.

- **KONFEKOOP SEED CAPITAL BIZKAIA FCR-PyME funtsa**

ETeen alorreko arrisku-kapitaleko funts bat da, eta Bizkaiko Seed Capital sozietateak kudeatzen du. 2023ko urrian eratu zen, eta, enpresetan inbertituz (bereziki, Bizkaiko lurralde historikoko kooperatiba berritzaileetan), partaideentzako balioa sortzea du helburu. Bizkaiko Foru Aldundiak eta KONFEKOOP – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak emandako kapital esanguratsu batekin sortu zen, tokiko kooperatibei hedatzen eta hazten laguntze asmoz. Hainbat tresnaren bidez jarduten du, hala nola partaidetzako maileguen bidez, finantza-baldintza onak eskainiz eta abal pertsonalik eskatu gabe. Hainbat urtez irautea aurreikusi da (normalean, hamar urte arte izaten da), eta luzatzeko aukera dago.

Amaitzeko, **Mugikortasun Jasangarriaren Sailak** errepide bidezko garraiorako kudeatzen dituen laguntza-jarduketak jaso ditugu, gizarte-ekonomiako enpresek (adibidez, garraioko kooperatibek) ere jaso ahal dituztelako, deialdi bakoitzeko betekizunak betetzen dituzten gainerako operadoreen baldintza beretan.

- **Errepide bidezko garraioan teknologia berriak ezartzeko eta segurtasuna hobetzeko laguntzak**

Dirulaguntza hauen helburua da salgaien eta bidaiarien errepide bidezko garraio publikoan teknologia modernizatzeko eta segurtasuna indartzeko inbertsioak finantzatzea; hala, sektoreko kooperatibek eta gizarte-ekonomiako beste entitate batzuek eska ditzakete, deialdiko baldintzak betetzen badituzte.

- **Garraioaren sektorean ingurumenaren kalitatea hobetzeko eta ingurumena kudeatzeko sistemetarako laguntzak**

Lerro honek helburu du errepide bidezko garraioaren arloko enpresetan ingurumenaren kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzen eta ziurtatzen laguntzea (ISO, EMAS eta beste batzuk), lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko; garraioko kooperatibek laguntza hauek eska ditzakete, sektoreko enpresa hautagarriak diren heinean.

15. taula Laguntzen eta finantzaketa-lerroen programa jeneralista nagusiak

Deialdia egin duen organismoa	Laguntza/finantzaketa-lerroa	Norentzat
Industrian eta enpresa-garapenean eskuduna den saila/SPRI taldea	BASQUE KONFEKOOP FCR-PyME funtsa	EAEko kooperatibak (batez ere, industrialak), garatzeko, hazteko, eraldatzeko eta belaunaldi-erleleboa bultzatzeko proiektuak garatzen dituztenak.
	LANPAR funtsa	Lehentasunez, lan-sozietateak edo lan-sozietate izateko bidean daudenak.
	Inbertsioari, berrikuntzari eta digitalizazioari laguntzeko programa horizontalak	Industriaren eta zerbitzu aurreratuen arloko ETEak; haien artean, programa bakoitzaren betekizunak betetzen dituzten kooperatibak eta lan-sozietateak.
Mugikortasun Jasangarriaren Saila	Errepide bidezko garraioan teknologia berriak ezartzeko eta segurtasuna hobetzeko laguntzak	Garraioko kooperatibek eska ditzakete (baita gizarte-ekonomiako beste entitate batzuek ere).
	Garraioaren sektorean ingurumenaren kalitatea hobetzeko eta ingurumena kudeatzeko sistemetarako laguntzak	
SEED CAPITAL BIZKAIA	KONFEKOOP – SEED CAPITAL BIZKAIA FCR-PyME funtsa	Bereziki, Bizkaiko kooperatiba berritzaileei zuzenduta dago.

Iturria: Geuk egina.

5. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN DIAGNOSTIKOA

5.1. AMIA diagnostikoa

AMIA analisia funtsezko erreminta bat da diagnostiko estrategikoa egiteko, modua ematen baitu modu egituratuan identifikatzeko EAEko gizarte-ekonomiaren ekosistema osatzen duten eta haren garapena baldintzatu dezaketen barne-elementuak (indarguneak eta ahulguneak) eta kanpo-elementuak (aukerak eta mehatxuak).

Analisia egiteko, lehen mailako iturriak (eremuko agente giltzarriei egindako elkarrizketak), estatistika-analisi ofizialak eta dokumentu estrategiko eguneratuak erabili ditugu. AMIA metodologiak bidea jartzen du eremuko erronkei eta ahalmenei buruzko ikuspegi partekatu bat taxutzeko, protagonisten ezagutza teknikoa nahiz esperientziala txertatuz.

Indarguneak eta aukerak

- EAE nazioarteko erreferentea da elkarlaneko kooperatibismoan, EAEko ereduaren ibilbide historikoari, kalitateko enplegua sortzeko daukan gaitasunari eta mundu-mailan ezagunak diren enpresa-esperientzietan (adibidez, Mondragon Taldea) izandako lidergoari esker.
- EAE, halaber, Estatuko gizarte-ekonomiaren polo nagusietako bat da, batez beste Estatukoak baino tamaina handiagoko entitateak daukalako eta entitateok askoz ere pisu handiagoa daukatelako enpleguan, antolaketa-eredu sendo eta profesionalizatu baten erakusgarri. Enpleguan daukan lidergoa erraz ikusten da, kontuan hartzen badugu Estatuko enplegu kooperatiboaren % 18 baino gehiago biltzen duela.
- Politika- eta arau-inguruneak mesede egiten die hala gizarte-ekonomiaren sustapenari, nola ekintzailatza kolektiboari, esparru instituzional sendo eta konprometitua daukalako, zeinean egitasmo aitzindariak bultzatzen baitira, hala nola ekintzailatza-kooperatiben erregulazioa eta EKGK, KONFEKOOP edo Elkarlanen laguntza aktiboa.
- Eusko Jaurlaritzaren manu bati erantzuteko egin zen GESPE 2021-2024, eta erreminta giltzarria izan da EAEn gizarte-ekonomiako politika publikoak egituratu eta koordinatzeko.
- Gizarte Ekonomiaren Sailarteko I. Plan Estrategikoa onetsi zenetik arau-esparruari egin zaizkion hobekuntzak: arau-berritasun eta erregelamendu-garapen garrantzitsuek asko lagundu dute ereduaren hobetzen eta egokitzen.
- EAEko gizarte-ekonomiak egitura irmoa dauka, baina hori ez da oztopo izan entitateek askotariko forma juridikoak eta helburuak hartzeko; aitzitik, aniztasun hori gorabidean da.
- Inklusioaren eremuan lan egiten duten gizarte-ekonomiako entitateak beharrezko baliabidea dira gizarteak parez pare dituen erronka handiei (erronka demografikoei, ekonomikoei...) erantzuteko.
- Nabarmentzekoak dira erresilientzia-gaitasuna eta lurralde-errotzea, bai eta erantzukidetasuna, langileen konpromisoa eta jarduerak tokiko inguruneetan edukitzeko joera sustatzen dituzten enpresa-ereduak ere.
- EAEko gizarte-ekonomiak ekarpen handia egiten dio enpleguari, EAEko lan-merkatuaren % 10 hartzen baitu. Laneratze-enpresei, enplegu-zentro bereziei, fundazioei eta elkartei esker, enplegu inklusiboa eta lurralde-kohesioa hazten ari dira.
- Gizarte-ekonomiak, gainera, BEGd-aren % 5 sortzen du, eta, beraz, elementu giltzarria da EAEko sare ekonomikoan.

- Gizarte-ekonomia ekoizpen-sektore guztietan dago, eta, Europan ez bezala, industriaren presentzia oso handia da; horrek argi erakusten du egokitzeko gaitasuna daukala, aniztasun sektorialari eusteko gai dela eta EAEko ekonomiaren garapenari ekarpen handia egiten diola.
- Bilakaerari begiratuta, enplegua asko hazi da gizarte-ekonomiaren multzoan; batez ere, onura publikoko elkarrekin eta laneratze-enpreetan. Forma klasikoetan, BEGd-ak behera egin du 2018-2022ko aldian (-% 1,9), eta, beraz, agerikoa da produktibitatea hobetzeko erronkari heldu beharko zaiola. Aldi berean, ordea, enpleguan izandako gehikuntzaren gainetik hazi da BEGd-a gizarte-ekonomiako beste familietan (% 33, % 17,7ren aurrean).
- Gizarte-ekonomia oro har hartuta, kooperatibak dira buru enpleguan, fakturazioan eta aberastasunean, baina fundazioek, elkarrekin, laneratze-enpresek eta enplegu-zentro bereziek oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute behar gehien dauzkaten eta inklusioan dauden kolektiboan arretan.
- Lurraldeka, Gipuzkoak eremuko enpleguaren erdia baino gehiago biltzen du, kooperatibismo industrialak sustatuta; Bizkaiak eta Arabak, berriz, zerbitzuen sektorearen pisua indartzen dute.
- Agenteen ekosistema plural eta askotarikoa, egituratua eta instituzionalizazio-maila altuduna. Ordezkaritza-antolakunde sendoak dauzka.
- Lurralde-sare kooperatiboak azpiegitura giltzarriak dira ekintzaitzarako eta gorabidean den ekintzaitza kolektiboari laguntzen dion ekosistemarako, hainbat egitasmo sendo baitaude, hala nola Mondragon Team Academy (MTA), Gazte Enpresa (Laboral Kutxa), Elkarlan/Hazikoop (KONFEKOOP), ASLE, Mondragon Unibertsitatearen Ekintzaitza Zentroa eta proiektu berri batzuk (adibidez, ASETT *huba*), zeinek indartzen baitituzte ereduaren ikusgaitasuna, berrikuntza eta nazioartekotzea.
- Hiru unibertsitatek (EHU, Deustu eta MU) institutu kooperatiboak dauzkate, baita unibertsitate kooperatibo bat ere, esperientzia berezi eta bakana hori.
- Gizarte-ekonomiaren sustapenari eta garapenari laguntzeko EAEko sistemak ondo funtzionatu du, eta sendoa eta egituratua dela erakutsi.
- Lankidetzak estrategikoa eta elkarlaneko kultura sendoa daude, talde handietan (Mondragon, ULMA, Orona eta abar) nahiz kooperatiba txikietan, sinergiak sortzen baitituzte talentua erakartzeko, ezagutza partekatzeko eta eremuaren nortasuna indartzeko.
- Gizarte-ekonomiaren ekosisteman egitasmo eraldatzaileak daude. Elkarlan Hazikoop bihurtu da, irismen handiagoko egitasmoekin; haien artean, adibidez, ekintzaitza balio kooperatiboekin hazteko inkubagailua/azeleragailua dago, helburudun ideiak kooperatiba bideragarri eta jasagarri bilakatzeari begirakoa.
- Apustutzat jotzen diren proiektu batzuek (esaterako, ASETTek) harago joan nahi dute, eta sendotzera, profesionalizatzen eta gizartearen eragitera bideratutako entitate kopiagarri eta eskalagarriak bilatzen dituzte gizarte-ekonomian.
- Enpresarteko lankidetzak gero eta garrantzi handiagoa dauka, nahiz eta, gehienetan, unean uneko lankidetzak izan.
- Kooperatiben eta lan-sozietateen berrikuntza-ratioa handiagoa da, EAEko batezbestekoa baino; bereziki, industria-sektorean. Azkenengo urteetako bilakaera, gainera, positiboa izan da.
- Gizarte-ekonomiaren eremua EAEko berrikuntza-dinamikara sartu da. Dagoeneko badira adibide batzuk, hala nola ORBIK egitasmoa (zibersegurtasuna, Mondragon Taldea), erreferentzia transformazio digitalean eta antolaketakoan, eta, laster, INNKIA (adimen artifiziala).

- Emakumeen parte-hartzea oso esanguratsua da, eta aurrerapenak egin dira genero-arloan: soldata-arrakala txikiagoa da, EAEko lan-merkatu osorako zenbatetsitakoa baino. Enpresek gero eta berdintasun-plan gehiago egiten dituzte (bereziki, soldatapeko 50 enplegatu baino gehiagokoek), araudiak plan mota horiek txertatzen joatera behartzen dituelako.
- Gizarte-ekonomiaren ikusgaitasuna areagotu egin da, eredia bera eta ereduaren balioak eta konpromisoak ezagutzera ematen laguntzen duten ekitaldiak, jardunaldiak eta egitasmoak (MCC, EKOS, ASETT...) sendotu direnetik eta, halaber, nazioarteko topaketetan parte hartzen denetik.
- Gazteak gero eta sentsibilizatuago daude gizarte-ekonomiaren balioekin. "*Gazteria euskal kooperatibismoaren aurrean*" jardunaldiko ondorioetan egiaztatu zenez (Kooperatiben Kontseilua eta KONFEKOOP), belaunaldi berriei gehien axola zaizkien ezaugarriak bat datoz kooperatibismoaren balioekin.
- 2024an, KONFEKOOP Lanbideren Administrazio Kontseilura sartu zen, eta horrek modua ekarri zuen kooperatibek parte hartzeko EAEko lanarekin, enplegurako prestakuntzarekin eta laneratzearekin zerikusia daukaten politiken zehaztapenean eta onespenean; horri esker, erabakiguneetan ikuspegi inklusibo eta anitzagoa dago.

Ahulguneak eta mehatxuak

- Nazioartean, ziurgabetasuna gorantz doa: gatazka belikoek, ezegonkortasun geopolitikoak eta politika protekzionistek (muga-zergak altzairuari, aluminioari, industria-sektore giltzarriari) zaildu egiten dute gizarte-ekonomiako enpresa-sektorean plangintzak egitea eta kanpo-lehiakortasuna garatzea.
- Entitate askotan, belaunaldi-erleboia falta da, eta gazteak gizarte-ekonomiaren eredura erakartzeko ahalmen txikia dago.
- Talentuaren kudeaketak (talentua erakartzekoak nahiz atxikitzeak) gero eta kezka handiagoa pizten du gizarte-ekonomian, EAEko gainerako enpresetan bezalatsu.
- Langileak prestatzeko eta birkualifikatzeko premia handia dago, teknologian, ekologian eta demografian izandako aldaketek gizarte-ekonomiako entitateen ekoizpen-ereduari eta jasangarritasunari eragiten baitiete.
- Hezkuntza-sisteman, ekintzailatza kolektiboari buruzko prestakuntza espezifiko gutxi ematen da, bereziki, unibertsitatean eta enplegu-ibilbideetan (Lanbide, preskriptoreak, aholkularitza-enpresak), eta horrek zaildu egiten du egitasmo berriak sortzea.
- Gizarte-ekonomiako proiektuetarako orientazio goiztiarra hobetu behar da: ideia bideragarrien bilaketa, ikaskuntza-komunitatea eta bidelaguntza egokitua.
- Ekintzailatza sustatzen duten eta ekiten laguntzen duten tokietan, gizarte-ekonomiaren ereduak presentzia txikia dauka, beste formula juridiko batzuen aldean.
- Ekintzailatza kolektiboari laguntzeko ekosistema zatituta dago, eta proiektu berriei arreta emateko gabeziak daude; halaber, aholkularitzan eta orientazio goiztiarrean espezializatutako figurak falta dira.
- Entitate berriak sortzeko joera beherantz doa.
- Gazteen ekintzailatza-maila mugatua da, hainbat oztopo direla-eta; izan ere, ezagutza espezifikorik, aurretiko eskarmenturik edo gizarte-ekonomiaren arloko erreferenterik ez edukitzeak murriztu egiten die egitasmo kooperatibo edo sozial berriak sortzeko ahalmena.
- Soldatapeko enplegua hazi egin da, eta gero eta bazkide gutxiago sartzen dira gizarte-ekonomiako enpresetara; beraz, bazkide-masa ez da hazten.

- Finantzaketa publikoarekiko egiturazko mendekotasun handia dago; bereziki, berriki sortutako entitate txikietan eta jasangarritasun-ahalmenik eta laguntza jarraiturik ez daukaten eremu sozialetan (zaintzak, inklusioa).
- Gizarte-ekonomia gero eta tertziarioagoa da.
- Gero eta zailtasun handiagoak hautematen dira finantzaketan, kostuen igoeran eta inflazio-tentsioan, industria-sektorean batez ere.
- Gizartean, gizarte-ekonomiaren inguruko kontzeptuak nahasten dira, eta ereduari ez zaio aitorzarik egiten; horrek galarazi egiten du publiko berriak kontzeptuok bereganatzea, eta gizarte-ekonomiaren legitimitatea ahultzen da.
- Dualtasun-arriskua dago entitate handi eta sendoen eta egitura hauskorra duten egitasmo txikien artean.
- Eremuko antolakunde askotan, murrizta da inpaktua ebaluatu eta neurtzeko kultura.
- Erabakiguneetan, genero-arrakalak bere horretan dirau, baita sektore feminizatueta ere.
- Gobernantzan, barne-kulturan eta lidergo-ereduetan, genero-berdintasuna ez da nahikoa zeharkakoa.
- Lurralde-ezarpena eta espezializazio sektoriala aldatu egiten dira lurraldearen arabera. Gipuzkoak eta Debagoienak kooperatiba industrial handiak biltzen dituzte; Bizkaia, berriz, hiriko, kulturako, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako egitasmoengatik nabarmentzen da. Arabak presentzia apalagoa dauka, baina hazten ari da, indar handiagoarekin nekazaritza-sektorean eta laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko eremuan.
- 2018arekin alderatuta, murriztu egin da esportazioek guztizko fakturazioan duten pisua (% 35,8 eta % 34,8 2018an eta 2022an, hurrenez hurren). Halere, kanpo-merkatuen pisua hazi egin da esportatzaileen artean.
- Oraindik orain, gizarte-ekonomiaren erronka nagusia da eraketa-printzipioak bazter utzi gabe efizientzia ekonomikoa hobetzea, berrikuntza sustatuz eta gobernantzaren barruko balaztak gaindituz egin behar baita.
- Erakundearen artean, gizarte-ekonomia sustatzeko politika publikoak ez dira nahikoa koordinatzen, eta, ondorioz, elkarri gainjartzen zaizkio, ez dira efizienteak, edo jarraitutasuna falta zaie.
- Enpresen artean lankidetzan aritzeko egitasmoak ez dira nahikoak: gero eta garrantzi handiagoa daukate, baina unean uneko lankidetzak gailentzen zaizkie lankidetzaren egonkor edo estrategikoagoi.

5.2. Hipotesi diagnostikoa

- Badira zenbait hamarkada gizarte-ekonomia EAEn dagoela, garrantzitsua dela eta, beraz, herrialdearen nortasun ekonomiko eta soziala osatzen duten elementuetako bat dela. Gizarte-ekonomiaren eremuan entitateak sortu eta mantentzeko aukerak jarrera heldu, kualifikatu eta arrazoituak dauzka atzean. Gizarte-ekonomiaren eremua osatzen duten entitate ugariak oso heterogeneoak dira (kooperatibak, laneratze-enpresak, fundazioak, elkarteak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, arrantzaleen kofradiak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak), eta, askotariko helburuak eta harremanak dauzkaten, proiektu batzuek gehiago begiratzen diote enpresari, eta beste batzuek gizarteari. Bada, entitateen

izaeran eta helburuan dagoen aniztasun horrek finkatzen ditu plan estrategiko honen formulazioa eta edukia.

- Gizarte-ekonomiaren printzipioak baliatzeko modu desberdinek pisu handiagoa daukate autonomia-erkidegoan, Estatuan baino. Irabazi-asmodun entitate produktiboetan (hala nola kooperatibetan eta lan-sozietateetan) nahiz ezaugarri nagusia irabazi-asmorik ez izatea duten entitateetan, gizarte-ekonomiak EAEko errealitate ekonomiko eta sozialean daukan pisu erlatiboa handiagoa da, beste lurralde batzuetan baino. EAEko gizarte-ekonomiaren handitasuna agerikoa da nazioartean ere: industriaren sektorean eta industriara lotutako zerbitzuen sektorean, nabarmenak dira EAEko entitateen multzo esanguratsu bat eta talde kooperatibo lider bat.
- Gizarte-ekonomian aritzeko askotariko moduei lotutako 93.608 pertsonak (EAEko enpleguaren % 10) multzo ahaltsu bat osatzen dute, euskal gizarteari nortasuna ematen dion multzo bat. Indarra, halere, ez datorkio biztanleria-dimentsiotik, nahiz eta hori ere eduki: indartsua da, gai delako oraingo erronkei eta datozen urteetako erronkei pertsonak erdigunean jarrita aurre egingo dieten irtenbide kolektiboak taxutzeko.
- EAEko gizarte-ekonomiaren eremua sasoi onean igaro zen XX. mendetik XXI. mendera, erakutsiz berezkoak dituela indarra eta aldaketa handietara egokitzeko ahalmena. EAEko kooperatibek, batez beste, tamaina handiagoa daukate beste lurralde batzuetakoek baino, eta hazten ari dira, kopuruan nahiz pisu espezifikoan. Irabazi-asmorik gabeko entitateek dinamika ona dute, eta errealitate sozialeko zenbait alderdi estaltzen dituzte, zeinek eskatzen baitituzte prekarietate-egoeretara, zaurgarritasun-arriskura edo elkarri laguntzeko borondatera egokitutako irtenbide berritzaileak.
- Kooperatiba bat edo lan-sozietate bat eratzea erabaki duten ekintzailatza-egitasmoek gero eta arreta handiagoa jartzen dute zerbitzuetan, industriako kooperatiben pisu esanguratsuaren kalterako. Proiektuek, halaber, pertsona-dimentsio txikiagoa dute, eta pertsonak kooperatiben mugimendura sartzeko moduak aldaketak ekarri ditu: errealitate berrira egokitzeko neurriekin erantzun behar zaie aldaketa horiei.
- Gazteek gizarte-ekonomiaren inguruan duten pertzepzioa. EKGK eta KONFEKOOP entitateek antolatutako "Gazteria euskal kooperatibismoaren aurrean" jardunaldian egiaztatu zenez, *soft* baldintzez gainera (malgutasuna, bizitzaren eta lanaren arteko oreka eta abar), belaunaldi berriei gehien axola zaizkien ezaugarriak bat datoz kooperatibismoaren balioekin: kudeaketan eta erabakiguneetan parte hartzea, errespetua eta elkartasuna sustatzea, emaitzen gainetik pertsonak jartzea eta enpresa-proiektuak gizartean inpaktu positiboa edukitzea.
- Gizarte-ekonomiaren eremu honetan, era berean, agerian jarri da beharrezkoa dela antolakundeek elkarri laguntzeko harremanak sendotzea, entitateen arteko lankidetzara eraginkorra sustatzea, gizarte-ekonomiaren eremutik berritzeko eta berrikuntzari elementu espezifikoak eransteko ahalmena areagotzea eta finantzaketa-laguntzari zein teknologiaren egokitzapenari laguntzeko mekanismoak finkatzea.
- Mugimendu kooperatiboaren eta gizarte-ekonomia orokorraren eragin-maila handitzen ari diren egitasmoek modernizazio eta gizarte-eragin handiagoko aldaketa bat bultzatuko dute. ASETT *huba* egitasmo publiko-pribatu bat da, eta, bertan, lankidetzan dabilta Estatuako Administrazio Nagusia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, CEPES eta Mondragon Taldea, gizarte-ekonomiaren barruan sustatzeko lankidetzara, ikerketa eta berrikuntza. Egitasmoa, gainera, irekita dago, agente publiko (estatuak) eta pribatu gehiago sar daitezten. Proiektuaren jasangarritasuna bide pribatuan bermatzea da xedea.
- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekonomiaren eremuan, indartu egin behar dira hala entitateen barne-egitura erlazionalak, nola entitateen arteko lankidetzak, eraginkorrak izan daitezten, aurrera eginez antolaketa-aniztasunera egokitutako gobernantza-formula operatiboago eta inklusiboagoetarantz.

- GESPE 2021-2024k aurrerapen nabaria ekarri zien gizarte-ekonomiari buruzko politikaren formulazioari eta ekintzen programazioari. Eremuko gizarte-eragileek ondo baloratu dute ardatzen eta jarduketa-ildoen egitura. Dena dela, hobetu beharko liratekeen zenbait alderdi adierazi dituzte, zeinen artean nabarmentzen baitira sailarteko lankidetzak eta lankidetzak horren aplikazio eraginkorra.
- Gizarte-ekonomiaren eremua garrantzitsua dela ikusarazten dute, batetik, neurri horiek ezarri izanak eta, bestetik, esku-hartze parte-hartzaile eta antolatu bat formulatzen eta aplikatzen duen zuzendaritza nagusi bat egoteak. Halaber, jarduketa-ildoak ondo identifikatu direla baloratu dute, baina era berean esan dute zenbait ildo eta, bereziki, gobernantza indartu behar direla.
- Egindako kontsultetan, halaber, agerian jarri da kasu batzuetan halabeharrezkoa dela profesionalizazioa hobetzea kudeaketaren hainbat mailatan, eta kontu horrek berdin-berdin eragiten die merkatuetan lehiatzen diren entitateei nahiz irabazi-asmorik gabeko entitateei.
- Bestetik, diagnostikoan argi ikusi da gizarte-ekonomiaren presentziak eta eraginak premia argi bat dutela: gizarte-ekonomiak gizartean erakusten dituen balio positiboak diskurtso sendo bihurtu behar dira, euskal gizarteko sektore dinamiko eta eraldatzaileenetara iristeko. GESPEk urrats batzuk eman ditu norabide horretan, eta ASETT *hubak* lan egingo du nabaritasuna emateko ekonomia-eredu honen eta eragile giltzarrien balio erantsiari. Ekintzailatza-prozesuetan kudeaketa kolektiboa indartzeak erakutsiko du, dudarik gabe, pertsonak erdigunean jartzen dituen kudeaketa kolektiboko soluzioak direla bidea, iruditeria kolektibo kooperatibo eta solidario baten erakusgarri.

PROPOSAMENAREN MUINA

6. GESPE 2026-2029REN MISIOA, IKUSPEGIA ETA PRINTZPIOAK

6.1. Xedea

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa oinarri du ekonomia ulertzeko eta gizartearen eraikitzeke beste modu bat, posiblea izateaz gainera, beharrezkoa ere badelako uste osoa.


"Beste mundu bat posible da"
"Otro mundo es posible"
"Another world is possible"

leloak laburbiltzen du plan honen sakoneko xedea: gizarte-ekonomiaren ahalmen eraldatzailea aktibatzea, garapen-eredu justu, parte-hartzaile, jasangarri eta lurraldean errotuago bat eraikitzeke bide gisa.

Ohiko ekonomia-ereduaren mugen aurrean, zeina oinarritzen baita mozkinen maximizazioan, botere ekonomikoaren kontzentrazioan eta bizitzako eremu guztien merkantilizazioan, gizarte-ekonomiak beste modu bat proposatzen du ekoizteke, kontsumitzeko, antolatzeke eta elkarrekin bizitzeko. Erdigunean pertsonak eta guztion ongizatea ipintzen dituen ekonomia batez ari gara, lehiari lankidetzak, kontrol hierarkikoari parte-hartze demokratikoa eta epe laburreko onurari jasangarritasun ekologikoa gailentzen dizkien ekonomia batez. Dimentsio kolektiboa txertatzeak antolakundea bera eraldatzen du, eta eraldaketa hori gizarte-ingurunera proiektatzen da gero.

Xede honek lotura zuzena dauka gaur egungo desafio handiekin: trantsizio ekologikoa eta digitalarekin, zaintzen krisiarekin, zahartze demografikoarekin, gizarte-bazterketarekin eta herritarren erakundeekiko konfiantzarik ezarekin. Gizarte-ekonomia egiturazko aldaketa bat gauzatzeko motortzat jotzen dugu, gai delako kalitateke enplegua sortzeke, tokiko ekoizpen-sarea indartzeko, komunitateke loturak berpizteke eta elkartasunetik, ekitatetik eta lurraldearekiko konpromisotik erantzun berritzaileak emateke.

Esparru honetan, ekintzaile kolektiboa kokatzen da estrategiaren erdigunean, enpresa-sarea logika kooperatibo, inklusibo eta jasangarrietatik berritzeke gai den praktika ekonomiko eraldatzaile gisa. Gizarte-ekonomia ez da mugatzen merkatua osatzera: merkatuaren arauak birdefinitzen laguntzen du, posible denaren ertzak zabalduz eta beste mundu bat, desiragarria izateaz gainera, martxan dagoela erakutsiz.



6.2. Misioa

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoaren misioak zehazten ditu bai planaren izateko arrazoia, bai jarduketa guztiak orientatzen dituen xedea. Pertsonak erdigunean jartzen dituen eta garapen-eredu eraldatzaile, kolektibo eta jasangarri baten aldekoa den ekonomia batekiko konpromisoa islatzen du. Halaber, enpresaren eta industriaren alorreko osagaia ere badu, lehiakortasunean, malgutasunean eta hazkundera oinarritua. Hala, plana misio honen inguruan egituratzen da:

*Gizarte-ekonomiaren esparruan
ekintzailatza kolektiboa sustatzea,
gizarte-ekonomiako enpresen bidez
gizartea berritzeko eta gizarte-aldaketari
ekarpena egiteko gai den eredu
sozioenpresarial eraldatzaile gisa, zeina
era berean baita kohesiorako,
inklusioreko eta jasangarritasunerako
motor.*

6.3. Ikuspegia

Ikuspegiak oinarri du gizarte-ekonomia EAEko ekonomiako enpleguaren % 20 izatera iristeko helburu orokorra (2040-20), 2020an % 10ekoa baitzen (2020-10). Helburu hori lortuko bagenu, EAE benetan bihurtuko litzateke munduko erreferente berrikuntza, gobernantza demokratikoa eta lidergo partekatua konbinatzen dituzten kudeaketa kolektiboko ereduetan.

*2040an gizarte-ekonomia enpleguaren
% 20 izatea. Gizarte-ekonomian masa
kritikoa lortzeko.*

Plan estrategikoaren proposamenak protagonismoa ematen dio **ADIMEN KOLEKTIBOARI**, bai gizarte-ekonomiako ekintzailatza-politikan, bai gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketa kolektiboko askotariko praktikan, bai irabazi-asmorik gabeko interes orokorreko egitasmoetan (besteak beste, berrikuntzari eta aniztasunaren eta gizarte-inklusioren arretari dagokienez), bai gizarte-ekonomiako askotariko formetan.

6.4. Printzipioak

GESPE 2026-2024ren printzipio gidariek osatzen dute gizarte-ekonomiako politika publikoen plangintza, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa orientatuko dituen esparru etiko, politiko eta operatiboa. Eremua osatzen duten askotariko familiek printzipio hauek partekatzen dituzte, eta helburu dute koherentzia, kalitate demokratikoa eta ahalmen eraldatzailea ziurtatzea.



Auzolana

Gizarte-ekonomiak tokiko ekonomiaren garapenari egiten dion ekarpena sendotzea.

Humanity at Work

Gobernantza demokratikoa, langileen eta erabiltzaileen nagusitasuna eta guztion ongizateranzko orientazioa indartzea.



Elkartasuna eta gizarte-kohesioa

Inklusio aktiboa, ekitate intersektionala eta aniztasunaren aitortza sustatzea, balio-iturri gisa.

Erantzukidetasuna eta parte-hartzea

Pertsonak erabakiguneetan benetan parte har dezaten eta antolaketa-ereduak taldean eraiki daitezen sustatzea.



Jasangarritasun integrala

Jarduketa publikoetan eta enpresen jardueretan garapen jasangarriaren printzipioak txertatzea, ekonomiaren, gizartearen, ekologiaren eta zaintzen ikuspegitik.

Ekintzailtza kolektiboa

Gizarte-ekonomiatik ekintzailtza-egitasmoak sustatzea, bidea izan daitezen kalitateko enplegua sortzeko, asebeteta ez dauden gizarte-premiei erantzuteko eta gazteen talentua logika demokratiko, kooperatibo eta lurraldekotu batetik aktibatzeko.




Berrikuntza eraldatzailea

Pertsonen bizitzan eta ekoizpen-ereduaren eraldaketan eragingo duen gizarte-, teknologia- eta antolaketa-berrikuntzaren alde egitea.

Lankidetzeta eta sailartekotasuna

Gizarte-ekonomiako entitateen artean eta familien artean sareak eta sinergiak indartzea. Askotariko sailek gizarte-ekonomiaren arloan egiten dituzten jarduketetan eta gizarte-ekonomiari buruzko politika publikoetan lankidetzari bide ematea.



Gardentasuna eta ebaluazio etikoa

Ezagutzaren, ebaluazio kritikoaren, kontu-ematearen, gizarte-kontabilitatearen eta inpaktuaren etikaren arloko erremintak sartzea.

Berdintasuna eta aniztasuna

Modu aktiboan konprometitzea genero-indarkeriarekin eta gazteen, adinekoen, migratzaileen, desgaitasuna dutenen eta bazterketa-arriskuan daudenen inklusioarekin eta, halaber, egiturazko alborapenak gainditzea.



Masa kritikoa

Gizarte-ekonomian bolumen nahikoa lortzea, gizartean efektu metagarri eta sinergikoak sortzeko eta iruditeria kolektiboan protagonista izateko.

6.5. Planaren filosofia

EAEko Gizarte Ekonomiaren 2026-2029ko Plan Estrategikoak uste oso sakon hau dauka oinarrian: gizarte-ekonomia, antolaketa- edo ekonomia-eredu bat izateaz gainera, gizartea benetan aldatzeko gaitasuna daukan proposamen bat da. Uste oso horrek justizia sozialerako ekarpen gisa aurkezten digu gizarte-ekonomia, bai eta gizateriak parez pare dituen eta, desberdintasunak egon arren, munduko herrialde ia guztietan agertzen diren XXI. mendeko erronka handiei emandako erantzun etiko, praktiko eta egiturazko gisa ere.

Testuinguru honetan, zeinean gero eta handiagoa baita desberdinkeria, gailentzen ari direlako krisi ekologikoa, gizartearen sakabanatzea eta munduko konplexutasun eta ziurgabetasuna, gizarte-ekonomia da bidea ekonomiaren, pertsonen eta planetaren arteko harremanak berriro orekatzeko. Gizarte-ekonomiako enpresek printzipio hori haragiztatzen dute, hainbat balio txertatzen baitituzte funtzionamendu-logikan, hala nola elkartasuna, ekitatea, demokrazia ekonomikoa eta jasangarritasuna. Ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko orduan mundua eta pertsonak zaindu, suspertu eta leheneratuko dituzten enpresa-egiturak sortzea da kontua, betiere erdigunean jarrita guztion ongizatea. Gizarte justu, erresiliente eta kohesionatuagoak sortuz ekonomia garatzeko erreminta bat da: gizarte horietan, xede kolektiboa gailenduko zaie norbanakoaren onurarako logika estraktibistari eta araurik gabeko lehiari.

Atal honetan, GESPE gidatzen duten printzipio filosofikoak jasotzen eta garatzen dira, bi dimentsiotan. Lehenengo dimentsioa orokorra edo globala da, kanporantz begirakoa, eta, munduko erronka handiak jasotzeaz gainera (klimatikoak, sozialak, belaunaldiartekoak, demokratikoak...), planteatzen du gizarte-ekonomiak lagundu dezakeela erronka horiei aurre egiten, logika eraldatzaile, humanista eta sistemiko batetik. Eta, dimentsio horretan, bestelako garapen bat (justuagoa, jasangarria eta pertsonak erdigunean jartzen dituen) posible dela erakusteko erantzukizuna bere gain hartzen duen lurraldetzat jotzen da EAE. EAEk nazioarteko erantzukizuna dauka, gizarte-ekonomiako erreferenteetako bat delako mundu-mailan (zehazki, elkarlaneko kooperatibismoan); beraz, ezagutza partekatu, gobernantza-arloan berritu eta aliantza globalak sustatu beharko ditu.

Bigarren dimentsioa zehatza edo espezifikoa da, barrurantz begirakoa, eta eremu zehatzetara eramaten du EAE, enpresa-, lurralde- eta gizarte-jarduketako eremu zehatzetara.

Bada, printzipio filosofikoen bi dimentsioek garatzen dute gizarte-ekonomiaren HUMANITY filosofia.

1. dimentsioa: orokorra edo globala

Gizateria bidegurutze historiko batean dago berriro ere, eta axolagabekeria ez da aukera onargarria, gain-gaingan baitauezkagu, besteak beste, II. Mundu Gerran sortutako nazioarteko lankidetzaren egiturekin bukatu nahi dutela diruditen aldaketa geopolitikoak, lehengaiak eskuratzeko lehia, klima-aldaketa eta haren ondorioak, migrazio-mugimenduak, ekonomia-sektore garrantzitsuen feudalizazioa, gero eta handiago den desberdinkeria... Aldakortasunak, ziurgabetasunak, konplexutasunak eta anbiguitasunak zeharkatutako mundu honetan, gizarte-ekonomiak printzipioak eta balioak eransten ditu (demokrazia, elkartasuna, lankidetzaren), baina balioak ez dira apaingarri erretorikoak, ez horixe, baizik eta aldaketaren erdian norabideari eusteko modua ematen diguten aingurak. Jasangarritasun integralerako norabidea: jasangarritasun ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta zaintzena. Dimentsio orokor honek planaren politika eta ekintza guztiak orientatzen ditu, indartzeko EAEk Garapen Jasangarriko Helburuekin eta 2030eko Agendarekin daukan konpromisoa.

Gizarte-ekonomiak elkarrekiko zaintzan, ekitatean eta jasangarritasunean oinarritutako eredu bat proposatzen du, merkatuko akatsak zuzentzeki harago egiten duena: guztion ongizatea eta elkartasun aktiboa lehenetsiko dituzten sistemak berrirudikatzea da helburua. Metatzen harago,

beren lurraldea eraldatu eta inpaktua eragin nahi duten enpresak dira. Ekonomiaren garapenaren erdigunean pertsonak kokatzen dituzten eta, etorkizuneko belaunaldientzako balioa sortzen duten egituren bidez, belaunaldiarteko elkartasuna sustatzen duten enpresak.

Hala, gizarte-ekonomiako enpresek jabetza demokratizatzen dute, baliabideak banatuz eta justizia sozialeko agente bihurtuz (desberdinkeria aurre egitean) edo sakontze demokratikoko agente bihurtuz (pertsonen erabakiguneetan parte hartzeko modua ematean, gardentasunetik eta erantzukidetasunetik); beraz, inpaktu ekonomikoa ez ezik, inpaktu soziala ere eragiten dute. Ikuspegi horrek guztion ongizatea, gizarte-kohesioa eta lurralde-errotzea indartzen ditu, enpresa-erantzukizuna orainetik harago eramanez.

EAEk, gizarte-ekonomiaren nazioarteko erreferentea den heinean, erantzukizun estrategikoa dauka ereduaren eraikuntzan. Lidergo horrek ez dakar praktika eredugarriak egitea soilik, era berean eskatzen baitu gizarte-berrikuntza sustatzea, ezagutza partekatzea eta kohesioa, jasangarritasuna eta justizia indartuko dituzten aliantza globalak bultzatzea. Eremu honetan abangoardia izateak agente eraldatzaile bihurtzen du EAE, ekonomia-garapenaren erdian pertsonak jarriko dituzten politikak eta proiektuak inspiratzeko gai dena, eta horrek sendotu egiten du guztion ongizatearekin eta giza duintasunarekin konprometitutako lurralde gisa daukan eginkizuna.

Alde horretatik, planak EAEko gizarte-ekonomiaren balioak eta lorpenak hedatzeko ekintzak jasotzen ditu, nazioarteko sare eta proiektuetan marka eta presentzia finkatuz. EAEk lider aktiboa izan behar du, mundu-mailako foroetan parte hartuz, mugaz gaindiko lankidetzak sustatuz eta nazioarteko posizioa indartzeko erremintak erabiliz (adibidez, ASETT *huba*). Kontakizun partekatu bat eraikitzeak eta bereizgarri grafikoak sortzeak EAEko ereduaren nortasuna eta aitortza indartuko ditu.

Berrikuntza –soziala nahiz teknologikoa– planaren beste ardatz nagusietako bat da. EAEko ekosistema, ASETT *huba* bezalako egitasmoekin, erreferentea da ezagutzaren sorkuntzan eta antolaketa eta gobernantza molde berrien esperimentazioan. EAEren erantzukizuna da berrikuntza irekia sustatzea, ikasitakoak Europako eta munduko gizarte-ekonomiaren multzoari transferitzea eta eredu jasangarri eta erresilienteagoetarako trantsizioan buru izatea. Berrikuntza erreminta estrategikoa da erronkei (hala nola digitalazioari, trantsizio ekologikoari eta gizarte-kohesioari) aurre egiteko.

2. dimentsioa: espezifikoa edo zehatza

Printzipio estrategikoek ekintza-eremu giltzarrietara eramaten dute filosofia hori; adibidez, lanera, kudeaketara, kulturara, zaintzetara, etxebizitzara edo digitalizaziora. Printzipiook jatorria dute EAEko testuinguruaren analisisian eta EAEren indargune bereizgarrietan, eta erakusten dute globala dena egingarri bihurtzen dela, tokikoa, antolakuntzako eta komunitatekoa oinarri hartuta artikulatzen bada.

EAEn, lana ez da salgaitzat jotzen, duintasunezko gune parte-hartzailetzat baizik, eta hori argi ikusten da kalitateko lanaren (edo, bestela esanda, lan duinaren) aldeko apustuan, Enpleguaren Legeak (15/2023, abenduaren 21ekoa) 2. artikuluan esaten duen moduan: lan duina da lan-jarduera bat bidezko diru-sarrera baten truke eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan egiteko aukera ematen duena, familia-kontziliazioarekin bateratzeko moduan; lantokiko segurtasuna, gizarte-babesa, pertsona gisa garatzeko eta parte hartzeko aukera eta aukera-berdintasuna ematen dituen, eta gizarte-integrazioa bultzatzen duena. EAEko gizarte-ekonomiako antolakundeek kalitateko enplegua sortzen dute, ingurune osasungarrietan, non lan egiteak partekatzea, erabakitzea eta zaintzea ere esan nahi baitu. Ikuspegi horrek justizia sozialerako eta lurralde-kohesiorako palanka bihurtzen du enplegua.

Izan ere, gizarte-ekonomiako enpresa-kudeaketa ikuspegi humanista batean oinarritzen da, pertsonak subjektu eraldatzaileztat joz, ez baliabidetzat. Kooperatibek eta lan-sozietateek adierazle sozialak, ekologikoak eta gobernu onari dagozkionak biltzen dituzte, lidergo horizontal eta erantzukideekin.

Gizarte-ekonomia dagoeneko ari da EAEk datozen urteetan jorratu beharko dituen erronka nagusiei balio horietatik aurre egiten.

Zehatzegiak izateko asmorik gabe, adierazten dugu gizarte-ekonomia eredu alternatiboak proposatzen ari dela etxebizitzarako eskubidea baliarazteko, hala nola jabetza kolektiboa, erabilera-lagapena, etxebizitza-kooperatibak edo errentagarritasunaren gainetik premia jartzen duten formula publiko-pribatuak, xedea izanik komunitatea eraikitzea, higiezinaren espekulazioaren aurrean.

Zaintzen erronkan, pertsona erdigunean jartzen duten ereduaren alde egin behar da, loturetan eta duintasunean oinarrituz eta, era berean, belaunaldiarteko itun erreal eta jasangarri bat sendotuz, bat etorrita sektore horrek behar eta eskatzen duen kalitateko lanarekin.

Eraldaketa digitalak erronka etikoak planteatzen ditu: digitalizazioa puntako gune ekonomiko-teknologiko handien bidez gauzatzen ari denez munduan, EAEk sustatu egin beharko ditu burujabetza teknologikoa eta datuen kontrol demokratikoa bermatzeko modua ekarriko duten proiektuak, eta buru izan beharko du eraldaketa digital inklusiboan, balioetan oinarrituta, alderdi gizatiarrak aukera —eta ez mehatxu— bihur dezan digitalizazioa. Bestela esanda, arimadun digitalizazioa nahi dugu, inklusiboa, irisgarria, etikoa eta eraldatzailea.

Gizarte-ekonomia, halaber, modu aktiboan konprometituta dago gizarte-bazterketako egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen inklusioarekin, gizarteratzen laguntzeko, adibidez, luzaroan langabezian daudenei, migratzaileei edo etxegabeei. Horrela, laneratze-enpresek, enplegua eskaintzeaz gainera, laneratze ibilbide pertsonalizatuak, prestakuntza egokitua eta bidelaguntza soziala sortzen dituzte. Enpresa horien ikuspegiak erdigunean jartzen ditu pertsonen duintasuna, autonomia eta parte-hartzea, gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bateranzko eraldaketa egiturazkoa sustatuz.

Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak modu berean konprometitzen dira desgaitasuna edo gaixotasun mental larria duten pertsonekin, erakutsiz kalitateko lanak katalizatzaile gisa jarduten duela pertsona guztien gizarte-inklusiorako eta garapen pertsonal eta familiarerako.

Hori guztia, plana zeharkatu behar duen zeharkako printzipioa ahaztu gabe, hots, genero-berdintasuna. Eta ez eskakizun etiko gisa soilik, egiturazko baldintza baita justizia sozialerako eta garapen jasangarriarako. Ikuspegi horrek aitortzen duenez, emakumeek eta gizonek eremu guztietan (ekonomikoan, sozialean, politikoan eta antolaketakoan) parekidetasunez parte hartzeak indartu egiten ditu komunitatearen kohesioa, berrikuntza eta erakundearen erresilientzia. Gizarte-ekonomiako entitateek, egitura demokratikoen eta praktika inklusiboen bidez, diskriminaziorik gabeko lan-inguruneak sustatzen dituzte, lan-baldintza duinekin eta emakumeak liderrak izateko benetako aukerekin. Inpaktu sozialeko estrategietan genero-ikuspegia txertatuz, gainera, zaintzak, lan erreproduktiboa eta familiako erantzukidetasuna ikusarazten eta baloratzen dituzten gobernantza-ereduak sustatzen dituzte. Esparru horretan, berdintasuna ez da ordezkari formalerak mugatzen, barruan biltzen baititu gizateria —bere aniztasunean— ekintza ekonomikoaren erdigunean kokatzen duten eraldaketa zehatzak ere.

EAEan, gizarte-ekonomiak beti izan du izaera industrial, eta gainerako industria-enpresek adinako erresilientzia- eta berrikuntza-mailak erakutsi ditu, baita handiagoak ere, baina EAEko industriaren etorkizunerako funtsezkoa den lurralde-errotzea gaineratuta. Deslokazio- eta deskonexio-garaiotan, gizarte-ekonomia lurraldeetan sustraitzen da. Enpresa sozialak ez dira espekulazioagatik mugitzen, konpromisoagatik baizik. Tokiko enplegua sortzen dute,

aberastasuna birbanatzen dute, komunitate-sareak indartzen dituzte, eta tokiko jakintzak eta kulturak zaintzen dituzte. Lurralde-dimentsio hori ez da geografikoa soilik: enpresa aurpegiarekin, oroimenarekin eta irauteko bokazioarekin egiteko modua da.

Horregatik bihurtu behar du ekintzailtza kolektiboak EAEko ekonomia garatzeko motor. Are, GESPE honetan sartutako jarduketa eta proiektu guztiek dute helburu, zuzenean edo zeharka, masa kritikoaren aldeko apustua (2040an enpleguaren % 20 gizarte-ekonomiakoa izatea), EAEren asmo handien eta erantzukizunaren erakusgarri.

Ekintzailtza kolektiboa alternatiba indartsua da aurre egiteko prekarietateari, isolamenduari eta "Bakoitzak berea salba dezala!" dioen logikari. Kooperatibek, lan-sozietateek eta gizarte-ekonomiako beste formula batzuek balio sozial erantsia duten proiektuetarantz bideratzen dute ekintzailtza-energia. Kontua ez da enpresak sortzea bakarrik, komunitate produktiboak eraikitzea baizik. Ekintzailtza kolektiboak ekonomia-ekimena demokratizatzen du, jabetza birbanatzen du, eta erresilientzia sortzen du. Goi-mailako ekintza politiko, ekonomiko eta kultural bat da.

Ekintzailtza kolektiboak, gainera, mesede egiten dio belaunaldi-erreleboari, besteak beste parte-hartzea, ekitatea eta lurraldearekiko konpromisoa lehenesten dituelako eta horrek lan-ingurune inklusiboagoak eta jasangarriagoak sortzen dituelako belaunaldi berrientzat. Irabaziei bakarrik begiratzen ez dietenez, antolakunde horiek kudeaketa demokratikoko ereduak bultzatzen dituzte, gazteei modua emateko erabakiguneetan modu aktiboan egoteko, helburudun proiektuak garatzeko eta komunitatean errotutako sektoreetan egonkortasuna aurkitzeko. Halaber, belaunaldiarteko ezagutza-transmisioa eta ekintzailtza kolektiboa sustatzen dituzte, berrikuntza nahiz eskarmentua baloratzen dituzten egituretan txerta dadin gazteen talentua, geratzeko.

EAE aitzindaria da kooperatibismoan eta gizarte-ekintzailtzari laguntzeko sareen sorkuntzan, eta eredu hori sendotu eta esportatzeko ardura dauka, erakusteko lankidetzaren eta parte-hartze demokratikoa giltzarriak direla lehiakortasunerako eta gizarte-kohesiorako.

Hori dela-eta, planak gizarte-ekonomian ekiteko zentro bat eta enpresen azeleragailu bat sortzea aurreikusten du, bai eta preskriptoreen sareak eta bidelaguntza-agenteen sareak indartzea ere, ekintzailtza-ekosistema trinko, irisgarri eta eraldatzaile bat egituratzeko xedez.

Horretarako, balio kooperatiboen prestakuntza eta transmisioa garatzen jarraitu behar da, planaren beste helburu bat hori. EAEk gizarte-ekonomia hezkuntza-maila guztietan eta prestakuntza jarraituan txertatzearen alde egiten du, euskal nortasuna eta nazioarteko proiektzioa indartzeko. EAEk bi erantzukizun dauzka: belaunaldi berriak trebatzea eta jardunbide onak beste lurralde batzuekin partekatzea, sektorearen profesionalizazioari eta belaunaldi-erreleboari laguntzeko. Hezkuntzaren arloko apustu horrek bat egiten du EAEko ereduaren ikusgai egin eta ereduaren marka nazioartean sendotzeko behararekin.

Halere, EAEen egin den bezala egin behar da lan hori, EAEko gizarte-ekonomiaren garrantziari buruzko adostasun politiko eta sozial zabaletik jardunez, lankidetzaren eta lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez, sektorearen erresilientziarako eta eragin-ahalmenerako elementu giltzarri gisa.

Planaren gobernantza-ereduak oinarri du administrazio publikoen eta sektoreko agenteen arteko erantzukidetasuna, berorren ezarpena izan dadin efikaza, parte-hartzailea eta EAEko ekosistemaren konplexutasunarekin bateragarria. Jarraipen- eta ebaluazio-sistemak, gardentasunean, parte-hartzean eta kontu-ematean oinarrituta dagoenez, indartu egiten du EAEk munduko erreferente gisa daukan erantzukizuna, ziurtatzeko aurrerapenak eta ikaskuntzak beste testuinguru batzuetan partekatu eta kopiatu ahal izango direla. Planaren arkitektura operatiboak sailarteko komiteak eta batzorde tekniko tematikoak barnebiltzen ditu, politika

publikoak zeharkakoak eta efikazak izatea ziurtatzeko.

6.6. Planaren helburu estrategikoak

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa zenbait **helburu estrategikotan** egituratuta dago, eta, hain zuzen ere, helburuok artikulatzen dute planaren xede eraldatzailea, eta haiek orientatzen dute esku-hartze publikoa, modu koherente, neurgarri eta partekatuan. Helburu estrategikoek aurreko zikloan ikasitakoak jasotzen dituzte, eta ibilbide-orri argi bat proiektatzen dute, EAEko gizarte-ekonomiaren ekosistema indartzeko, trantsizio ekonomiko, sozial eta ekologikoko testuinguru honetan.

Arkitektura honen oinarrian,

- **0. helburua: Gizarte-ekonomia, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko erantzun etiko, praktiko eta egiturazkoa**

dago, **zeharkako inspirazio-esparrua**, eta gogorarazten du gizarte-ekonomia ez dela soilik arazo ekonomiko edo sozialak konpontzeko erreminta huts bat: garapena ulertzeko eta pertsonak ekoizpen-ereduaren erdigunean jartzeko modu bat da. Helburu hau zuzenean lotuta dago planaren —*"Beste mundu bat posible da"/"Otro mundo es posible" / "Another world is possible"*— xedearekin, eta azpimarratzen du gizarte-ekonomiako enpresa-ereduak, ekintzailatza kolektiboak, lankidetzak, elkartasunak eta jasangarritasunak balio eraldatzailea dutela, ekonomia zentzudun baten printzipio gidariak baitira.

Oinarri honetatik abiatuta, sei helburu espezifiko zabaltzen dira; bakoitzak bere ikuspegi tematikoa dauka, eta, hor, planaren jarduketa-ildoak eta ardatz operatiboak biltzen dira:

- **1. helburua: Ekintzailatza kolektiboa garatzea**

Gizarte-ekonomian ekintzailatza sustatzea, dauden enpresak indartzea, preskriptoreen sarea sendotzea eta bidelaguntza teknikoko zerbitzuak hobetzea, enplegu egonkor, jasangarri eta zentzuduna sortzeko xedez.

- **2. helburua: Gizarte-ekonomiaren inguruko prestakuntza garatzea**

Gizarte-ekonomiaren inguruko prestakuntza sustatzea hezkuntza-sistemako maila guztietan, ekosistemako agenteen artean eta sektorearen barruan, ereduaren profesionalizaziorako, belaunaldi-erleborako eta berrikuntzarako oinarri gisa.

- **3. helburua: Gizarte-ekonomiaren kontakizuna garatzea**

Gizarte-ekonomiaren eredia ikusgaiagoa eta erakargarriagoa egitea, haren balioak, lorpenak eta ekarpenak hedatuz, kanpainen, narratiba partekatuen eta gizarte-aitortzarako egitasmoen bidez.

- **4. helburua: Entitateen finantzaketarako sarbidea ziurtatzea eta zabaltzea, eta ereduari kohesioa ematea, lankidetzaren bidez**

Enpresa-egitasmo berrietarako eta jada sendoak diren entitateetarako finantzaketa-euskarria erraztea, sektorearen barne-kohesioa indartzeaz batera, lankidetzaren sareen eta aliantza estrategikoen bidez.

- **5. helburua: Sailartekotasuna**

Gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoen gobernantza hobetzea, sailarteko koordinazioa areagotuz eta lankidetza publiko-pribatuko guneak sendotuz.

- **6. helburua: Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea**

Partaidetzako enpresa-ereduak sustatzea, langileek eginkizun aktiboa izan dezaten jabetzan, erabakiguneetan eta antolakundeen orientazio estrategikoan.

6.7. Planaren zeharkako irizpideak

EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoak (GESPE29) zeharkako zenbait irizpideri jarraitzen die, horietatik izaki diseinuaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren ildo nagusiak. Irizpideek gai estrategikoak eta ikuspegi giltzarriak islatzen dituzte, zeinak, ardatz edo ildo espezifiko bat eratzen ez badute ere, planaren egitura osoa zeharkatzen baitute eta, beraz, ardatzetan, ildoetan, ekintzetan eta garatzen diren laguntza-tresnetan egon behar baitute.

- **Gazteak eta belaunaldi-erleboia**

Gizarte-ekonomiaren erronka handietako bat da belaunaldi berriak erakarri eta inplikatzea. Planak konpromisoa hartzen du gazteak erakarriko dituen kultura bat sustatzeko, ekintzailatza kolektiboa izan dadin bizi- eta lanbide-proiektua garatzeko bide bideragarri, berritzaile eta zentzudun bat. Planeko ekintzek belaunaldi-erleboia sustatuko dute sektoreko enpresetan, eta parte hartzeko, trebatzeko eta laguntza jasotzeko guneak sorraraziko dituzte, belaunaldi berriei egokituak.

- **Generoa-berdintasuna eta aniztasuna**

Genero-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua planaren printzipio utziezinak dira. Sektoreak berdintasun-arloan daukan egoera sistematikoki ebaluatzea sustatuko da, eta ekintza eta neurri espezifikoak abiaraziko dira gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen barruan. Emakunderekin lankidetzan, dirulaguntzak eta laguntza teknikoak eskuratzeko lehentasuna emango zaie berdintasun-politika aktiboak sustatzen dituzten antolakundeei. Aniztasuna —askotariko dimentsioetan: generoa, jatorria, gaitasunak, sexu-joera eta abar— ereduaren egiturazko balioztat joko da.

- **Laguntza-sistemaren efizientzia, ikuspegi estrategikoa eta bilakaera**

Planak helburuen artean dauka gizarte-ekonomiara lotutako laguntza ekonomikoen sistema indartu eta hobetzea, bermatzeko dirulaguntzek bat egitea planaren helburu estrategikoekin eta, halaber, benetako ekarpena egitea planaren inpaktuari. Halaber, laguntza-programak sistematikoki ebaluatzea planteatzen da, baita trantsizio digital eta berdera lotutako laguntza molde berriak aztertzea ere. Era berean, EAEko gizarte-ekonomiaren zerga-araubidea aztertuko da, eskudun sailekin hitz eginez, pizgarri posibleak eta sektoreari hazten laguntzeko esparruak miatzeko xedez.

- **Inpaktu soziala eta jasagarritasuna**

Planak sustapen-xede dauka gizartean eragingo duten enpresa-proiektuak garatzea, halakotzat joz balio kolektiboa sortzen duten, guztion ongizateari laguntzen dioten eta enpresa-jardueratik erronka sozialei erantzuten dieten egitasmo ekonomikoak. Gizarte-ekonomiak, merkatuan jarduteaz gainera, barrutik eraldatu nahi du merkaturia, errentagarritasun ekonomikoa onura sozialarekin, ingurumen-jasagarritasunarekin eta komunitatearen konpromisoarekin uztartzen duten enpresa-ereduak artikulatuz.

7. PLANAREN EGITURA: HELBURUAK, ARDATZAK, ILDOAK ETA EKINTZAK

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoak egitura ordenatu eta koherentea dauka, eta lotzen ditu helburu orokorrak jarduketa-ildo espezifikoekin. Arkitektura estrategikoa zazpi helburu handiri erantzuteko dago antolatuta: helburuok dira planaren funtsezko zutabeak, ziklo berri honetarako zehaztutako helburu estrategikoak.

Planaren hedapen operatiboa hamar jarduketa-ardatzen bidez gauzatzen da, zeinek zubi-lana egiten baitute helburu estrategikoen eta jarduketa-ildoen artean. Ardatz bakoitzak gai giltzarri baten edo lehentasunezko eraldaketa-eremu baten inguruan biltzen ditu esku-hartzeak, betiere ziurtatuz koherentziari eutsiko zaiola esparru estrategiko orokorraren eta ekintza zehatzen artean. Horrela, ardatzek bidea jartzen dute planaren helburu handiak ondo zehaztutako eremu operatibo bilakatzeko, eta, hain zuzen ere, eremu horietantxe antolatzen dira gizarte-ekonomiaren arloko esku-hartze publikoa taxutzeko ildoak eta ekintzak 2026-2029ko aldirako.

Ardatz bakoitza jarduketa-ildoen bidez garatzen da. Jarduketa-ildoek, bada, esku hartzeko eremu bakoitzeko lehentasunak zehazten dituzte, eta lehentasunok, era berean, ekintza espezifikoek multzo antolatu baten bidez garatzen dira, aurrera egin ahal izan dezagun planteatutako helburuak lortzeko orduan.

0. helburua (*Gizarte-ekonomia, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko erantzun etiko, praktiko eta egiturazkoa*) ez da ekintzetan garatzen, plana oro har orientatzeko eta inspiratzeko atala baita. Halaber, planak ukitzen dituen inguruneen egoera ekonomiko eta soziala hobetzen laguntzen du.

Helburuen, ardatzen eta ildoen arteko harremanak ibilbide-orri argi bat ezartzen du, errazagoa izan dadin plana ezarri eta ebaluatzea; harreman horrek, aldi berean, modua ematen du diagnostiko sektoriala, erronka estrategikoak eta 2026-2029ko aldirako aurreikusitako erantzun politikoak bat etor daitezen.

Hona hemen planari forma ematen dion egitura orokorra, labur jasota:

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK
0_HELB	GIZARTE-EKONOMIA, XXI. MENDEKO ERRONKEI AURRE EGITEKO ERANTZUN ETIKO, PRAKTIKO ETA EGITURAZKOA
0_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAREN CORPUS FILOSOFIKOA GARATZEA.
1_HELB	EKINTZAILTZA KOLEKTIBOA GARATZEA
1_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO EKINTZAILTZA BULTZATZEA, DAUDEN ENPRESAK INDARTZEA ETA INFORMATZAILEEN ETA PRESKRIPTOREEN SAREA ETA AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK HOBETZEA.
2_HELB	GIZARTE-EKONOMIAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA GARATZEA
2_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA ETA INTEGRATZEA HEZKUNTZA-ETAPA GUZTIETAN, TARTEAN DIREN ERAGILEEN ARTEAN ETA SEKTOREAN BERTAN.
3_HELB	GIZARTE-EKONOMIAREN KONTAKIZUNA GARATZEA
3_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO EREDUAREN IKUSGAITASUNA, PERTZEPZIOA ETA GIZARTE-HARMENA HOBETZEA, EREDUA HEDATU ETA SENDOTZEA ERRAZTEKO BITARTEKO GISA, ETA HAREN JARDUERAREN HEDAPENA ZIURTATZEA.
4_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIARI BURUZKO NEURKETA- ETA EZAGUTZA-SISTEMA GARATZEA.
4_HELB	GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN/ENTITATEEN FINANTZAKETARAKO SARBIDEA ZIURTATZEA ETA ZABALTZEA, ETA EREDUARI KOHESIOA ETA ERAKARGARRITASUNA EMATEA, LANKIDETZAREN BIDEZ

5_ARDATZA	ENPRESA-EKIMEN, ENPRESA ETA ENTITATE TXIKI BERRIETARAKO BEHAR DEN FINANTZA-EUSKARRIA EMATEA, MODU BIDERAGARRI ETA JASANGARRIAN SENDOTU DAITEZEN.
5_HELB	SAILARTEKOTASUNA
6_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIARI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOEN EFIZIENTZIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA.
7_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN ESKARIA BULTZATZEA, EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUAREN BIDEZ.
8_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAREN ESPARRU JURIDIKOA AZTERTZEA ETA GARATZEA, HAREN HEDAPENA MUGATZEN DUTEN OZTOPOAK EZABATZEKO.
9_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO FAMILIEN ARTEKO ALIANTZAK ETA OSAGARRITASUNAK BULTZATZEA, EGES – EUSKAL GIZARTE EKONOMIA SAREAREN BIDEZ, LANKIDETZARAKO TOPALEKU GISA.
6_HELB	LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEA
10_ARDATZA	LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEA.

7.1. Planaren narratiba: ardatzak, ildoak eta ekintzak.

NAZIOARTEKO AHOIKULARITZA-KONTSEILUAK ZEHAZTUTAKO GIZARTE-EKONOMIAREN CORPUS FILOSOFIKOA GARATZEA

Atariko ardatz hau **0_helburuaren** zati da, zeina zeharkakoa baita plan estrategikoan, EAEko gizarte-ekonomiak oinarri dituen balio unibertsalen adierazpen modura. Helburuak ezker-eskuin irudikatzen du pertsonen eta planetaren zerbitzurako ekonomia batekiko konpromiso etiko eta filosofikoa.

Atariko ardatzak, bada, planaren filosofiaren puntuen garapen kontzeptual eta operatiboa artikulatzen du. Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluak identifikatu ditu puntuok, gizarte-ekonomiaren inguruko politika publikoak eta ekintza kolektiboa orientatzeko erreferentziako esparru ebolutibo, etiko eta estrategiko gisa.

Puntu horiek, kontu programatiko eta teknikoak jorratzeaz gainera, gizarte-ekonomiak bestelako zibilizazio-proiektu gisa jokatzaren duen rola ikuspegi integral bat eskaintzen dute, gure garaiko erronkei begirakoa.

Garapen horretan aurrera egiteko, bi jarduketa-ildo ezartzen dira:

- **0.1. Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluak emandako *humanity* kontzeptu orokorrak garatzea**

Ekintza honek helburu du esparru teoriko eta diskurtsibo partekatu bat finkatzea Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluaren barruan, zertarako-eta *humanity universe* printzipioak interpretatu eta komunikatzeko, EAEko gizarte-ekonomiaren oinarri ere begiratuta. Horretarako, dokumentu estrategikoak, adierazpenak eta deklarazio etikoak idatzi beharko dira, inspirazio-iturri izan daitezkeen planerako oro har eta etorkizunean taxutzen diren politika publikoetarako.

- **0.2: Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluak emandako *humanity* kontzeptu espezifikak garatzea**

Bigarren ekintza honetan, kontseiluak sakon helduko dio garatutako kontzeptuen aplikazio praktikoari, eta eremu espezifiketan zehaztuko du kontzeptuon adierazpena;

besteak beste, eremu hauetan: lan duina, bidezko trantsizio ekologikoa, berrikuntza eraldatzailea, gobernantza demokratikoa, gizarte-inklusioa eta nazioarteko lankidetzak. Hona hemen helburua: *humanity* ikuspegia jarduketa-ildo zehatzetara eramatea, betiere ziurtatuta jarduketa-ildo horiek nazioartean kopiatu, ebaluatu eta partekatu ahalko direla.

1_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAKO EKINTZAILATZA BULTZATZEA, DAUDEN ENPRESAK INDARTZEA ETA INFORMATZAILEEN ETA PRESKRIPTOREEN SAREA ETA AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK HOBETZEA

Ekintzailatza kolektiboa da gizarte-ekonomia garatu eta hazteko oinarria, aukera ematen baitu sortzeko ekonomia-eredu honen erdi-erdian dauden balioekin (hots, gizarte-kohesioarekin, elkartasunarekin, lurralde-errotzearekin eta toki-garapenarekin) bat datozen enpresa eta enplegu berriak. Ekintzailatza mota horrek, gainera, berekin dakar konpromiso etiko bat hartzea, bermatzeko sortzen diren enpresa-proiektuen gizarte-ekarpena handia izatea askotariko alderdietan, hala nola bazkideek beren gain hartutako konpromiso ekonomiko errealean, mozkinen banaketan eta berrinbertsioan, sortutako enpleguaren kalitatean edo lurralde-errotzean.

Alabaina, gaur egungo testuinguru ekonomiko eta politikoa ekintzailatzarako egokia bada ere, EAEn ikusitako tasa orokorrak nahiko baxuak dira, eta ekintzailatza kolektiboan ere islatzen da hori. Hori dela-eta, ardatz honen helburua da

egoera horri bira ematea, zenbait jarduketa-ildoren bidez, zeinak, funtsean, bideratuta baitaude ekintzailatza sustatzeko agenteen ekosistema sendotzera, agenteok modu kontziente eta proaktiboan jardun dezaten gizarte-ekonomiak eskaintzen dituen aukeren aurrean eta, halaber, logika koordinatu eta erlazionatu baten pean aritu daitezen, sinergiak aprobetxatuta.

Ardatz honi eusten dion indar-ideia da egituratu, antolatu eta hobetu egin behar dela informazioaren, orientazioaren eta bidelaguntza espezializatuaren eskaintza, sustatu nahi baitugu ekintzailatza kolektiboko proiektuak kooperatiben, lan-sozietateen edo antzeko beste formula batzuen bidez sortzea.

Plan honetan, erabakigarria da, beraz, gizarte-ekonomian ekintzailatzaren zerbitzura dauden edo egon daitezkeen agenteen eta programen ekosistemak indartzea eta, era berean, sektorean enpresak sortzeko bereziki egokiak diren jarduera-eremuak identifikatu eta aprobetxatzea.

1_ardatza, zehazki, zazpi jarduketa-ildotan antolatuta dago.

1.1_JI	Gizarte-ekonomiako enpresa gehiago eta hobeak sortzea, daudenak sendotzea eta enplegua handitzen laguntzea.
1.2_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduko preskriptoreen sarea optimizatzea eta osatzea, tresnak emanez (informazioa eta ezagutza), ekintzailatza kolektiborako ibilbideetara sartzeko ateak izan daitezen.
1.3_JI	Gizarte-ekonomiako enpresak sustatzera berariaz bideratzen diren entitateen lana optimizatzea.
1.4_JI	Gizarte-ekonomiako enpresa berriei aholkularitza eta laguntza emateko sarea zabaltzea, gizarte-ekonomiako berariazko ekintzailatza-haztegiak bultzatuz.
1.5_JI	Gizarte-ekonomiako entitateak indartzea, kalitateko enplegu inklusiboa sortuz.

1.6_JI	Enpresen eraldaketa-prozesuetan (krisiak, birmoldaketak, etab.) eta belaunaldi-erleboan arreta jartzea, gizarte-ekonomian enpresa berriak integratzeko bide gisa.
1.7_JI	Aukera-guneak baliatzea gizarte-ekonomiako proiektu eta enpresa berriak bultzatzeko: etxebizitza, zainketa pertsonalak, ekonomia zirkularra, landa-nekazaritza-Km0 sektorea, energia-komunitateak, plataforma digitalak, finantza etikoak, etab.
1.8_JI	Gizarte-ekonomian ekiteko zentroa sortzea.
1.9_JI	Gizarte-ekonomiako enpresen azeleragailua martxan jartzea.

1.1 ildoaren helburua da gizarte-ekonomiako enpresak eratu daitezzen sustatzea eta enpresa horiek martxan jartzeko sustapen-ekintzak burutzea, enpresa-kudeaketaren arloko jarraipena eta geroko aholkularitza barne hartuta (1.1.2 ekintza). Halaber, planteatzen da oraingo sareari sendotasuna eta sostengua ematea, enpresa-kudeaketa indartuz, laguntza teknikoa emateko sustapen-ildoen bidez; adibidez, merkatu- eta bideragarritasun-azterlanak nahiz kudeaketa- eta merkataritza-planak egiten lagunduz edo gerentziari lagunduz (1.1.3 ekintza).

Abiapuntu gisa, gizarte-ekonomian ekiteko sare bat sortzea aurreikusten da, EAEen ekintzailtza kolektiboa sustatzen ari diren agenteak identifikatu eta elkartzeko (1.1.1 ekintza). Sare hori pertsonak, entitateak eta baliabideak elkartzeko eta lankidetzan aritzeko gunea izango da, eta jardunbide egokiak identifikatzen, sinergiak sortzen eta informazio baliagarria trukatzeko lagunduko du. Halaber, modua emango du Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak garatutako jarduketari ikusgaitasuna emateko (hala nola laguntzei, laguntza juridikoko zerbitzuei, prestakuntzei edo ekintzailtza sustatzeko erremintei), ekosistema antolaketa-logika partekatu batetik indartu dadin.

1.2 ildoak gizarte-ekonomiaren ereduaren dauden edo egon daitezkeen preskriptoreen sarean jartzen du arreta, hau da, ekintzailtza-prozesuaren lehenengo faseetan (informazioa eta orientazioa) esku hartzen duten eragileengan. Haien lana hobeto baliatzea eta ekintzailtza kolektiboa sustatzeko helburuarekin bateratzea da xedea. Ekintzak eremu hauei begirakoak dira:

- Lanbide eta Lanbideren bulego-sarea: Bulegoetako langileei gizarte-ekonomiaren ereduari buruzko ezagutza eta erreminta gehiago ematea proposatzen da (1.2.1 eta 1.2.2 ekintzak), baita ekintzailtza kolektiboko aukerak atzeman eta sustatzeko sensibilizazioa eta proaktibitatea sustatzea ere (1.2.3 ekintza).
- Hezkuntza-sistema: Lankidetzaren egonkorra ezarri nahi da Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren eta hezkuntza-sistemako orientazio-zerbitzuen artean; bereziki, Lanbide Heziketako zentroetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta unibertsitateetan. Horrek bidea jarriko du orientazio akademiko eta profesionaleko prozesuetan sakonago txertatzeko gizarte-ekonomiaren balioak, ereduak eta esperientziak. Era berean, aurreikusten da gizarte-ekonomiak ekintzailtza sustatzeko programetan (hala nola Urratsbat eta Ikas-enpresa programetan edo unibertsitateko hainbat graduondokotan) daukan presentzia areagotzea, hezkuntzako eta enpresa-sustapeneko agenteekin batera analisi bat eginez, jardunbide egokiak identifikatzeko, hutsuneak detektatzeko eta ekintzailtza kolektiboaren aukera ikusgai egingo duten proposamenak garatzeko (1.2.4 ekintza).
- Ekonomia garatzeko lurralde-agentek (tokikoak, eskualdekoak, foralak, BICak): Gizarte-ekonomiaren ereduari balioa emateko duten ahalmena indartzea proposatzen da (1.2.5 ekintza).
- Ekintzailtzari buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzuak ematen dituzten beste agente pribatu batzuk (merkataritza-ganberak, aholkularitza-enpresak, banku-

fundazioak eta abar): Eragile horiekiko lankidetzaren areagotzea planteatzen da, gizarte-ekonomiaren ereduaren preskripzio-eremuak hobetzeko (1.2.6 ekintza).

1.3 ildoak ekintzailetza-prozesuaren fase aurreratuago bati heltzen dio, eta hartzaileak gizarte-ekonomiako egitasmoak sortzen laguntzeko aholkularitza, inkubazio edo bidelaguntza teknikoko zerbitzuak ematen dituzten tarteko agente espezializatuak. Ekosistemara sartzen laguntzeko ildoak ez bezala, ildo honek helburu du esku-hartzearen aniztasun- eta zehaztasun-mailak igotzea, emandako laguntzaren kalitatea hobetuz eta espezializazio handiagoa sustatuz. Halaber, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa sistematizatzea proposatzen da, ziurtatzeko egindako ahaleginak baliagarriak izatea gizarte-ekonomiako balioekin koherenteak izango diren proiektu bideragarriak abiatzeko (1.3.1 ekintza).

1.4 ildoak helburu du enpresa berrietarako aholkularitza- eta laguntza-sare espezializatua zabaltzea, gizarte-ekonomian ekiteko haztegi espezifikoak sustatuz (gehienbat, kooperatibak eta lan-sozietateak). Asmoa da proiektuak abian jartzen laguntzen duten enpresek, udalek, entitate dinamizatzaileek eta, besteak beste, prestakuntza- edo finantzaketa-agenteei elkarlaneko ekosistemak osatzen laguntzea. Horretarako, aurreikusten da eremu eta eskualde berrietara hedatzea lurralde-sustapeneko programa (1.4.1 ekintza), programaren estaldura geografikoa hobetuz eta lurralde bakoitzean inplikaturako eragile guztiak ondo antolatzea ziurtatuz.

1.5 ildoak bidea jartzen du kalitateko enplegu inklusiboa sortzeko, sustatzen baitu kolektibo hauek gizarte-ekonomiako enpresetara langile bazkide gisa sartzea: langabetuak, besteren konturako kontratua duten langile ez-bazkideak, desgaitasuna duten pertsonak eta nekazaritza-kooperatibetara langile bazkide gisa sartzen diren eta nekazaritza-ustategien titularrak diren pertsonak (1.5.1 ekintza). Halaber, aurreikusten du enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen enpleguari eusten laguntzea (1.5.2 ekintza), zentro horietan enplegu egonkorra sortzeko inbertsioei laguntzea (1.5.3 ekintza), laneratze-enpresak sortu eta mantentzeko inbertsioak aktibo finkoetan egitea (1.5.4 ekintza) eta enplegu-zentro berezietan jarduerak profesionalari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak sortzea (1.5.5 ekintza).

1.6 ildoak garrantzia ematen die merkataritza-enpresak eraldatzeko prozesuei (krisiak, birmoldaketak eta abar) eta belaunaldi-erleeboko prozesuei, gizarte-ekonomiaren ereduaren hedatzeko aukera gisa. Prozesu horiek enpresa trinkoak ekar ditzakete, tamaina handikoak, aurrera jarraitzeko aukera handia dutenak eta enplegu asko sortzeko gai direnak. Aukera horiek baliatzeko, giltzarria da gizarte-ekonomia testuinguru horietan presente eta ondo kokatuta egotea. Oraingo programaren irismena zabaltzea proposatzen da (1.6.1 ekintza), bai eta detekzio aurreratuaren mekanismo bat ezartzea ere, preskriptoreen sareak eta elkartze-egiturek osatutako "antena" baten bidez (1.6.2 ekintza).

1.7 ildoak arreta jartzen die ekintzailetza kolektiboko proiektuak sortzeko aukerak dauzkaten ekonomia-sektoreei; aukerak daukate, bai gizarte-ekonomiaren printzipioekin bat datoze-lako (etxebizitzaren eraikuntza eta birgaiketa, zaintza pertsonalak, nekazaritza-sektorea, ekonomia zirkularra...), bai hazteko ahalmen handia daukaten sektore berriak dire-lako (biosanataria, IKT berriak, Big Data, adimen artifiziala eta abar). Eremuotan aukerak identifikatuko dituzten eta proiektu pilotuak bultzatuko dituzten batzorde sektorial tematikoak eratzea proposatzen da (1.7.1 ekintza).

1.8 jarduketaren ildoak helburu du gizarte-ekonomian ekiteko zentro bat sortzea, zeina erreferentzia-gunea izango baita EAEko enpresa-egitasmo kolektibo berriak sustatzeko. Zentro hori laguntza-egitura integral bat izango da, eta konbinaturiko ditu eremu fisikoak, zerbitzu espezializatua eta elkarlaneko sareak, enpresa-zikloaren fasei kritikoenetan laguntzeko pertsona eta talde ekintzaileei.

Lehenengo urratsean, zentroaren bideragarritasun-azterlana eta ereduaren diseinua egingo dira (1.8.1 ekintza), argi zehazteko orientazioa, egitura, finantzaketa eta gobernantza. Ondoren,

eremu fisiko bat prestatuko da (1.8.2 ekintza), bitarteko material egokiak izango dituen, banakako nahiz taldeko jarduerak garatu daitezzen elkarlaneko ingurune profesional batean.

Zentroak laguntza tekniko espezializatua emango du (1.8.3 ekintza), legeei, kontabilitateari, zergei eta antolaketa buruzko aholkularitza-sistema etengabe baten bidez, sektoreko entitate adierazgarriekin lankidetzan arituta, hala nola KONFEKOOP, ASLE eta REAS entitateekin. Bidelaguntza hori osatzeko, prestakuntza-eskaintza etengabea egongo da (1.8.4 ekintza), sustatzaileen kudeaketa-, lidergo- eta jasangarritasun-gaitasunak indartzeko.

Zentroak, bestalde, laguntza finantzarioa emateko zerbitzu bat izango du (1.8.5 ekintza), egitasmo berriei laguntzeko finantzaketa egokia eskuratzen, baliabideak kudeatzen eta hainbat erreminta lortzen (hala nola kreditu txikiak, elkartasun-funtsak edo abal-sistemak). Administrazio-izapideetarako informazio- eta aholkularitza-gune bat ere izango du (1.8.6 ekintza), enpresak eratu eta martxan jartzeko behar den izapide legal eta burokratikoan laguntzeko.

Zentroak, era berean, *networking*-sareak sustatuko ditu (1.8.7 ekintza), loturak sortzeko proiektuen, sektoreko enpresen, laguntza-entitateen, prestakuntza-zentroen eta finantzaketa-agenteen artean.

Azkenik, bidelaguntza-programa integral bat ezarriko da (1.8.8 ekintza) proiektu bakoitzaren lehenengo hiru urteetarako, enpresa berriak sendotzen, egonkortzen eta proiektatzen lagunduko duen arreta pertsonalizatua emateko.

Ekintza multzo horrek palanka estrategiko bihurtzen du 1.8 ildoan, ezinbestekoa gizarte-ekonomiaren balioekin eta praktikekin bat etorriko den ekintzailetza-ekosistema trinko, irisgarri eta eraldatzaile bat egituratzeko.

1.9 jarduketa-ildoak helburu du gizarte-ekonomiako enpresa berriak modu jarraituan sendotuko direla ziurtatzea, hasierako inkubazio-fasea gainditutakoan. 1.8_JIaren osagarri, ildo honek arreta jartzen dio ekintzailetza-zentroaren esparruan sortutako enpresei lehendabiziko lau, bost eta sei urteetan emango zaien bidelaguntza estrategikoari, aldi hori erabakigarria baita antolaketa-, finantzaketa- eta merkataritza-arloetan finkatzeko.

Programa (1.9.1 ekintza) malgutasun- eta pertsonalizazio-irizpideekin diseinatuko da, kontuan hartuta sektoreak, sustapen-profilak eta enpresen ibilbideak askotarikoak direla. Helburu nagusia da laguntza egituratuko bigarren etapa bat eskaintzea, enpresa-sustapeneko prozesutzat hartuta, konbinatuko dituen aholkularitza tekniko espezializatua (1.9.2 ekintza), prestakuntza aurreratua, sare estrategikoetarako sarbidea eta finantzaketa-orientazioa. Bidelaguntza horrek modua emango du enpresek negozio-eredua finkatu, lan-taldeak sendotu, prozesuak profesionalizatu eta garapen autonomo eta jasangarriko oinarri trinkoak sor ditzaten.

Gainera, sareekin eta aliantza estrategikoekin konektatzea sustatuko da (1.9.3 ekintza), gizarte-ekonomiaren ekosisteman bertan nahiz antzeko ekonomia-eremuetan, zertarako-eta lankidetzan aritzeko, berritzeko eta lehiatzeko ahalmena areagotzeko.

Beste hiru urte horietan, egitasmoek laguntza jasoko dute kontu giltzarrietan; adibidez, antolaketa-berrikuntzan, jardueren dibertsifikazioan, merkatuetarako sarbidean, barne-lidergoen erreleboan eta hazteko finantzaketa-bilaketan (1.9.4 ekintza).

Ildoa mailaz mailako ebaluazio-prozesu batekin bukatuko da (1.9.5 ekintza), helburua izaki enpresek erabateko autonomia garatzea bigarren bidelaguntza-zikloa bukatzean. Enpresak, horrela, bizirik irauteaz gainera, eragile garrantzitsuak izango dira, sendoak, eta, epe luzerako

proiektzioa izango dutenez, gizartean eragingo dute, EAEko enpresa-sarean duten eginkizuna berretsiz.

2_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA ETA INTEGRATZEA HEZKUNTZA-ETAPA GUZTIETAN, TARTEAN DIREN ERAGILEEN ARTEAN ETA SEKTOREAN BERTAN.

Plan honen esparruan egindako diagnostikoak agerian jarri du hobetzeko tarte zabalak daudela gizarte-ekonomiak hezkuntza arautuko programetan daukan presentzian, eta, halaber, erakutsi du agente preskriptoreek gabezia handiak dauzkatela ereduaren gaineko ezagutzan. Azken kasu horretan, informazio-hutsuneek askotariko alderdiak biltzen dituzte: araudia, prozedurak, laguntza-mekanismoak, betekizunak, ereduaren arteko desberdintasunak eta abar. Egoera hori oztopoa da ekintzailatza kolektiborako, eredu ezagunagoetarantz edo errazagotzat jotzen diren ereduetarantz bultzatzen dituelako ekintzaileak izan daitezkeen pertsonak.

Planak hutsune hori zuzendu nahi du, ikasleek prestakuntza-ibilbide osoan gizarte-ekonomiaren ereduari buruz eskuratzen duten ezagutza-mailan jardunez, baita ereduaren sustatzen lagundu dezaketen bitarteko agenteen (preskriptoreen) gainean jardunez ere. Halaber, unibertsitateko ikerketa indartu nahi da.

2.1_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza zabaltzea hezkuntza arautuaren etapa guztietan.
2.2_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza egokia ziurtatzea arautu gabeko prestakuntzaren bidez zerikusia duten eragile preskriptoreei
2.3_JI	Unibertsitateen bidez gizarte-ekonomiaren inguruko ikerketa aplikatua, ezagutza eta prestakuntza bultzatzea.
2.4_JI	Ekosistemaren barruan gizarte-ekonomiako prestakuntza bultzatzea.

2.1 ildoak helburu du prestakuntza-etapa desberdinetako ikasleen artean gizarte-ekonomiaren ereduaren inguruko ezagutza hobetzea. Horretarako, gizarte-ekonomiari buruzko hezkuntza-, prestakuntza-, informazio- eta ikerketa-sare bat sortu nahi da, gazteei begirakoa, eremuotan lanean ari diren agenteak elkartuko dituen (2.1.1 ekintza). Sarea baliagarria izango da hezkuntza-entitateak, ikerketa-zentroak, gazteei buruzko programak eta administrazioak elkartu eta lankidetzan aritzeko, jardunbide egokiak identifikatzea, sinergiak sortzea eta baliabideak trukatzeko sustatuko baitu. Halaber, aukera emango du ikusgaitasuna emateko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak sustatutako egitasmoen (hala nola laguntzei, erreminta pedagogikoei edo bidelaguntza-baliabideei).

Sarearen hedapena osatzeko, unitate didaktiko espezifikoak diseinatuko dira (2.1.2 ekintza), hezkuntza-zentroetan esperientzia pilotuak garatuko dira, gizarte-ekonomiari buruzko prestakuntza-planen bidez (2.1.3 ekintza), eta prestakuntza dualeko programak eta praktiketakoak garatuko dira Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleentzat (2.1.4 ekintza). Ekintza horiek beharrezkoa dute Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Hezkuntza Saila elkarlanean aritzea.

2.2 ildoak gizarte-ekonomiaren ereduaren gaineko ezagutza hobetu nahi du, ereduaren sustapenean inplikaturik dauden preskriptoreei zuzendutako prestakuntza ez-arautuaren bidez (2.2.1 ekintza).

2.3 ildoak, berriz, unibertsitateetan gizarte-ekonomiari buruzko ikerketa aplikatua indartzea proposatzen du, sektoreko entitateek beraiek detektatutako arazoak jorratzeko eta etorkizunera begirako proposamenak egiteko (2.3.1 ekintza).

2.4 ildoak, azkenik, gizarte-ekonomiaren eredua osatzen duten pertsonen zuzentzen zaie, eta planteatzen du kideei bideratutako prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzea, zertarako-eta kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko ezagutza hasi, hobetu edo kualifikatzeko bazkideen eremuan (2.4.1 ekintza).

3_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAKO EREDUAREN IKUSGAITASUNA, PERTZEPZIOA ETA GIZARTE-HARMENA HOBETZEA, EREDUA HEDATU ETA SENDOTZEA ERRAZTEKO BITARTEKO GISA, ETA HAREN JARDUERAREN HEDAPENA ZIURTATZEA.

Gizarte-ekonomiaren eredua osatzen duten familia guztiek dute ereduaren ikusgaitasuna handitzeko erronka. Gizartean ospe handiagoa eta harrera hobe edukitzea erabakigarria izan daiteke eredua hedatu eta sendotzeko. Azken batean, gizarte osoak ereduoi aitortza egitea, ereduon ekarpena baloratzea (ekarpen ekonomikoa, soziala eta abar), ereduok ezagutzea eta ereduok dimentsio eta ezaugarri guztiekin identifikatzea da kontua. Ezagutza eta balorazioa hobetzeak berekin ekarriko du emaitza onak lortzea plan honen askotariko xede eta helburuetan, ekintzailetzan, entitateen arteko lankidetzan, gizarte-ekonomiaren funtzionamendu onean eta abarretan.

Gizartearen ezagutza eta aitortza hori sustatze aldera, eredua jendarteratzeko jarduketa-ildo hauek zehaztu ditugu:

3.1_JI	Gizarte-ekonomian garatutako balioak, konpromisoak eta jarduerak zabaltzea.
3.2_JI	Euskadiren erreferentzialtasuna sustatzea munduan, gizarte-ekonomiaren eredua izanik.

3.1 ildoak zenbait jarduketa biltzen ditu, gizarte-ekonomiaren balioak, konpromisoak eta jarduera hedatzera begirakoak, ereduaren aitortza soziala indartzeko eta ereduak ongizate kolektiboari egiten dion ekarpena ikusarazteko.

Lehenengo urrats gisara planteatzen da sortzea gizarte-ekonomiaren ikusgaitasun-, hedapen- eta kontakizun-sare bat, eremuan hainbat ikuspegi eta baliabideekin lan egiten duten agente guztiak elkartzeko (3.1.1 ekintza). Sare hori agenteak koordinatzeko topaleku bat izango da, eta mesede egingo die entitateen arteko loturei, jardunbide egokien identifikazioari, sinergien sorkuntzari eta komunikazio-estrategia partekatu baten eraikuntzari. Halaber, modua emango du elkarrekin sortzeko eta ereduaren kanpo-proiektzioa indartzeko guneak sustatzeko.

Ildo honek hiru ekintza osagarri biltzen ditu:

- Eremuko entitateekin beraiekin narratiba partekatuak sortzea, ereduaren aniztasuna, nortasuna eta eraldaketa-ahalmena islatze aldera (3.1.2 ekintza).
- Gizarte-ekonomiako askotariko familiek ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eremuetan eragiten duten inpaktu positiboa ikusarazteko edukiak eta komunikazio-kanpainak garatzea (3.1.3 ekintza).
- Ekintzailetza kolektiboaren ikusgaitasuna hobetzea, erakutsiz gai dela enplegu egonkorra sortzeko, tokiko eremua garatzeko eta gizartean banatutako aberastasuna sortzeko (3.1.4 ekintza).

3.2 ildoak 3.2.1 ekintza jasotzen du, zeinaren helburua baita gizarte-ekonomiak Euskadi-Basque Country markan eta EAEn partaidetzadun egitasmoetan (garapenerako lankidetz-egitasmoetan) dauzkan presentzia eta ikusgaitasuna sustatzen jarraitzea. Ildo berean, 3.2.2 ekintzak planteatzen du azter dadila premiarik dagoen bereizgarri grafiko ofizial bat sortzeko, EAEko gizarte-ekonomiako entitateak identifikatuko dituen, haien aitortza publikoa eta balio diferentziala indartzeko. Sinbolo horrek konfiantzazko eta kalitateko marka gisa jardungo luke, bat etorrita gizarte-ekonomiaren EAEko ereduaren balioekin, laguntzeko hala kokapen instituzionalari, nola Estatuko eta nazioarteko merkatuetan, sareetan eta foroetan daukan

proiektzioari. 3.2.3 ekintzak ASETT erreminta erabiltzea proposatzen du, lankidetzarako aliantza estrategiko publiko-privatu gisa, helburu baitu gizarte-ekonomia munduan sustatzea eta gizarte-ekonomiari buruz hausnartu, ikertu eta berritzea.

4_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIARI BURUZKO NEURKETA- ETA EZAGUTZA-SISTEMA GARATZEA.

GESPE 2021-2024ren adierazleei egindako diagnostikoak eta jarraipenak agerian jarri dutenez, gizarte-ekonomiari buruzko informazio-sistemak mugak dauzka; hortaz, datu egituratu eta jarraituen sorta zabaldu behar da, dimentsio guztiak ondo ezagutu ahal izan daitezen. Besteak beste, garrantzitsutzat jo dira datu hauek: genero-berdintasunari buruzkoak, 4.0 industriaren ezarpen-mailari buruzkoak, erabilitako kontratu motei buruzkoak, laneko istripu-tasari buruzkoak eta euskararen erabilerari buruzkoak.

Informazio mota hori edukitzeak bidea jarriko luke ereduaren errealitatearen gaineko irudi zehatzagoa edukitzeko, eta, beraz, errazagoa izango litzateke sektoreko agente publiko eta pribatuak esku-hartze egokituagoa egitea eta indarguneetan nahiz ekarpenetan oinarritutako komunikazio-kanpainak egitea.

Ondorioz, planak jarduketa-ildo hau dauka:

4.1_JI	Gizarte-ekonomiari buruzko informazioa hobetzea, antzemandako hutsuneak estaltzea ziurtatzeko.
--------	--

4.1 ildoak helburu du EAEko Gizarte Ekonomiaren Estatistika berrikusi eta osatzea, sektorearen neurketa eta ezagutza hobetuko dituzten eta ereduaren ekarpenei buruzko dibulgazio-mezuak indartzeko oinarri izango diren elementuak sartuz (4.1.1 ekintza). Halaber, planteatzen du gizarte-ekonomiaren ereduak gaineratzen duen balio diferentzialaren neurketa hobetzea, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki, errazago alderatu dadin beste ekonomia-eredu batzuekin (4.1.2 ekintza). Bestetik, proposatzen da gizarte-ekonomiako arlo giltzarrietan aplikatutako ikerketa-programa bat diseinatu eta sustatzea, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren eginkizuna ere aztertuz, joerak, arriskuak eta aukerak detektatzeko eta emaitzak hedatzeko antena gisa (4.1.3 ekintza).

Ekintza horiei, gainera, inpaktu hirukoitza (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) neurtzeko erreminta espezifiko bat garatzeko konpromisoa gehitzen zaie. Erreminta horrek modua emango die sektoreko entitateei modu integratuan ebaluatzeko garapen jasangarriari egiten dioten ekarpena eta, era berean, beste enpresa-eredu batzuetatik bereizten dituzten ekarpenak ikusarazteko (4.1.4 ekintza).

4.1.5 ekintzak helburu du informazioa aztertu eta biltzea, generoaren gaiak EAEko gizarte-ekonomian daukan errealitatea hobeto ezagutzeko.

4.1.6 ekintzak euskarria eman nahi dio asoziazionismoari, gizarte-ekonomia sustatzeko. Sektorearen ordezkagarritasuna bermatzea eta elkartutako entitate eta enpresei euskarria eta zerbitzuak ematea da kontua.

5_ARDATZA ENPRESA-EKIMEN, ENPRESA ETA ENTITATE TXIKI BERRIETARAKO BEHAR DEN FINANTZA-EUSKARRIA EMATEA, MODU BIDERAGARRI ETA JASANGARRIAN SENDOTU DAITEZEN.

Erabilgarri dagoen finantza-euskarria da elementu kritikoenetako bat gizarte-ekonomiaren eremuan proiektu berriak bultzatu eta garatzeko eta jarduera areagotzeko. Hori dela-eta, ardatz

honek arreta jartzen dio beharrezkoa den finantzaketa eskuratzeko moduari, eta jarduketa-ildo hau proposatzen du:

5.1_JI	Gizarte-ekonomiako proiektu berriak eta jarduera berria finantzatzea erraztuko duten aukerak aztertzea.
--------	---

5.1 jarduketa-ildoak lankidetzan oinarritzen da, lankidetzak palankatzen hartuta, gizarte-ekonomiaren eremuan proiektuak finantzatzeko aukerak areagotuko dituzten egitasmoak garatzea sustatzeko. Hala, eremuan gaur egun eskuragarri dauden finantzaketa-tresnak aztertzea planteatzen da (5.1.1 ekintza).

Halaber, proposatzen da aztertzea zer aukera dauden ekintzailatza-proiektuak finantzatzeko edo gizarte-ekonomiako enpresei sendotzen, garatzen edo berridimentsionatzen laguntzeko elkartasun-funtsak edo beste mekanismo batzuk aprobetxatzeko (5.1.2 ekintza).

Era berean, proposatzen da aztertzea nola indartu daitekeen gizarte-ekonomiako enpresa edo entitate txikiei zuzendutako abal- eta berme-sistema, Elkargiren edo beste tresna nahiz agente batzuen bidez (5.1.3 ekintza), eta nola indartu daitekeen langileek enpresetan parte-hartze handiagoa edukitzera begirako funtsen (hala nola Lanpar funtsaren) hedapena eta ezagutza (5.1.4 ekintza).

6_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIARI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOEN EFIZIENTZIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETzea

Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen politiken efizientziari eta efikaziari buruzko ardatzak lau interesgune nagusi biltzen ditu: sektorearen sustapen-lana garatzeko erabilgarri dagoen aurrekontua, ezarri behar diren politiken halabeharrezko zeharkakotasuna, dauden dirulaguntza-lerroen optimizazioa eta errefortzua (dirulaguntza-lerroek bat etorri behar dute helburuekin) eta sektorearekiko lankidetzak publiko-pribatua, hala helburu komunak garatzeko, nola gizarte- eta enpresa-proiektu ugariaren arrakasta bermatzeko.

Esparru honetan, jarduketa-ildo hauek sartzen dira:

6.1_JI	Gizarte-ekonomiaren garapenean inplikaturako Jaurlaritzaren arloetan zeharkakotasun handiagoa sustatzea, bai eta gizarte-ekonomia bultzatzeko erakunde arteko koordinazio handiagoa ere.
6.2_JI	Lankidetzak publiko-pribatua garatzea, sektorearekin batera gizarte-ekonomiaren garapenean lan eginez.

6.1 ildoak, ekintza publikoaren efikazia handitze aldera, sustatzen du zeharkakotasun eta koordinazio handiagoak egotea Eusko Jaurlaritzak gizarte-ekonomian inplikaturako dauzkan arloetan jarduketan. Horretarako, proposatzen du Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Batzordea sendotzea (6.1.1 ekintza) eta batzorde tekniko tematikoak sortzea (6.1.2 ekintza), gizarte-ekonomiaren sustapenari beste politika sektorial batzuekin (hala nola, industriari, berrikuntzari, enpleguari eta hezkuntzari buruzko politikekin) bateratzen lagunduko dioten egitasmo zehatzak garatzeko.

Bestalde, 6.1.3 ekintzak proposatzen du gizarte-ekonomiaren enpresa-ereduak parte hartzea Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Foro Multiagentean eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian.

6.2 jarduketa-ildoak xede du lankidetzak publiko-pribatua garatzea, sektorearekin batera lan eginez, sektoreko elkarte eta entitate esanguratsuekin egindako akordio bidez (6.2.1 ekintza).

7_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAKO PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN ESKARIA BULTZATZEA, EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUAREN BIDEZ

Kontratazio publikoa faktore erabakigarria da ekonomia-jarduera eta, oro har, enplegua sortzeko; bereziki, gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen eremuan. Ardatz honek helburu du palanka hori aprobetxatzea, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta toki-administrazioen erosketara publiko arduratsuko askotariko formulak sustatuz eta erabiliz.

Horrela, handitu egingo da laneratze-enpresek eta enplegu-zentro bereziek eskainitako ondasunen eta zerbitzuen eskaria, eta, beraz, mesede egingo zaie laneratzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonei.

7.1_JI	Kontratazio publiko arduratsua sustatzea.
7.2_JI	Enplegu-zentro berezietarako eta gizarteratzeko enpresetarako ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa sustatzea.
7.3_JI	Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko araudia betetzearen jarraipena bultzatzea.

7.1 ildoaren barruan, 7.1.1 ekintzak helburu du hobetzea kontratazio publiko erreserbatuak, klausula sozialek eta erabilgarri dauden beste tresna batzuek dauzkaten ahalmenei buruzko ezagutza, mintegien, lantegien eta beste prestakuntza-jarduera batzuen bidez. Nabarmentzekoa da EGESek denbora daramala eremu horretan lanean eta, horrenbestez, ekintza horrek ildoan sakontzea duela xede. Halaber, bestelako egitasmoak bultzatzea litezke, xede dutenak jardunbide egoki kopiagarriak hedatzea eta klausula sozialen inaktuaren aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Hurrengo bi ekintzek arreta jartzen diote kontratu erreserbatuen askotariko formulen sustapenari, zeinak jasotzen baitira Sektore Publikoko Kontratuen Legean:

7.1.2 ekintzak proposatzen du sustatzea kontratu jakin batzuk edo haien sorta batzuk esleitzea enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresa erregulatuei, bat etorrita lege horren laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

7.1.3 ekintzak planteatzen du betekizun jakin batzuk (gizarte-ekonomiako entitateen berezko ezaugarriekin bat datozenak) betetzen dituzten antolakunde zehatz batzuei gordetzea eskubidea zerbitzu-kontratu sozial, kultural eta sanitarioen lizitazio-prozeduretan parte hartzeko, lege horren 48. xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera.

7.1.4 ekintzak, bestalde, sustatzen du Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aitortzen dituen zenbait irizpide eta erreminta (hala nola klausula sozialek eta beste neurri batzuk) aplikatu daitezela, gizarte-ekonomiako enpresei eta entitateei laguntzeko sartzen kontratazio publikora (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1.3 artikulua).

7.2 ildoan, sustatzen da enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei kontratatzea ondasunak eta zerbitzuak, kontratu erreserbatuak sustatuz, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin (7.2.1 ekintza).

Azkenik, **7.3 ildoak** proposatzen du indartu dadila 50 langileko edo gehiagoko enpresetako lanpostuen % 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonekin betetzeko betebeharra saihesteko neurri alternatiboen gaineko kontrola, enplegu-zentro berezietan eta laneratze-enpresetan jarduera gehiago sortzeko bide gehigarri gisara (7.3.1 ekintza).

8_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAREN ESPARRU JURIDIKOA AZTERTZEA ETA GARATZEA, HAREN HEDAPENA MUGATZEN DUTEN OZTOPOAK EZABATZEKO

8_ardatzak gizarte-ekonomiaren esparru juridikoa egokitu eta sinplifikatzeko beharrari erantzuten dio, eremuko enpresen eta entitateen (bereziki, kooperatiben eta lan-sozietateen) eraketarekin, martxan jartzearekin eta funtzionamenduarekin lotuta dauden administrazio-prozeduretan oztopoak eta botila-lepoak desagerrarazteko helburuz.

8.1_JI	Euskadiko Kooperatiben Legea aztertu eta garatzea.
8.2_JI	EAEko gizarte-ekonomiari eragiten dioten garapen juridikoak aztertzea eta haietan parte hartzea.

8.1 ildoak helburu du Euskadiko Kooperatiben Legea aztertu eta garatzea, zertarako-eta Legearen hedapenean aurrera egiteko, legearen aplikazio praktikoa eguneratzeko eta legea sektoreko oraingo erronketara gehiago egokitzeko. Ardatz arautzaile honek esparru argi, irisgarri eta errealitate sozial, ekonomiko eta teknologiko berrietara egokituago bat eman nahi dio EAEko kooperatibismoari.

Testuinguru horretan, Kooperatiben Erregelamendua arautzen duen Dekretua argitaratu da jada; pieza giltzarria da hori, legearen printzipioak eta xedapenak benetan bihur daitezen kooperatiben jarduerari lagunduko dioten prozedura zehatz eta operatibo. Orain, Kooperatiben Erregistroaren Dekretua (erregistro-orria) garatzea sustatuko da (8.1.1 ekintza). Halaber, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen duen Dekretua garatzea sustatuko da, oraingo lege-esparruarekin bat etorrita eguneratu daitezen haren funtzionamendua, eskumenak eta egitura (8.1.2 ekintza).

Ildoak, halaber, ekitate-ikuspegia dauka, barruan jasotzen baitu Kooperatiben Legearen arau-garapenean genero-ikuspegia txertatzeko ekintza espezifiko bat, bermatzeko xedapenek benetan laguntzea kooperatiba-ereduaren barruan berdintasun erreal eta eraginkorra lortzen (8.1.3 ekintza).

Era berean, autonomia-erkidegoan dauden arauzko oztopoak identifikatuko dira, eta aurrera egingo da administrazio-prozeduren digitalizazioan, izapideak arintzeko eta zama burokratikoak murrizteko, zaildu egiten baitute kooperatibak eta gizarte-ekonomiako beste entitate batzuk sortzea, eraldatzea edo garatzea (8.1.4 ekintza).

Amaitzeko, entitateen funtzionamendua, eskumenak eta egitura lege-esparru berriaren arabera eguneratzeko xedez, planteatzen da otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua (onura publikoko sozietate kooperatiboak kalifikatu, inskribatu eta funtzionatzeko prozedurak eta betekizunak arautzen ditu EAEn) eta apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua (gizarte-ekimeneko kooperatibak arautzen ditu) aldatzea (8.1.5 ekintza).

8.2 ildoak helburu du Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak parte hartzea EAEko gizarte-ekonomiaren enpresa-ereduari eragiten dioten arau estatalen analisian eta arau-garapenean. Bereziki, hauek nabarmentzen dira:

- Lan Sozietateen Legearen erreforma sustatzea (8.2.1 ekintza).
- Europar lan-sozietateen lege bat sustatzea, haien nazioarteko presentzia eta eginkizuna indartzeko (8.2.2 ekintza).
- Enplegu-zentro berezien sektorearekin lankidetzan aritzea, eragiten dieten analisi eta garapen juridiko estataletan (8.2.3 ekintza).
- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eta eraldatzeko pizgarriak kentzen dituzten oztopo juridikoak aztertzea Estatuko araudian. Notarriotzen, Lan Sozietateen

Erregistroaren eta Merkataritza Erregistroaren arteko prozeduren eta komunikazioaren digitalizazioa indartzea, izapideak ahalik eta gehien arintzeko (8.2.4 ekintza).

- Lan Sozietateen Erregistroari buruzko Dekretua, arreta berezia jarrita prozeduren digitalizazioaren sustapenari (8.2.5 ekintza).

9_ARDATZA GIZARTE-EKONOMIAKO FAMILIEN ARTEKO ALIANTZAK ETA OSAGARRITASUNAK BULTZATZEA, EGES-EN BIDEZ, LANKIDETZARAKO TOPALEKU GISA

Gizarte-ekonomiak hainbat familia hartzen ditu barruan; ezaugarri desberdin samarrak dauzkaten arren, pertsonen eta haien ingurunearen zerbitzurako zenbait balio eta jarduketa-printzipio partekatzen dituzte. Oinarri komun horrek modua ematen du sinergiak eta jarduketa-eremu partekatuak ezartzeko eta, horrela, gizarte-ekonomia osatzen duten segmentu guztientzako onurak sortzeko.

Testuinguru horretan, 9. ardatza hiru jarduketa-ildotan egituratzen da:

- Lehenengoak helburu du gizarte-ekonomiako askotariko familien artean lankidetzak akordioak egin daitezen sustatzea, bereziki EGES – Euskal Gizarte Ekonomia Sarearen bidez, gure gizartean gizarte-ekonomiaren balioak eta praktikak sustatu eta garatzeko lankidetzagune gisa.
- Bigarrenak sustatzen du EAEko gizarte-ekonomia nazioarteko sareetan eta proiektuetan (gizarte-ekonomia sustatu eta garatzekoetan) modu aktiboan egotea.
- Eta hirugarrenak helburu du gizarte-ekonomiako entitateen arteko lankidetzak indartzea.

9.1_JI	Gizarte-ekonomiako familien arteko lankidetzak akordioak sustatzea.
9.2_JI	EAEko gizarte-ekonomiaren presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatzea nazioarteko sare eta proiektuetan.
9.3_JI	Gizarte-ekonomiaren alorreko entitateen arteko lankidetzak areagotzea.

9.1 ildoak bi ekintzatan antolatuta dago. Lehenengoak bilatzen du EGESek gizarte-ekonomiako familien kezken eta premien bozeramaile gisa daukan eginkizuna indartzea, politika publikoak formulatzen lagundu dezan eta, halaber, elkartzeko nahiz erronka komunak (Garapen Jasangarrirako Helburuak, berrikuntza, digitalizazioa, belaunaldi-erlebea eta abar) identifikatzeko gune bat sortzen lagundu dezan (9.1.1 ekintza). Bigarren ekintzak, modu espezifikoagoan, helburu du esploratzea lankidetzarako zer aukera dauden laneratze-enpresen, enplegu-zentro berezien, kooperatiben eta lan-sozietateen artean, enplegu babestutik enplegu arrunterako trantsizioa sustatzeko xedez (9.1.2 ekintza).

9.2 ildoak 9.2.1 ekintza biltzen du, zeinak helburu baitu bermatzea gizarte-ekonomiako enpresek eta entitateek presentzia instituzional eta sektoriala edukitzea Europan eta nazioartean sektorea garatzeko abiatzen diren programetan, sareetan eta egitasmoetan. ASETTekin, aliantza estrategiko gisa.

9.3 jarduketa-ildoak, berriz, helburu du gizarte-ekonomiako entitateen arteko lankidetzak indartzea, bai haien elkartze-egiturei lagunduz Administrazioarekin aritzeko solaskideak izaten (9.3.1 ekintza), bai lankidetzak aukera berriak miatuz sektorearen eta Administrazio Publikoaren artean (9.3.2 ekintza).

10_ARDATZA LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEA

10_ardatzak proposatzen du langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea, jarduketa-ildo honen bidez:

10.1_JI	Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzeko mugarri zehatzak ezartzea
---------	--

10.1 ildoak helburu du mugarri espezifikoak zehaztu eta garatzea, langileek enpresa-bizitzan parte hartzea sustatzeko. Horretarako, hau aurreikusten da:

- Helburu horretara bideratutako planak eta erremintak egin eta ezartzea (10.1.1 ekintza).

7.2. Planaren laburpen egituratua

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
0_HELB	GIZARTE-EKONOMIA, XXI. MENDEKO ERRONKEI AURRE EGITEKO ERANTZUN ETIKO, PRAKTIKO ETA EGITURAZKOA	
0_ARDATZA	NAZIOARTEKO AHOIKULARITZA-KONTSEILUAK ZEHAZTUTAKO GIZARTE-EKONOMIAREN CORPUS FILOSOFIKOA GARATZEA	
0.1_JI	Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluak emandako <i>humanity</i> kontzeptu orokorrak garatzea	
0.2_JI	Nazioarteko Aholkularitza Kontseiluak emandako <i>humanity</i> kontzeptu espezifikoak garatzea	
1_HELB	EKINTZAILTZA KOLEKTIBOA GARATZEA	
1_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO EKINTZAILTZA BULTZATZEA, DAUDEN ENPRESAK INDARTZEA ETA INFORMATZAILEEN ETA PRESKRIPTOREEN SAREA ETA AHOIKULARITZA-ZERBITZUAK HOBETZEA	
1.1_JI	Gizarte-ekonomiako enpresa gehiago eta hobeak sortzea, daudenak sendotzea eta enplegua handitzen laguntzea	
1.1.1_ekin tza	Gizarte-ekonomian ekintzailtza-sare bat sortzea	GE Zuz.
1.1.2_ekin tza	Gizarte-ekonomiako enpresen eraketa sustatzea eta enpresa mota horien eraketarekin lotutako sustapen-ekintzei bide ematea	GE Zuz.
1.1.3_ekin tza	Gizarte-ekonomian dauden enpresak sendotzea, enpresa-kudeaketa indartuz, laguntza teknikoak erraztuko duten sustapen-ildoen bidez	GE Zuz.
1.2_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduak preskriptoreen sarea optimizatzea eta osatzea, tresnak emanez (informazioa eta ezagutza), ekintzailtza kolektiborako ibilbideetara sartzeko ateak izan daitezzen	
1.2.1_ekin tza	Lanbideko langileen prestakuntzara bideratutako eduki espezifikoak hobetzea	GE Zuz., Lanbide
1.2.2_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren ereduak ezartzea eta baloratzea Lanbidek ematen dituen informazio-, orientazio- eta prestakuntza-zerbitzuetan (aurrez aurreko bulegoak eta etorkizuneko bulego birtualak)	GE Zuz., Lanbide
1.2.3_ekin tza	Lanbidek banakako egitasmoak batu daitezzen sustatzea, ekintzailtza kolektiboa bultzatzeko	GE Zuz., Lanbide
1.2.4_ekin tza	Gizarte-ekonomiak hezkuntza-orientazioan eta -programetan daukan presentzia areagotzea, Lanbide Heziketako zentroekin, institutuekin eta unibertsitateekin aliantzak eginez	GE Zuz., Lanbide, Hezkuntza Saila
1.2.5_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren ereduaren balioa indartzea lurraldeko agenteen artean (tokikoak, eskualdekoak, foralak, BICak...)	GE Zuz.
1.2.6_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren ereduaren balioa indartzea ekintzailtzara lotutako beste agente batzuen artean (merkataritza-ganberak, aholkularitza-enpresak, banku-fundazioak eta abar)	GE Zuz.

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
1.3_JI	Gizarte-ekonomiako enpresak sustatzera berariaz bideratzen diren entitateen lana optimizatzea	
1.3.1_ekin tza	Urteko helburuak ezartzea, gizarte-ekonomiako enpresen sustapenean eta bidelaguntzan inplikatura dauden entitateekin adostuta	GE Zuz.
1.4_JI	Gizarte-ekonomiako enpresa berriei aholkularitza eta laguntza emateko sarea zabaltzea, gizarte-ekonomiako berariazko ekintzailatza-haztegiak bultzatuz	
1.4.1_ekin tza	Lurralde Sustapen Planifikatuko Programa hedatzea beste eremu eta eskualde batzuetara, ezagutza, finantzaketa, lurraldeko enpresak eta entitate sustatzaileak/dinamizatzaileak batu daitezen	GE Zuz.
1.5_JI	Gizarte-ekonomiako entitateak indartzea, kalitateko enplegu inklusiboa sortuz	
1.5.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiako enpresetara langile bazkide gehiago sartzea, enpresen bazkide-oinarria zabaltzeko	GE Zuz.
1.5.2_ekin tza	Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonekin betetako lanpostuak mantendu daitezen sustatzea	Lanbide
1.5.3_ekin tza	Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileentzako lan egonkorra sortzeko inbertsioei laguntzea	Lanbide
1.5.4_ekin tza	Laneratze-enpresei sortzen eta irauten laguntzea, 162/2023 Dekretuarekin arabera	Lanbide
1.5.5_ekin tza	Enplegu-zentro berezien jardura profesionalari laguntzeko unitateak finantzatzen laguntzea, 152/2023 Dekretuaren arabera	Lanbide
1.6_JI	Enpresen eraldaketa-prozesuetan (krisiak, birmoldaketak, etab.) eta belaunaldi-erleboan arreta jartzea, gizarte-ekonomian enpresa berriak integratzeko bide gisa	
1.6.1_ekin tza	Merkataritza-enpresak kooperatiba edo lan-sozietate bihurtzeko programa (laguntza eta tutoretza)	GE Zuz., Ekonomiar en Garapena
1.6.2_ekin tza	Preskriptore-sarearen informazioan oinarrituta besteak beste eraldaketa-, oinordetza- eta birmoldaketa-prozesuak goiz detektatzeko antena, elkarte-egiturek esku hartzeko aukerarekin	GE Zuz., Ekonomiar en Garapena
1.7_JI	Aukera-guneak baliatzea gizarte-ekonomiako proiektu eta enpresa berriak bultzatzeko: etxebizitza, zainketa pertsonalak, ekonomia zirkularra, landa-nekazaritza-Km0 sektorea, energia-komunitateak, plataforma digitalak, finantza etikoak, etab.	
1.7.1_ekin tza	Batzorde sektorial tematikoak eratzea, proiektu pilotuak sustatzeko	GE Zuz.
1.8_JI	Gizarte-ekonomian ekiteko zentroa sortzea	
1.8.1_ekin tza	Ekintzailatza-zentroaren ereduaren bideragarritasuna eta diseinua aztertzea	GE Zuz.
1.8.2_ekin tza	Toki fisiko bat eta bitarteko materialak ematea	GE Zuz.
1.8.3_ekin tza	Laguntza teknikoa eta bidelaguntza espezializatua	GE Zuz. GE ekosistema

1.8.4_ekin tza	Enpresa-kudeaketari eta -eskumenei buruzko prestakuntza	GE Zuz. GE ekosistema
KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
1.8.5_ekin tza	Finantzaketarako eta finantza-laguntzarako sarbidea	GE Zuz. GE ekosistema
1.8.6_ekin tza	Administrazio-izapideetarako informazio- eta aholkularitza-gunea	GE Zuz.
1.8.7_ekin tza	<i>Networkinga</i> eta elkarlaneko ekosistema sustatzea	GE Zuz.
1.8.8_ekin tza	Lehenengo hiru urteetan proiektuei laguntzeko programa integrala	GE Zuz. GE ekosistema
1.9_JI	Gizarte-ekonomiako enpresen azeleragailua martxan jartzea	
1.9.1_ekin tza	Enpresak sustatzeko azelerazio-programa diseinatzea	GE Zuz. GE ekosistema
1.9.2_ekin tza	Bigarren zikloan laguntzeko bidelaguntza tekniko espezializatua	GE Zuz. GE ekosistema
1.9.3_ekin tza	Sare estrategikoetarako eta enpresarteko aliantzetarako sarbidea	GE Zuz. GE ekosistema
1.9.4_ekin tza	Hazteko finantzaketari eta berrinbertsioari laguntzea	GE Zuz. GE ekosistema
1.9.5_ekin tza	Enpresa-autonomiaren jarraipena, ebaluazioa eta bidelaguntza	GE Zuz. GE ekosistema
2_HELB	GIZARTE-EKONOMIAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA GARATZEA	
2_ARDATZAK	GIZARTE-EKONOMIAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA ETA INTEGRATZEA HEZKUNTZA-ETAPA GUZTIAN, TARTEAN DIREN ERAGILEEN ARTEAN ETA SEKTOREAN BERTAN	
2.1_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza zabaltzea hezkuntza arautuaren etapa guztietan	
2.1.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren inguruko hezkuntza-, prestakuntza- eta informazio- sare bat sortzea, ikerketa eta gazteria ere sartuta	GE Zuz.
2.1.2_ekin tza	Unitate didaktiko egokiak diseinatzea eta prestakuntza-jarduerak sistematizatzea, bai curriculumekoak, bai curriculumetik kanpokoak (topaketak, jardunaldiak...)	GE Zuz., Hezkuntza Saila
2.1.3_ekin tza	Esperientzia pilotuak diseinatzea ikastetxeetan, ikastetxeen beharrezanean erantzungo dien gizarte-ekonomiako prestakuntza-plan bat garatzeko	Hezkuntza Saila
2.1.4_ekin tza	Gizarte-ekonomiako enpresetan prestakuntza dualeko programak eta praktikak garatzea Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleentzat, eredu sozialera eta ekintzailetzara hurbildu daitezen	Hezkuntza Saila
2.2_JI	Gizarte-ekonomiaren ereduaren ezagutza egokia ziurtatzea arautu gabeko prestakuntzaren bidez zerikusia duten eragile preskriptoreei	
2.2.1_ekin tza	Administrazio Publikoaren prestakuntza-planetan (IVAP) gizarte-ekonomia txertatzea	GE Zuz., IVAP
2.3_JI	Unibertsitateen bidez gizarte-ekonomiaren inguruko ikerketa aplikatua, ezagutza eta prestakuntza bultzatzea	

2.3.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiako entitateek detektatutako arazoak aztertzea, GE Zuz. unibertsitateetako gizarte-ekonomiako institutu kooperatiboen ikerketen bidez, eta etorkizunerako proposamenak egitea
----------------	--

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNAK
2.4_JI	Ekosistemaren barruan gizarte-ekonomiako prestakuntza bultzatzea	
2.4.1_ekin tza	Prestakuntza espezifiko eta bereiziko ekintzei laguntzea gizarte-ekonomiaren enpresa-ereduaren barruan	GE Zuz.
3_HELB	GIZARTE-EKONOMIAREN KONTAKIZUNA GARATZEA	
3_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO EREDUAREN IKUSGAITASUNA, PERTZEPZIOA ETA GIZARTE-HARMENA HOBETZEA, EREDUA HEDATU ETA SENDOTZEA ERRAZTEKO BITARTEKO GISA, ETA HAREN JARDUERAREN HEDAPENA ZIURTATZEA	
3.1_JI	Gizarte-ekonomian garatutako balioak, konpromisoak eta jarduera zabaltzea	
3.1.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren ikusgaitasun-, hedapen- eta kontakizun-sare bat sortzea	GE Zuz.
3.1.2_ekin tza	Kontakizuna sortzea. Narratiba partekatuak: Eremuko entitateekin batera kontakizunak sortzea, entitateon aniztasuna eta ahalmena islatzeko	GE Zuz. GE ekosistema
3.1.3_ekin tza	Gizarte-ekonomiako askotariko familien inpaktu positiboa ikusarazteko eta gizartean gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna indartzeko edukiak eta kanpainak sortzea	GE Zuz. GE ekosistema
3.1.4_ekin tza	Zabalkundea: ekintzailatza kolektiboaren ikusgaitasuna hobetzea, enplegua eta aberastasuna sortzeko formula gisa	GE Zuz., EKGK
3.2_JI	Euskadiren erreferentzialtasuna sustatzea munduan, gizarte-ekonomiaren eredia izanik	
3.2.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiak Basque Country markan eta garapenerako lankidetzaregitasmoetan dauzkan presentzia eta ikusgaitasuna lantzea	EG Zuz., Lehendakaritza
3.2.2_ekin tza	EAEko gizarte-ekonomia ezagutzeko bereizgarri grafiko bat (logoa/marka) behar den aztertzea	EG Zuz.
3.2.3_ekin tza	ASETT erreminta erabiltzea, aliantza estrategiko gisa	GE Zuz.
4_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIARI BURUZKO NEURKETA- ETA EZAGUTZA-SISTEMA GARATZEA	
4.1_JI	Gizarte-ekonomiari buruzko informazioa hobetzea, antzemandako hutsuneak estaltzea ziurtatzeko	
4.1.1_ekin tza	EAEko Gizarte Ekonomiaren Estatistika berrikusi eta osatzea, ereduaren ekarpenei buruzko dibulgazio-mezuak indartzeko	GE Zuz.
4.1.2_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren ereduaren diferentziala hobeto neurtzea	GE Zuz., GE ekosistema
4.1.3_ekin tza	Ikerketa aplikatuko programa bat diseinatu eta sustatzea gizarte-ekonomiako arlo espezifikoetan (berdintasuna, istripu-tasa eta abar) eta Gizarte Ekonomiaren Behatokiak ereduari eragiten dioten joerak atzemateko antena gisa eta ereduaren errealitatea aztertzeke tresna gisa daukan eginkizuna aztertzea	GE Zuz.
4.1.4_ekin tza	Inpaktu hirukoitza (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) neurtzeko erreminta bat garatzea	GE Zuz.

EAEko Gizarte Ekonomiaren
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

4.1.5_ekin tza	Informazioa aztertu eta biltzea, generoak gizarte-ekonomian zer errealitate GE Zuz., daukan ikusteko: eskumen-profilak, zuzendaritza-postuak, erabakiguneak... Emakunde
4.1.6_ekin tza	Asoziazionismoari euskarria ematea, gizarte-ekonomiako enpresak GE Zuz. sustatzeko

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
4_HELB	GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN/ENTITATEEN FINANTZAKETARAKO SARBIDEA ZIURTATZEA ETA ZABALTZEA, ETA EREDUARI KOHESIOA ETA ERAKARGARRITASUNA EMATEA, LANKIDETZAREN BIDEZ	
5_ARDATZA	ENPRESA-EKIMEN, ENPRESA ETA ENTITATE TXIKI BERRIETARAKO BEHAR DEN FINANTZA-EUSKARRIA EMATEA, MODU BIDERAGARRI ETA JASANGARRIAN SENDOTU DAITEZEN	
5.1_JI	Gizarte-ekonomiako proiektu berriak eta jarduera berria finantzatzea erraztuko duten aukerak aztertzea	
5.1.1_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren eremuan dauden finantzaketa-tresnak aztertzea	GE Zuz.
5.1.2_ekin tza	Finantzaketa-tresna bat diseinatzea, elkartasun-funtsak eta bestelako iturriak bideratzeko gizarte-ekonomiako proiektu berriak sustatzera eta dauden enpresak indartzera	GE Zuz., GE ekosistema
5.1.3_ekin tza	Aztertzea nola indartu daitekeen gizarte-ekonomiako enpresa edo entitate txikiei zuzendutako abal- eta berme-sistema, Elkargiren edo beste tresna nahiz agente batzuen bidez	GE Zuz., GE ekosistema
5.1.4_ekin tza	Langileek enpresetan parte hartzea sustatzeko dauden funtsen gaineko ezagutza areagotzea (Lanpar funtsa)	GE Zuz., ASLE
5_HELB	SAILARTEKOTASUNA BERMATZEA	
6_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIARI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOEN EFIZIENTZIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA	
6.1_JI	Gizarte-ekonomiaren garapenean inplikaturako Jaurlaritzaren arloetan zeharkakotasun handiagoa sustatzea, bai eta gizarte-ekonomia bultzatzeko erakunde arteko koordinazio handiagoa ere	
6.1.1_ekin tza	Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Batzordea sendotzea, gizarte-ekonomiaren sustapena bat etor dadin industriaren, berrikuntzaren, enpleguaren, hezkuntzaren eta abarren arloetako politikarekin	GE Zuz.
6.1.2_ekin tza	Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzan batzorde tekniko tematikoak sortzea gizarte-ekonomiarekin lotura estua daukaten eremuen eta politiken arduradunekin	GE Zuz.
6.1.3_ekin tza	Gizarte-ekonomiaren enpresa-ereduak parte hartzea Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Foro Multiagentean eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian	GE Zuz., Lehendakaritza
6.2_JI	Lankidetzak publiko-pribatua garatzea, sektorearekin batera gizarte-ekonomiaren garapenean lan eginez	
6.2.1_ekin tza	Gizarte-ekonomia sustatzea, sektoreko elkarte eta entitate esanguratsuekin akordioak eginez	GE Zuz.

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
7_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN ESKARIA BULTZATZEA, EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUAREN BIDEZ	
7.1_JI	Kontratazio publiko arduratsua sustatzea	
7.1.1_ekin tza	Kontratazio publiko erreserbatuak, klausula sozialek eta erabilgarri dauden beste tresna batzuek dauzkaten ahalmenei buruzko ezagutza hobetuko duten egitasmoak sustatzea	Ekonomia eta Ogasun Saila
7.1.2_ekin tza	Zerbitzu jakin batzuen kontratu erreserbatuak sustatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. xedapen gehigarriaren arabera	Ekonomia eta Ogasun Saila
7.1.3_ekin tza	Sektore Publikoko Kontratuen Legeak jasotzen dituen irizpideen eta erreminten aplikazioari bide ematea, gizarte-ekonomiako enpresek/entitateek kontratazio publikorako sarbidea izan dezaten (klausula sozialak eta beste batzuk) (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1.3 artikulua)	Ekonomia eta Ogasun Saila
7.2_JI	Enplegu-zentro berezietarako eta gizarteratzeko enpresetarako ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa sustatzea	
7.2.1_ekin tza	Laneratze-enpresei eta enplegu-zentro bereziei erreserbatutako kontratuak sustatzea (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 4. xedapen gehigarria)	Ekonomia eta Ogasun Saila
7.3_JI	Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko araudia betetzearen jarraipena bultzatzea	
7.3.1_ekin tza	Lanpostuen % 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonekin betetzeko betebeharra saihesteko neurri alternatiboen gaineko kontrola hobetzea	Laneko Zuzendaritza eta Lan Ikuskaritza, Lanbide
8_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAREN ESPARRU JURIDIKOA AZTERTZEA ETA GARATZEA, HAREN HEDAPENA MUGATZEN DUTEN OZTOPOAK EZABATZEKO	
8.1_JI	Euskadiko Kooperatiben Legea aztertu eta garatzea	
8.1.1_ekin tza	Kooperatiben Erregistroaren Dekretua (erregistro-orria) garatzen jarraitzea, bat etorrita Kooperatiben Legearekin	GE Zuz.
8.1.2_ekin tza	EKGK arautzen duen Dekretua garatzea, bat etorrita Kooperatiben Legearekin	GE Zuz.
8.1.3_ekin tza	Kooperatiben Legea berdintasun-arloan garatzea	GE Zuz.
8.1.4_ekin tza	Autonomia-erkidegoko araudian dauden oztopoak eta digitalizazio-premiak detektatzea, izapidea arintzeko	GE Zuz.
8.1.5_ekin tza	Onura publikoko sozietate kooperatiboei eta gizarte-ekimeneko kooperatibei buruzko Dekretuak berrikustea	GE Zuz.
8.2_JI	EAEko gizarte-ekonomiari eragiten dioten garapen juridikoak aztertzea eta haietan parte hartzea	
8.2.1_ekin tza	Lan Sozietateen Legea aldatzen laguntzea eta aldaketa sustatzea	GE Zuz.
8.2.2_ekin tza	Lan-sozietateek European duten presentzia indartzea, European lan-sozietateei buruzko lege bat egin dadin sustatuz, nazioartean daukaten garrantzia nabarmentzeko	GE Zuz.
8.2.3_ekin tza	Enplegu-zentro berezien sektorearekin lankidetzan aritzea Estatuan gizarte-ekonomiari buruzko legediari egiten zaizkion analisietan eta garapen juridikoetan	GE Zuz., Gizarte Politiketako Zuz., Lanbide

EAEko Gizarte Ekonomiaren
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

8.2.4_ekin tza	Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eta eraldatzeko pizgarriak kentzen dituzten oztopo juridikoak aztertzea (Estatuko araudia: zorraren deribazioa, langabeziaren kapitalizazioa, Konkurtso Legea...)	GE Zuz.
8.2.5_ekin tza	Lan Sozietateen Erregistroaren Dekretua berrikustea	GE Zuz.

KODEA	HELBURUAK/ARDATZAK/JARDUKETA-ILDOAK/EKINTZAK	AGENTE ARDURADUNA K
9_ARDATZA	GIZARTE-EKONOMIAKO FAMILIEN ARTEKO ALIANTZAK ETA OSAGARRITASUNAK BULTZATZEA, EGES-EN BIDEZ, LANKIDETZARAKO TOPALEKU GISA	
9.1_JI	Gizarte-ekonomiako familien arteko lankidetza-akordioak sustatzea	
9.1.1_ekin tza	EGESen lana sustatzea, familiak elkartzeko nahiz erronka komunak (Garapen Jasangarrirako Helburuak, berrikuntza, digitalizazioa, belaunaldi-erreleboa eta abar) identifikatzeko gune gisa	GE Zuz., EGES
9.1.2_ekin tza	Laneratze-enpresen eta enplegu-zentro berezien eta kooperatiben eta lan-sozietateen arteko lankidetza miatzea, enplegu babestutik arruntera igarotzea sustatzeko	GE Zuz., EGES
9.2_JI	EAEko gizarte-ekonomiaren presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatzea nazioarteko sare eta proiektuetan.	
9.2.1_ekin tza	Ziurtatzea gizarte-ekonomiako enpresek eta entitateek presentzia instituzional eta sektoriala edukitzea Europan eta nazioartean sektorea garatzeko abiatzen diren programetan, sareetan eta egitasmoetan. ASETTekin, aliantza estrategiko gisa.	GE Zuz.
9.3_JI	Gizarte-ekonomiaren alorreko entitateen arteko lankidetza areagotzea.	
9.3.1_ekin tza	Elkartze-egiturei laguntzea Administrazioarekin aritzeko solaskideak izaten, lankidetza indartzeko	GE Zuz.
9.3.2_ekin tza	Sektorearekin batera aztertzea beste lankidetza-aukera batzuk	GE Zuz.
6_HELB	LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEA	
10_ARDATZA	LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEA	
10.1_JI	Langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzeko mugarri zehatzak ezartzea	
10.1.1_ekin tza	Sustatzea langileek enpresetan parte hartzea sustatzeko planak egin eta ezar daitezen eta parte hartzen lagunduko duten metodoak eta erremintak garatu eta ezar daitezen	GE Zuz.

PLANAREN AURREKONTUA

8. GESPE 2026-2029REN AURREKONTUA

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa ezartzeko, planaren eraldaketa-asmoarekin bat datorren aurrekontu-konpromisoa behar da. Atal honetan, hamaika jarduketa-ardatzetako bakoitzari esleitutako baliabideen zenbatespena jasotzen da, planean jasotzen diren ildoak eta ekintzak pixkaka eta modu jarraituan garatzea bermatzeko.

Aurrekontuaren banaketak argi erakusten du zer jarduketa-eremuri eman zaien lehentasuna, baliabide asko bildu baitira ekintzailatza sustatzeko, enpresak indartzeko eta laguntza-sistema hobetzeko lanetan. Halaber, beste alderdi giltzarri batzuen artean, hauek indartzera bideratu dira zenbait partida: prestakuntza, ereduaren ikusgaitasuna, finantzaketa-euskarria, ezagutzaren sorkuntza, sektorearen barne-kohesioa eta langileen parte-hartzea.

Taula honetan, 2026-2029ko aldirako zenbatetsitako guztizko aurrekontua aurkezten da, ardatzen eta urteen arabera banakatuta:

KODEA	AURREKONTUA, GUZTIRA	2026KO AURREKONTUA	2027KO AURREKONTUA	2028KO AURREKONTUA	2029KO AURREKONTUA
0_ARDATZA	2.400.000,00	600.000,00	600.000,00	600.000,00	600.000,00
1_ARDATZA	434.343.114,03	108.525.000,00	108.565.250,00	108.605.902,50	108.646.961,53
• Enplegu-zentro berezietako lanpostuak mantentzea	320.000.000,00	80.000.000,00	80.000.000,00	80.000.000,00	80.000.000,00
• Enplegu-zentro berezietan lan egonkorra sortzeko inbertsioei laguntzea	4.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
• Laneratze-enpresak sortu eta mantentzea	72.000.000,00	18.000.000,00	18.000.000,00	18.000.000,00	18.000.000,00
• Enplegu-zentro berezietako jarduera profesionalari laguntzeko unitateei laguntzea	22.000.000,00	5.500.000,00	5.500.000,00	5.500.000,00	5.500.000,00
• Gizarte-ekonomian ekitea	16.343.114,03	4.025.000,00	4.065.250,00	4.105.902,50	4.146.961,53
2_ARDATZA	3.694.964,91	910.000,00	919.100,00	928.291,00	937.573,91
3_ARDATZA	1.786.576,44	440.000,00	444.400,00	448.844,00	453.332,44
4_ARDATZA	264.000,00	66.000,00	66.000,00	66.000,00	66.000,00
5_ARDATZA	800.000,00	200.000,00	200.000,00	200.000,00	200.000,00
6_ARDATZA	3.068.851,08	755.800,00	763.358,00	770.991,58	778.701,50
7_ARDATZA	600.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00
8_ARDATZA	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9_ARDATZA	1.084.127,07	267.000,00	269.670,00	272.366,70	275.090,37
10_ARDATZA	974.496,24	240.000,00	242.400,00	244.824,00	247.272,24
GESPE 2026-2029	449.016.130 €	112.153.800 €	112.220.178 €	112.287.220 €	112.354.932 €

PLANAREN GOBERNANTZA

9. GESPE 2026-2029REN GOBERNANTZA

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoaren gobernantza-eredua antolatuta dago arkitektura operatibo baten inguruan, zeinak bermatzen baititu planean jasotzen diren jarduketan sustapen politikoa, koordinazio teknikoa eta jarraipen partekatua. Planaren ezarpena efikaza eta parte-hartzailea izatea ziurtatzeko premiari erantzuten dio egitura horrek, betiere bat etorrita EAEko gizarte-ekonomiaren ekosistemak daukan konplexutasunarekin.

Koordinazioa eta sustapena

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza izango da planean buru, eta berori sustatu, garatu eta gainbegiratzeaz arduratuko da. Horretarako, bi instantzia giltzarri sendotuko dira:

- **Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Batzordea**

Batzorde hau osatuko dute Eusko Jaurlaritzan gizarte-ekonomiarekin lotura zuzena duten eskumenak dauzkaten sailtako ordezkariak (Lana eta Enplegua, Ekonomiaren Garapena, Hezkuntza, Berdintasuna, Gobernantza Publikoa, Turismoa eta Kontsumoa, Ogasuna, Etxebizitza eta Hiri Agenda, Mugikortasun Jasangarria eta abar) eta Lehendakarietzako ordezkariak. Batzordeak helburu izango du planaren zeharkakotasuna ziurtatzea eta politika publiko sektorialak gizarte-ekonomiaren helburu estrategikoekin bateratzea, koherenteak eta efikazak direla zainduz. Batzordea urtean behin elkartuko da, eta aurretik zehaztutako plangintza eta egutegi batekin egingo du lan.

- **Batzorde tekniko tematikoak**

Sailartean aritzeko gune operatibo hauetan, parte hartuko dute Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak, beste sail batzuetako teknikariak (adibidez, Ogasun eta Finantza Sailekoak), beste organismo batzuek (Lanbidek, IVApek...) eta gizarte-ekonomiaren ekosistemako agenteek. Helburu izango dute proiektu zehatzak garatzea eta horietan bidelagun aritzea, ekintzen hedapen operatiboa ziurtatzea eta egon litezkeen blokeo teknikoak edo administratiboak konpontzea. Planaren ardatz estrategikoetara lotuta egongo dira, eta jarduketa-ildo bakoitzaren premia espezifikoaren arabera aktibatuko dira.

Jarraipena eta ebaluazioa

Sailarteko Batzordeak, halaber, bere gain hartuko ditu planari jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanak. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren pean, urteko jarraipen-txosten bat idatziko du, bertan jasotzeko ekintzen aribideko egikaritze-maila, mugarrien betetze-maila, detektatutako desbideratzeak eta hobetzeko proposamenak. Txosten hori batzorde tekniko tematikoekin kontrastatuko du, eta sektoreko agente esanguratsuekin partekatuko.

Agenteen erantzukidetasuna

Plana ezartzeko, Administrazio Publikoek eta sektoreko agenteek erantzukidetasun-logika baten arabera jardungo dute, bat etorrita gizarte-ekonomiaren elkarlaneko izaerarekin. Hori dela-eta, planaren ekintza bakoitzari agente arduradunak esleitu zaizkio. Agente horien artean daude, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaz gainera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren beste atal batzuk (hala nola Ekonomia, Lana edo Enplegua eta Inklusioa), beste sail batzuk (adibidez, Hezkuntzakoa edo Ogasun eta Finantzetakoa), beste organismo eta entitate batzuk (esaterako, Lanbide eta Emakunde) eta gizarte-ekonomiako familia guztiak, KONFEKOOP, ASLE, ELHABE, GIZATEA, REAS, FUNCO, BGAE eta haien elkartze-egiturak.

PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

10. GESPE 2026-2029REN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa elementu giltzarriak izango dira, plana ondo ezartzen dela bermatzeko, aurrerapenak neurtzeko, inpaktua baloratzeko eta etengabe hobetzeko prozesuei bide emateko. Jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren diseinu xehea lan-programa espezifiko batean zehaztuko bada ere, GESPE onetsi ondoren, hementxe zehaztuko ditugu sistema hori egituratuko duten oinarrizko printzipioak eta osagaiak.

Ikuspegia eta irizpideak

Jarraipen- eta ebaluazio-ereduak oinarri izango ditu gardentasuna, baliagarritasuna, parte-hartzea eta kontu-ematea, printzipio gisara, eta modua emango du ikaskuntza garrantzitsuak eskuratzeko, bai gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoak hobetzeko, bai etorkizunean erabakiak hartzeko.

Planaren ikuspegiarekin bat datorren ebaluazio-logika bat aplikatuko da, eta horrek berekin ekarriko du ardatzen, jarduketa-ildoen eta ekintzen hedapenari jarraipen sistematikoa egitea, baita planak EAEko gizarte-ekonomiaren ekosisteman dauzkan ondorioak aztertzea ere, ikuspegi kuantitatibo nahiz kualitatibotik.

Adierazleen tipologia

Adierazleen egiturak esku-hartze publikoaren kate logiko osoa zeharkatuko du, planaren alderdi operatiboak zein estrategikoak atzemateko. Bost adierazle mota egongo dira:

- Baliabideen adierazleak: ardatz, ildo eta ekintza bakoitzari esleitutako aurrekontua eta bitartekoak.
- Gauzatze-mailaren adierazleak: egikaritutako ekintzen kopurua eta izaera.
- Eraitzen adierazleak: esperotako zuzeneko ondorioak (adibidez, sortutako enpresen kopurua, prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua, aholkularitza jaso duten entitateen kopurua...).
- Inpaktuaren adierazleak: sortutako enplegua, sektorearen hazkundera, gizartearen pertzepzioan izandako hobekuntza eta abar.
- Planaren ebaluazio-taldeak egokitzen jotzen duen besteren bat.

Aurreikusitako txostenak

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko lan-programa espezifikoaren esparruan, bi txosten mota idatziko dira:

- Urteko jarraipen-txostenek modua emango dute planaren egikaritze-maila baloratzeko eta doikuntzak edo gomendioak egiteko.
- Amaierako ebaluazio-txostena 2026-2029ko aldia bukatutakoan idatziko da, eta sakon aztertuko ditu egindako lorpenak, aurkitutako zailtasunak, planaren inpaktu orokorra eta ikasitakoak.

Txostenak Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Batzordeari aurkeztuko zaizkio, eta batzorde tekniko tematikoekin partekatuko dira, ekosistemako agenteen eskura uzteaz gainera, gardentasun- eta erantzukidetasun-ariketa modura.

ERANSKINA

I. ERABILITAKO INFORMAZIOA

I.1 eranskina. Bigarren mailako informazioa

Diagnostikoaren bigarren mailako informazioa bi bloketan antolatu da, dokumentu-iturrietan eta estatistika-iturrietan, testuinguruaren analisia aberasteko, landa-lanaren emaitzak kontrastatzeko eta EAEko gizarte-ekonomiaren ekosistemaren gaineko luzetarako ikuspegi konparatua eskaintzeko.

Dokumentu-iturriak

Zorrotz aztertu dugu EAEko gizarte-ekonomiaren erakunde-, araudi-, estrategia- eta antolaketa-testuingurua aztertzeko garrantzitsua den dokumentazioa. 70 dokumentu baino gehiago aztertu ditugu sakon, zeinak gaiaren arabera sailkatu baititugu, atal hauetan:

- **Plangintza estrategikoa eta araudi instituzionala**
 - EAEko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024ko Plan Estrategikoa.
 - GESPERen jarraipen- eta ebaluazio-dokumentuak (2022 eta 2024).
 - Ekintzailtzaren Sailarteko 2024ko Plana.
 - Bizitza erdigunean. REAS Euskadiren 2021-2025eko Plan Estrategikoa.
 - EKONOPOLLO. Gizarte Ekonomia Eraldatzailearen Poloa (REAS Euskadi).
 - 11/2019 Legea, Euskadiko Kooperatibena, eta geroko aldaketak (2021, 2023, 2024).
 - Kooperatiben Legearen Erregelamendua (12/2024 Dekretua).
 - Erregelamenduari aurretiko onespina emateko Agindua (2024).
 - Gizarte Ekonomiaren Espainiako Estrategia (2023-2027).
 - Gizarte-ekonomiaren Satelite Kontua proiektua.
- **Eremuko txostenak eta diagnostiko espezializatuak**
 - EAEko gizarte-ekonomiaren inpaktu sozioekonomikoaren txostena (2023).
 - Gizarte-ekonomiaren bilakaerari eta joerei buruzko txostena (2023).
 - Gizarte-ekonomia finantzatzeko premien txostena (2024).
 - Estatuko auditoretza sozialaren txostena (REAS, 2024).
 - CEPESek gizarte-ekonomiaren arloko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruz egindako amaierako txostena.
 - CEPESek estatistika ofizialak eguneratu ditu (2024).
 - *Alternativa Económica* aldizkariak gizarte-ekonomiari buruz ateratako ale berezia.
- **Ekintzailtza kooperatiboari buruzko azterlanak**
 - GEM Euskadi txostenak: 2018-2019, 2020-2021, 2023-2024.
 - GEM Espainia txostena: 2023-2024.
 - Gizarte-ekonomiako ekintzailtzaren analisia (EAE, 2024).
 - Ekintzailtzako orientatzaileentzako eskuliburua, sozietate kooperatibei buruzkoa (Konfekoop).
 - 1. eranskina. Gaitasun ekintzaileen autodiagnostikoaren emaitzak (ASLE).
 - 2. eranskina. Gaitasun ekintzaileen testa erabiltzeko eskuliburua (ASLE).

- 3. eranskina. Orientatzaileentzako gida, ekintzailetza kolektiboari buruzkoa (ASLE).
- Enpresa Ekimen Kooperatiboen Behatokia (Elkarlan):
 - XIX. txostena (2023)
 - XX. txostena (2024)
 - Aurretiko txostenak (serie historikoa).
- **berrikuntza, erronkak eta eraldaketa kooperatiboa**
 - Euskal Autonomia Erkidegoan berritzeko gida (2024).
 - EAEko kooperatibismoak etorkizunera begira dauzkan bost erronka.
 - EAEko kooperatibismoaren erronkak.
 - Kooperatibak, digitalizazio- eta jasangarritasun-erronken aurrean.
 - Kooperatiben Nazioarteko Urtea (2025).
 - EAEko berrikuntza kooperatiboari buruzko artikulu akademikoa (2024).
 - 2021. Kontakizuna. EAEko gizarte-ekonomia eraldatzaileari buruzko narratibak.
- **Nazioarteko dokumentazio esanguratsua**
 - Benchmarking the socio-economic performance of the social economy (Europako Batzordea).
 - SSE Methodological Note (ELGA).
 - Gizarte-ekonomia EBn.
 - Kooperatibak eta nazioarteko garapena.
 - Gizarte-ekonomia solidarioari buruzko Europako zuzentarauak.
 - Nazio Batuek gizarte-ekonomiari buruz emandako ebazpenak.

Dokumentuak aztertuta, testuingurua jarri ahal izan diegu landa-laneko aurkikuntzei, eta, interpretazio-esparru kontrastatuak txertatzeaz gainera, indarreko beste prozesu estrategiko batzuekin lotu ahal izan ditugu.

I.2 eranskina. Estatistika-iturriak

GESPE 2026-2024ren analisi kuantitatiboa estatistika-iturri ofizial publiko eta espezializatueta oinarritu da, datuen fidagarritasuna, homogeneotasuna eta alderagarritasuna bermatzen baitituzte. Iturri horiek modua eman digute aztertzeko EAEko gizarte-ekonomiaren dimentsio ekonomiko eta soziala, lurralde-banaketa, bilakaera historikoa eta gorabidean dauden joerak:

- **Estatistika Istituto Nazionale (EIN)**
 - Biztanleen errolda jarraitua: datu demografikoak, udalerrien eta lurralde historikoen arabera.
 - Lan-merkatuaren eta enpresa-egituraren inguruko estatistikak (ekoizpen-sarearen testuinguru orokor gisa).
- **EUSTAT– Euskal Estatistika Erakundea**
 - Jarduera Ekonomikoen Direktorioa: gizarte-ekonomiara lotutako jarduera ekonomikoen identifikazio sektorial eta geografikoa.
 - Egiturazko estatistikak eta enpleguari buruzkoak, hirugarren sektorearekin eta gizarte-ekonomiarekin zerikusia dutenak.
- **Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila**

EAEko Gizarte Ekonomiaren
Sailarteko 2026-2029ko Plan Estrategikoa

- Gizarte Ekonomiaren Estatistika: entitate kopuruari, enpleguari, negozio-bolumenari eta forma juridikoen arabera banaketari buruzko adierazleak.
- Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa (MITES)
 - Kooperatiben eta Lan Sozietateen Erregistroa: eremuko altei, bajei eta bilakaera juridikoari buruzko luzetarako informazioa gordetzen duen administrazio-oinarri estatala.
- Elkar-Lan S. Koop. – Kooperatibak Sustatzeko Sozietatea
 - Inkesta: Enpresa Egitasmo Kooperatiboen Behatokiaren hogeigarren txostena (2025): urteko estatistika-txostena.
- Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia – EEB/ OVE
 - GEM 2023-2024 txostena: motibazioei, oztopoei, inguruneko baldintzei eta ekintzailetza-jardueraren adierazleei buruzko adierazleak, gizarte-ekonomiari begirakoak.

II. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAKO ERAGILE NAGUSIAK

KATEGORIA NAGUSIA	AZPIKATEGORIA	AGENTEA
ERAKUNDE PUBLIKOAK	Eusko Jaurlaritza	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
		Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua
		Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
	Estatuko Administrazio Orokorra (AGE)	Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa
		SEPE (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa)
	Toki- eta foru- administrazioa	Foru-aldundiak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba)
		Udalak
		EUDEL – Euskadiko Uдалen Elkartea
GIZARTE- EKONOMIAKO ERAKUNDE ESANGURATSUAK	Kooperatibak eta lan- sozietateak	Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
		KONFEKOOP – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
		ASLE – Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea
		Mondragon Korporazioa
		ELKAR-LAN (gaur egun, Hazikoop)
	Laneratze- enpresak eta enplegu-zentro bereziak	Gizatea – Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratze Enpresen Elkartea
		EHLABE – Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea
	Ekonomia alternatibo eta solidarioa	REAS Euskadi – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea
	Fundazioak	FUNKO – Fundazioen Elkartea
SAREAK ETA KOORDINAZIO- PLATAFORMAK	BGAE	Euskadiko BGAEen Federazioa
		EGES – Euskal Gizarte Ekonomia Sarea
		Ekonopolo – Gizarte Ekonomia Eraldatzailearen Poloa (Bilbo)
UNIBERTSITATE AK ETA EZAGUTZA- ZENTROAK		Finantza Etikoak Euskadi
		EHU
		GEZKI – Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua
		LANKI – Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua
		Huhezi – Humanitateak eta Hezkuntza Zientziak
		Mondragon Unibertsitatea
		MTA – Mondragon Team Academy

Deustuko Unibertsitatea

KATEGORIA NAGUSIA	AZPIKATEGORI A	AGENTEA
SINDIKATUAK, GIZARTE-ERAGILE GISA		ELA (Euskal Langileen Alkartasuna)
		LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak)
		Euskadiko CCOO
		Euskadiko UGT
		CNT / CGT
BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA KOOPERATIBOA		EkimenOla – Azeleragailu Intraekintzailea
		Ikerlan kooperatiba-sozietatea
		ISEA kooperatiba-sozietatea
		HIREKIN – Industria Eraldaketa Iraunkorrerako Berrikuntza eta Ekintzaietza Zentroa